


Galizia Durangon

Galizia izango da
gonbidatu nagusia

Durangoko Azokan 35



Sarrionandiak irabazi du Euskadi saria, baina Jaurlaritzak haren dirua atxikiko du

‘Moroak gara behelaino artean?’ liburuagatik eman diote saria, saiakeraren atalean. Jaurlaritzak esan du saridunak ez dituela jasoko 18.000 euroak bere egoera erregularizatu arte

Karlos Zabalak jasoko du euskarazko itzulpenaren saria, ‘Zubi bat Drinaren gainean’ lanarengatik. Iñaki Uriarteri emango diote gaztelaniazkoa, ‘Diarios 1999-2003’ liburuagatik 32-33



ALEJANDRO GARCIA / EFE

→ **M-15eko 22 lagun, Auzitegi Nazionalera.** Krisiaren inguruko kudeaketaren kontra protesta egin eta Kataluniako legebiltzarkideei sarrera oztopatzeagatik, Auzitegi Nazionalaren zitazioa jaso behar zuten atzo 22 lagunek. Hiru eta bost urte arteko kartzela zigorrak eskatu dituzte protesta egin zuten ehunka lagunetatik 22ren kontra. Irudian, atzo Bartzelonan zitazioa jaso behar zutenak babesteko protesta. 2-3

B eta D ereduak ez dute ziurtagiririk beharko lan eskaintza publikoetan

Isabel Zela Hezkuntza sailburuak esan du zuhur jokatu dutela euskaratik salbuesteko dekretuan. Jaurlaritzak urte amaierarako onartu nahi du 10

Greziak ez du lortu defizita Europak eskatzen zion mugara ekartzea

Defizita %8,5koa du, %7,8koaren ordean, eta aurreikuspenak ez dira onak. Europako laguntzak jasotzea espero du, hala eta guztiz ere 15

Oinarrizko errenta unibertsala sustatu nahi du Bilduk Gipuzkoan

Baldintzarik gabeko oinarrizko errentaren aukera aztertzeko, lantalde bat sustatuko du aldundiak Gipuzkoako Batzar Nagusietan 16



'Haserretuen' mugimendua →

Bartzelonan, haserretik ekintzara pasatuko dira

Urriaren 15a iraultzarako nazioarteko eguna izendatu dute. Munduko hainbat hiritan egingo dituzte protesta bake-tsuak, eta Bartzelonan ere bat egin dute *Global Revolutionary Day* izena daraman mugimenduarekin. Haserretik ekintzara. Gure eskubideak edo euren interesak lelopean manifestazioa egin-



Haserretuak, Bartzelonan. A.DALMAU / EFE

go dute, Katalunia plazatik hasi eta Garaipen Arkuraino.

Bestalde, larunbatean egin zuten batzarrean zerbitzu publikoetan iragarri dituzten murrizketak salatzeke urriaren 14an hainbat eskola eta ospitale okupatu dituztela jakinarazi zuten. Horrez gain, murrizketak, kaleratzeak eta sarekadak gelditzeko eskatzeko kartelak egin dituzte.



Atxiloketen helburua ez da M-15 mugimendua kriminalizatzea, eta ezta ospea kentzea ere»

FELIP PUIG
Kataluniako Barne sailburua

M-15 mugimendu osoa kriminalizatu nahi izatea salatu dute 'haserretuek'



Katalunia plazan, Bartzelonan, 500 lagun inguru bildu ziren, atzo, atxiloketak gaitzesteko. ALEJANDRO GARCIA / EFE

Katalunian ekainaren 15ean diputatuei Legebiltzarrerako sarrera oztopatzeagatik, 22 lagun kontrako zitazioak bideratu dituzte

Espainiako Auzitegi Nazionalak hiru eta bost urte arteko kartzela zigorra jar diezaieke

Amagoia Mujika

Katalunian abian jarri dituzten murrizketen aurrekontua eztabaidatzera zihoazela Legebiltzarrerara sartzeko bidea ixten saiatu ziren M-15 mugimenduko manifestariak Bartzelonan, joan den

ekainaren 15ean, eta orain horietarik, gutxienez, lau lagun atxilotu dituzte mossoek; hiriburuko polizia etxe batean deklarazioa hartu eta Espainiako Auzitegi Nazionalera joateko zitazioa eman ondoren aske uztekoan ziren haiek atzo bertan, baina epai-

tu ostean erruduntzat jotzen baituzte hiru eta bost urteko espetxe zigorrari egin beharko diete aurre. 22 lagun jo dituzte liskarren erantzuletzat, eta guztiak datozen orduetan atxilotzeko agindua dute mossoek.

Haserretuentzat mugimendu osoaren kontrako operazioa izan da atzokoa, osasun eta hezkuntza bezalako arlo garrantzitsuetan murrizketa politika onartzen ez duen mugimendu sozial jendetsuaren kontrako eraso, erabaki «antisozialak eta bidegabeak» salatzeagatik hartutakoa. Krisiarengatik eta hori gainditzeko neurriengatik protestara aterata-

ko jendearen eskaerak entzun beharrean, «errepresioarekin erantzun eta disidentzia kriminalizatzen dute», baina herritarrak ez daude krisiak dakartzen ondorio larriak «besterik gabe» onartzeko prest, eta kalera irteten jarraitzeko deia egin dute.

Estatuaren kontrako delitua egin izana leporatu diete 22 auzipetuei, eta haserretuek nabarmendu dutenez, delitu hori ez da inoiz leporatu Diputatuen Kongresuan, Senatuan edo erkidegoetako instituzioetan egindako protestengatik. Atxiloketak, beraz, ez dira izan gizabanakoaren kontrakoak, mugimendu osoa-

ren aurkakoak baizik, ordezkari-tza politikoaren sistema kritikatu eta hark hartzen dituen neurri ekonomiko «neoliberalak» gaitzesteagatik. Demokrasiaren balioa eta ezberdinen eskubideak zapuzten ari direla diote.

Mugimenduarentzat CiUk hartu behar zituen erabaki gogorrek izan dezaketen oihartzunetik desbidetearren gertatu da gertatutakoa: «Aurrekontu antisozial eta erabat bidegabeak estaltzen saiatu dira, hauteskunde programean agertu ez diren horiek. Ez dira erreferendum baten bidez erabaki, eta paradoxikoki orain CiUko politikariak dira berme demokratikoak eskatzen dituztenak, herritarrei kontsulta egitea eskatzen ari direnak PPK eta PSOEk Konstituzioaren erreforma egitea erabaki dutenean».

Haserretuen abokatuek, berriz, polizien atzoko operazioa «mediatiko» izan dela kritikatu dute, zitazioen ohiko prozedura inputatuei bidaltzea izaten delako, atxilotzeko beharrik izan gabe, eta ikusgarritasuna eman beste arrazoirik ez du izan, haien ustez.

Delitu larria

Eloy Velasco magistratuaren aurrean deklaratu beharko dute atxilotu takoek. Velasco ari da Parlamenten gertatutakoa ikeritzen, eta auzia Espainiako Auzitegi Nazionalan erabakiko da, estatuaren goi agintarien kontrako delitua egin izana egotzen dielako.

Atxiloketak Interneten arrastoa jarraituz eta komunikabideek egun hartan hartutako irudiei esker egin dituzte. Egunean bertan diputatuei bidea ixteko sarearen bidez egin zituzten komunikazioak eta horiek baliatu dituzte. Joan den asteazkenean aurkeztu zuten poliziek epaileak agindutako txostena, baina komunikabideek hartutako irudiekin osatzeko eskatu zuen ondoren, liskarre-

6» Espainiako Gobernuak izkin egin dio
Egiaztatze Batzordea onartzeko deia

11» Ikasleen gorakadari erantzuteko behar beste
irakasle hartu ez izana leporatu diote Zelaari

‘Haserretuen’ mugimendua →

Poliziak gehiegikeriaz jokatu zuela dio arartekoak

Iragan maiatzaren 27an Poliziak Katalunia plazan kanpatuta zeuden *haserretuak* indarrez kanporatu zituen. Kataluniako arartekoak egun hartako operazioa ikertu du, eta Poliziak gehiegikeriaz jokatu zuela azaldu du txosten batean.

«Ez zen beharrezkoa horraino hel-

tzea», azaldu du Maria Assumpcio Vila arartekoak gertakarien inguruan. Plaza garbitzeko aitzakiarekin kanporatu zituzten bertan kanpatutako herritarrak. Egun batzuk lehenago, ordea, plaza inolako liskarrik gabe garbitu ahal izan zutela dio Vilak. Horrez gain, manifestariekin hitz egiteko ahaleginik egin ez izana eta identifikazio zenbakirik gabe azaldu izana kritikatu du.



Jendeak protesta egiteko eskubidea dauka, baina gainontzekoak kalean lasai egotea bermatu behar dugu»

MICHAEL BLOOMBERG
New Yorkeko alkatea

‘Haserretuen’ kanpadendak kendu ditu Poliziak Israelen

Epailearen aginduz, Tel Aviven geratzen ziren *haserretuen* azken kanpadendak kendu dituzte poliziek, horiek aurkeztutako helegitea atzera bota eta gero. Duela bi hilabete atera ziren kalera Israelen *haserretuak*, eta inoizko manifestaziorik jendetsuena egin zuten Tel Aviven —450.000 lagun bildu ziren—.

tan aritutakoen kontrako frogak izan ditzaten.

Lehen atxiloketa atzo 08:00etan egin zuten, gizon bat lanera zihola Bartzelonako Gracia auzoko etxetik ateratzen ari zenean, eta kalez jantzitako poliziek atxilotu zuten, lekukoek esan dutenez. Komunikabide batentzat irudiak hartzen ditu atxilotu horrek, eta mugimenduan parte aktiboa du.

Ekainaren 15ean Kataluniako Gobernuak kideak Parlamenteko

Estatuaren goi agintarien kontra aritzea leporatzen die epaileak atxilotuei

Erabaki «bidegabeak» salatzeagatik kriminalizatzea kritikatu dute M-15koek

bidea denak batera egiten ari zirela *haserretuek* bidea itxi eta kideen erdiak helikopteroz iritsi ziren legebiltzarrera, Artur Mas presidentea, Nuria de Gispert Parlamenteko presidentea eta hainbat kontseilari. Gainerakoek auto ofizialetan, Polizia furgoietan eta segurtasun neurri izugarriak hartuta egin zuten bidea, herritarrak oldartu zitzaizkielako.

Goiz-goizetik tentsioa nabaritu zen Parlamenten inguruan, mila lagun inguru legebiltzarkideen sarrera oztopatzeko lurrean eseri zirenean. 07:00etan lehen tiroak jaurti zituzten poliziek manifestariak sakabanatzeko, eta ondoren kargatu zuten jendetza mosoen furgoietara gehiegi gerturatu zelakoan. Poliziaren kontrako oihuak egin zituzten, eta batzuek edukiontzia irauli zituzten barrikadak jartzeko. Legebiltzarreko ordezkariak igarotzen ari ziren bitartean, oihuak egin zituzten, eta hainbati bultzadak eta pintadak ere bai.

3.000 lagun inguruk egin zuten protesta, eta horietako 500 bat saiatu ziren poliziak inguratzen, mugimendura gertura zitezen eskatuz. Poliziaren eta herritarren arteko liskarrek, hogeitik gora zauritu eragin zituzten, eta bi lagun ospitalera eraman behar izan zituzten. Politikariak gogor gaitzetsi zuten gertatutakoa.



Bostongo *haserretuen* kanpalekuan gizon bat pankarta bati eusten. C.J. GUNTHER / EFE

New Yorkeko ‘haserretuen’ protestak oihartzun txikia izan du orain arte. Baina, Poliziaren jazarpenari eta ospetsuen nahiz sindikatuen babesari esker, gero eta indar handiagoa du ‘Occupy Wall Street’ mugimenduak.

Erasoa finantzaren gotorlekuari

Elixabet Epelde

New Yorkeko *haserretuen* lehen deialdiak uste baino oihartzun txikiagoa izan zuen, irailaren 17an. «Gizartearen %99a gara, eta ez dugu %1 horren zekenkeria eta ustelkeria onartuko», zioten *Occupy Wall Street* mugimendu jaio berriko kideek. Baina, %99 hartatik ordezkari bakan batzuk baino ez ziren bildu Wall Streeten, New Yorkeko finantzaren gotorlekuan —lehen egunean 2.000 lagun inguru elkartu ziren, eta 296 lagunek baizik ez zuten kanpatu kalean—. Denborekin, baina, mugimendua indartzen ari da, eta larunbatean Poliziak Brooklyngo zubian 700

lagunetik gora atxilotu izanakin bultzada handia eman dio. Segurtasun indarren jazarpenari esker, haserrea AEBetako beste hainbat hirietara zabaldu baita.

Manifestazio jendetsua egin zuten larunbatean kapitalismoaren aurka New Yorken. Brooklyngo zubia trafikoa erantzat itxita egon zen lau orduz, eta 700 lagunetik gora atxilotu zituen Poliziak, ordena publikoaren aurkako delituak egotzita. Manifestariak, baina, guztia Poliziaren tranpa bat izan zela salatu zuten, eta euren asmoa ez zela zubia hartzea. Atxilotuak ondorengo orduetan askatu bazituzten ere, AEBetako nahiz nazioarteko hedabideetan oihartzun handia izan du gertakariak, eta Bostonen, Los Angele-

sen edota San Frantziskon protestak egin dituzte New Yorkeko lagunei elkartasuna adierazteko.

Astebete lehenago, *haserretuek* antolatutako beste manifestazio batean ere liskarrak piztu ziren, eta 80 pertsona atxilotu zituzten. Gainera, zeresan handia eman du lau manifestariri *piperbeltz spraya* jaurti izanak. Hori dela eta Poliziaren jazarpena aurkako efektua ari da izaten; geroz eta jende gehiago atera da kaleetara *haserretuei* elkartasuna adierazi eta euren eskaerekin bat egiteko.

Ikusezinak, orain arte

Hedabideentzat eta klase politiko nahiz finantzariarentzat kasik ikusezinak izan dira, duela gutxi arte Wall Streetetik gertu dagoen

Zucotti plazan kanpatutako gazteak. Egun gutxitan kanpamendua altza, eta manifestariak etxera itzuliko zirela uste zuten gehienek. *Haserretuek* ordea, tinko eutsi diote «bidezkoagoa» izango den gizartea eraikitze helburuari, eta gutxika-gutxika hasierako ikusezintasun hori gainditzen ari dira. Protesta egiteko arrazoiak badituzte gainera: langabezia tasa %9tik gorakoa da, eta sei estatubatuarretatik bat —46 milioi lagun— pobrezian bizi da.

Hainbat ospetsuk —Susan Sarrandon aktoreak eta Michael Moore dokumentalgileak, esaterako— manifestariekin bat egin izanak ere lagundu du protestaren ospea handitzen. Baita sare sozialen erabilerak ere, teknologia berrien bidez mugimenduarekin bat egiteko deia zabaldu baitute.

Horrez gain, iragan astean hainbat sindikatu batu zitzaizkien. Postako langileen sindikatuak —100.000 afiliatu baino gehiago ditu—, eta New Yorkeko garraio publikoarenak —38.000 kide ditu— Zucotti plazako *haserretuen* aldeko adierazpen publikoa egin zuten.

Etxebizitzaren, hezkuntzaren eta osasun sistemaren garestitzeaz kezatu dira egunotan, besteak beste. Eta egungo sistemaren «aldaketa» bat emateko herrialde arabiarretako protestak hartu dituzte eredu gisa. Aldea, ordea, handia da. Buruzagitarik gabeko mugimendu gisa definitu dute *Occupy Wall Street*, eta kolore guztietako jendea batzen dutela diote. Hainbat hedabideetan, ordea, *aberaskume* gisa izendatu dituzte erdeinuz. Horrez gain, eskari eta helburu garbirik ez izatea ere leporatu diete. Hain zuzen, klase ertaineko gazteak dira Zucottin bildu diren gehienak. Beltzen eta hispanoen arrastorik ez da izan, orain arte. Dena den, azken egunotan izan duen bultzadarekin mugimendua zabaltzea espero dute *haserretuek*. Geroz eta antolatuago daudela ere badiote.

Norabide bat zehaztu ezean porrotera kondenaturiko mugimendua dela diote, aditu askok. Klase politikoa nahiz finantzaria, baina, larritzen hasiak dira *haserretuek* lortu duten oihartzunarekin.

Zurian beltz

Itxia da behelainoa hemen, ez da ezer ikusten atzean, herria utzi nuen atzean, haurtzarora, oroitzapenak berritzen ditut ibaiari begira orain, han ere bazen erreka bat, jauzi eta igeri egiten genuen, batek alde egin zuen, besteoi gogoia sartu zitzaigun, hemen ondo bizi zirela esaten ziguten, gauza ugari zutela, bazutela iturrian ura, edateko modukoa, bazutela janaria nahikoa, era guztietakoa, han ez zegoen lanik, han ez zegoen ezer, iparralde zurian jarri genuen gure itxaropen guztia, telefonoz egoten naiz noizean behin gurasoekin, ondo nagoela esaten diet,




Jira
Xabier Gantzarain

badudala lan bat, badudala etorkizun bat, baina itxia da behelainoa hemen, eta aurrean ez da ezer ikusten, lana urritzen ari da, kaxkarrenak geratzen dira guretzako, gaizki ordaintzen dute, dagoena hartzerik gauden kondena-tuta, baldintzak eskasak dira, mehatxu egiten digute, topatuko dugu zuen lana zeinek egin, ondo nagoela esaten diet, badudala lan bat, lasai antzean bizi naitzela, baditudala lagunak, futbola ikustera joaten garela lantzean behin estadiora, tabernan juntatzen garela bestela futbola ikustera, ez diet esaten etxerakoan beldurra sentitzen dudala. Itxia da behelainoa hemen, baloi gorria eta beltzak ikusten dira ondo.

Sarri eta ni

A maren gau mahaiaren gainean Atabala eta Euria izeneko liburua ikusi nuen umetan, eta aitak azaldu zidan nola alde egin zenuen kartzelatik. Izeba Mariasunen Ipuinak izan zen irakurri nuzun lehen liburua, eta Gartzelako Poemek makina bat marapilo egin dizkidate urdaileko atean. Ene ondasun guztia entzun nuenean jakin nuen ez duzula «r» ondo ahoskatzen, eta irakurle batek inoiz egin didan erregalu bakarria Narrazioak izan da —erredakzioan utzi zuten nire izenean—. Zuri buruzko notiziak azaltzen diren bakoitzean ni baino gaz-



Bira
Onintza Enbeita

teago agertzen zara argazkietan, eta 21 urte zaharragoa zara. Amets egiten dut egunen batean gure herriko liburutegira etorriko zarela eta iluntzean etxera noanean pentsatuko dudala, «Ainhoari gutunak idatzi zizkion gizonak, biluzten bagara errazagoa dela esan zuenak, muxu bi eman dizkit». Pertsonaia erromantikoa zara, Sarri: bazaude eta ez zaude. Batzuentzat terrorista bihurtu zaituzten esku berberak bihurtu zaituzte niretzat idazle berezi. Ez dakit esku lodiak, meheak, zahartuak, atzamar luzedunak, laburrak... izango dituzun, baina primeran jakin dute sentimenduak folio zurietan esplikatzeko. Zorionak, Sarri, baina ez sari honen gatik bakarrik: eskerrik asko guztiagatik.

Zuzendaria: Martxelo Otamendi
Zuzendariordea: Enekoitz Telleria
Edizio arduraduna: Andoni Alvarez
Argitaratzailea: Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera publizitatea
Legedordailua: SS-0662/03
Batzorde parekidea: 0712184059

Egoitza nagusia: Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain.
Telefona: (0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitatea: publi@bidera.eu
Harpidetza saila: (0034) 943-30 43 45

Date: 04/10/2011
Exemplaire: 2.570
Editeur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication: Martxelo Otamendi
Comission paritaire: 0712184059
Delegation Labour: Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefona: 945-15 04 52. Erredakzioko faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefona: 94-435 26 00. Erredakzioko faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefona: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefona: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info.

berria

Zelaa eta Iribas vs Euskal Herria

Ainhoa Larrabe Haizea Ginea

Euskal Herriak Bere Eskola

Ikasturte berria hasi da jadanik, eta, ohi bezala, erronkaz beterik iritsi da aurtun ere iraila. Irekiera ekitaldi eta hitzaldi ponposoekin abiarazi dute ikasturtea Zelaa eta Iribas; harro asko agertu dira biak 2011-12ko ikasturteari ongi-egorria ematen, administrazioetatik bideratzen ari diren erreforma guztiak herri honi zenbat onura egingo dioten azaltzen, egin dituzten berrikuntza guztiak herritarren mesedetan direla saldu nahian.

Egia da, bai, aldaketak egiten ari dira, hori behintzat aitortu behar da... Gogor ari dira euskararen, euskal nortasunaren eta Euskal Herriaren aurka lanean. Oso ondo dakite herri honen zapalkuntza areagotzeko hezkuntzaren moduko tresna bat baliatzen. Izan ere, bal da helburu horretarako tresna hoberik? Belaunaldi berriak hezi eta etorkizuneko jendartea eraikitzeke tresna beraian nahieran antolatzeke eskubidea dutela uste dute, eta horretan ari dira.

Curriculumean aldaketa ugari bideratu dituzte: Euskal Herriaren izaera ezabatu nahi dute, gure historia eta lurraldetasuna EAE edo Nafarroara soilik mugatuz. Eta, horretarako, interes horien araberrako testuliburuak sustatzen dituzte, bai baitakite testuliburu jabe dena irakaskuntzaren jabe ere badela, zoritxarrez.

Educación para la paz irakasgaiarekin ere aurrerapausoak ira-

garrak dituzte ikasturte honetarako. Esana dugu aurretik, eta berriz errepikatuko dugu, plan honek Euskal Herriko gatazka politikoa irakurketa partzial eta interesatu bat duela oinarrian; ez duela inolako ikuspegi integralik barneratzen. Horren ondorioz, hezkuntza interes zehatzetara bideratzeaz gain, ez ditu tresna objektiboak sortzen ikaslearen gaitasunak zein norbanakoaren autonomia gara dadin.

Euskararen alorren ere fin ari dira lanean. Ez, ordea, norabide egokian! Isil-isilik hasi dira hiru eleko ereduaren proiektua txertatzen. Ingelesaren ezagutzak gaur egun duen garrantzia ukaezinez aprobetxatu dira euskarak ikastetxeetan dituen orduak murrizteko. Hiru eleko sistema EAEn, TIL eta Hello Nafarroan; hiru proiektu eta helburu bakarra: euskararen berreskurapen prozesua oztopatzea. Datozen belaunaldiei gure ama hizkuntza ezagutzeko eskubidea ukatzen ari dira. Lehen ere esana dugu, baina hau ere berriz errepikatuko dugu: gu ez gauden ingelesa ikastearen aurka, guk ere eleaniztasunaren alde egiten dugu, baina euskaratik abiatutako eleaniztasun bat da sustatu nahi duguna.

Hori gutxi balitz, Zelaa eta Iribas bultzatzen duten hezkuntza eredu ekonomia eta merkatuari zein lotua dagoen ageri-agerian uzten dute lotsagabeki. Krisi ekonomiko sektoriala da, ordea, hauena. Hezkuntzaren moduko arloetan murrizketak bideratzen dituzten bitartean, herritarren babesik ez duten makroproiektuekin aurrera jarriatzen dute. Murrizketa neurri-

horiek ondo baino hobeto ezagutzen dituzte Nafarroan, eta ikasturte hasieratik bertatik mobilizazio asko egin dituzte hezkuntzako sindikatuak hartutako neurriak salatzeko. Hurrengo zita urriaren 27rako deitu dute: greba orokorra. Sindikatuak egin dute deia, baina guztioi dagokigu orain murrizketen aurrean kalera irtetea. Hori erantzunez mobilizazio eta ekimen ugari bideratu dituzte Nafarroan. Hurrengo zita urriaren 22rako deitutako manifestazioa eta 27ko greba orokorra dira. Irakasle, ikasle, langile, guraso zein herritarroi, kalera irten, eta neurri hauei erantzutea dagokigu orain.

Zelaa eta Iribas aldaketa eta proiektu ugari egiten ari dira, bai. Baina ahaztu egin zaie bakarrik ari direla horretan, herritarren babes falta zaiela. Sentitzen dugu, baina Euskal Herriak ez ditu aginta-

Zelaa eta Iribas aldaketa eta proiektu ugari egiten ari dira, bai. Baina ahaztu egin zaie bakarrik ari direla horretan, herritarren babes falta zaiela

rien proiektu hauek nahi. Inorekin eztabaidatu eta adostu ez diren proiektu hauek ez digute balio. Bi horiek ez bezala, guk herriak definitutako proiektuak ditugu esku artean. Horrela ulertzen baitugu guk hezkuntza, herri proiektu gisa.

Ikasle eleaniztasunak sortzeko proposamena 2008tik dago egin; euskara ardatz hartuta Euskararen Kontseiluak osatutako eleaniztasun proiektua da. Proposamen honek hezkuntza komunitateko zein euskalgintzako kideen artean babes izugarria jaso du.

Ez da hori herriaren babesaren duen proiektu bakarra. 2003an Udalbiltzak, Sortzen-Ikasbatuazek eta Ikastolen Konfederazioak Euskal Curruculuma osatzeko hitzarmena egin zuten, eta, orduz geroztik, eremu ezberdinetako eragile zein norbanakoek egitasmoaren garapenera bide eman diote. Beste inon ikusi ez bezala, herriak sortutako Curriculum bat dugu Euskal Herrian. Azken pausoa eman, eta aplikazio fasean murgiltzea da hurrengo erronka.

Are gehiago, ehunka herri zein ikastetxetan, Hezkuntza Sistema euskaldun eta herritar baten aldeko proiektu eta dinamika garatzen dituzte egunero; ikasleak etengabe ari dira egungo ereduak salatzen eta Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko dinamika pizten. Nabaria da, beraz, hezkuntzarekiko kezka egon badagoela.

Euskal Herrian zabaltzen ari den arò berri honetan beharrezkoa da hezkuntzaren gaiari heldu eta Hezkuntza Sistema propio baten aldeko indarrak bildu eta eraso hauen guztien aurrean harresi sendo bat eraikitzea. Gure herriaren geroa diren belaunaldi berriei euskararen ezagutza, euskal edukiak eta balio aurrerakoietan oinarritutako heziketa emango dien hezkuntza eraikitzeari heldu behar diogu.

Ikasle, langile, guraso zein hezkuntzarekiko kezka dugun herritar oro, herriz herri, bil gaitzen! Herri honen eraikuntzarako tresnak esku artean ditugu!

* Hizpideak

Okerretik okerragora

Iker Aranburu
iaranburu@berria.info

Geziari diru gehiago uzteko, haren aldetik emaitzak nahi zituen Europako Batasunak, Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtsak sortutako hirukoteak. Ari dira emaitzak iristen, baina ez dira *troikak* nahi zituenak: atzeraldia sakondu egin da —%4,5 erori zen iaz Greziaren BPGa, eta %5,5 izateko bidean da aurten—, milaka langile publiko kaleratzeak langabeen zerrendak handitu ditu —%15,2ra iristekoa da langabezia tasa

aurten—, eta lehengoaren zein bigarrenaren ondorioz, defizita pixka bat baikik ez da txikitu: BPGaren %10,5etik %8,5era, Greziak bere *salbatzaileekin* hitzartu zuen baino puntu bat gutxiago. Besterik espero al zitekeen hainbat hamarkadatan gizendutako estatua-ren egitura urte pare batean argaldu nahi izanez gero?

Baina orain arte botikak funtzionatu ez duen arren, errezetari eusteko asmoa du Europako Batasunak. Hurrengo asteotan diru gehiago utziko dio Greziari, eta arnasa hartuko du Atenasko gobernuak, noizbait sendagaiak efektua egingo duen esperantzan.

Hitz beste
Anjel Lertxundi

Kaleidoskopioa

Motibazio berezia neukan Sarriren saioari ekiteko: Pedro Hilarion Sarrionandia, Garaiko fraide frantziskotarra eta bereber hizkuntzaren lehen gramatikaren egilea, Afrikara joan zenean, Jose Lertxundi oriotar arabista zen bertako prefekturako buru. Baina bi fraideen lanen eta ibilerei buruzko saio akademiko konbentzional bat izan zitekeena, kaleidoskopio sekulakoa bihurtu du idazle benetako baten lumak, eta epaimahaiak zuzen esan duen eran, kultura aniztasunaren aldeko aldarria oparitu digu Sarrik.

M.C. Escherren irudietako eskaileretan egindako bidaia batekin konparatu zuen Joxemari Iturraldek: eskaileretan gora zoazelakoan, itzultzen ari zara; ueste duzunean itzultzen ari zarela, aurrera zoaz, Escherren eskaileretan sekula ez baitago garbi mailek noiz egiten duten gorantz, noiz beherantz. Artean ere halatsu: bidaia ez da sekula norabide bakarrekoa, zuzena, atzera bueltarik eta kontraesanik gabea...

😊 Zaldieroa

De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com

AMA:URKO
GAZTELU
BELTZA
IN:
IV. Kapitulu

Esan, Nafarroako Erregerik ez baduzue... Printze bat izango duzue sikiera, ezta?

Printzea? ez...

Bveno... Printzesa bat dugu!!

...Yolanda Barcina izenekoa

Bada, bere izenean defendatuko dugu gaztelu hau!!

Yolandaaa!

Handitzen, handitzen...

Ez naiz inoiz izan haurtzarora gorai patzen duten horietako bat. Askoren ustez, umeak garen bitartean ez gara jabetzen munduan gertatzen diren miseria guztiez. Nik txikitatik ikusten nituen injustiziak, bata bestearen atzetik. Hori zela eta, gauetan beldur handia pasatzen nuen; betidanik egin dut lo oso gaizki. Baina denborarekin konturatu naiz gordetzen nituela umetatik hainbat aburu, eta orain ari naizela horietako siniskeria batzuekin apurtzen. Horietako bat horrela enuntziatuko nuke: lagunen arteko enpatia eta elkarri ulertzeko ahalmena. Beti uste izan dut lagunen edo maite dituzun pertsonen artean zaudenean aukera gehiago dituzula elkarren arteko hartu-eman on eta errazak izateko. Azkenaldian, nire usteak ustel bilakatzen ari dira.

Ez dakit lan kontuak diren, edo nik feminismoarekin eta emakumeen gaiekin dudan gertutasuna, baina ezinezkoa da kontatzea zenbat pertsonak dezepzionatu nauten azken urte hauetan. Elkarte herrikoak —elkarte gastronomikoak— direla

Larrepetit
Josebe Iturrioz

Ez nau maite, ez ni, ez bere ama, ez bere arreba, ez bere ondoan dagoen edozein emakume

edo alardeak direla, edo edozein gauza dela, gaia atera orduko, beti dago norbait hanka barruraino sartzeko edota graziaz gabeko lau txiste kontatzeko prest. Berdin zaie nire aurpegian marrazten den haserre; agerikoa da ez zaidala bate-re gustatzen entzuten ditudan astakeria guztiak. Askotan, okerrera esandakoa hobetu nahi dutenean hasten da. Hortxe datoz justifikazio burutsuak, adibide moduan perla batzuk: «Emakumeak ez zarete gai ezer antolatzeke; zertan etorri behar duzue gure tokietara?», «taldean hasi orduko, emakumeak moka hasten dira eta ez dira gai ezer egiteko», «ez al dago emakumea betiko paperetan hobeto? Bai, kantineraz ateratzen, poz-pozik». Zein mingarria den norbait maite duzunean bere ahoan horrelakoak entzutea. Gertatzen denean, beti pentsatzen dut: ez nau maite, ez ni, ez bere ama, ez bere arreba, ez bere ondoan dagoen edozein emakume. Ez gaituzte maite. Nik ez nuke inoiz maite dudan jendeaz horrela hitz egingo; ez dut uste hanka tartekoak hainbeste markatu behar lukeenik.

✉ Zuzendaritari

BERRIAk irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta BERRIAk mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

Ilusioa eskegi

Bizitza erritualetz beteta dago. Nork bere erritualak ditu, gainera.

Egongo da ohe kidea hitz gozo batez esnatuko duenik, txakurra lanera joan aurretik aterako duenik, edota gauza biak egingo dituenik.

Ni ohetik altxatu, eta oraindik begiak erdi zabalik ditudala, ondoko logelara propio joaten naiz, eta pertsianako uhalari eusten diot gora egiteko, egunsentiaren argi motela etxean sartzeko.

Eta orduan hantxe begiesten dut gauetan, edozein modutan kateatuta, eta bil-bil egondako «askatasun zapia» pertsianako kakoetatik eskegita. Gehienetan, ez dit lan handirik ematen, bakar-bakarrik ez bada, haizeak

lagunduta, ikasi baitu bere leloa lau haizetara itxuroso zabaltzen.

Hala eta guztiz ere, inoiz eguraldiaren txarrak kuzkurtzen baldin badu, ikurraren ertzetatik tiratu, eta betiko itxura harroa hartzen du.

Gainera, gure askatasun ikurra ez dago bakarrik, badu lagunik; aurrez-aurrezko etxeetan beste bi daude, eta horrek laguntzen dio elkarren arrimuan presoen egoeraz txutxu-mutxuka aritzen.

Tamaina horretako erritualak baino potoloagoak egongo dira; hori ez dut zalantzatan ipintzen, baina niri laguntzen dit egunerokoa alaiagoa egiten, beraiengandik gertuago egoten. Eta zuri?

Juan Luis Mugertza.



Patxi Lopez, Arantza Quiroga eta Juan Luis Ibarra, urte judicialaren hasiera ekitaldian, atzo. LUIS TEJIDO / EFE

Egiaztatze Batzordea onartzeko deia saihestu egin du Espainiako Gobernuak

Garrantzia kendu die ETak su-etena egiaztatzeko proposamena onartu izanari eta hainbat eragilek eginiko eskaerari

Bilduren arabera, egiaztatzea «urrats erabakigarria» da konponbide prozesuan

Erredakzioa

Espainiako Gobernuak ez du adierazpenik egin Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari buruz, ETaren su-etena egiaztatzeko bere burua eskaini duen batzordeari buruz, eta saihestu egin du hura onartzeko hainbat eragilek eta bereziki ETak eginiko deia. PSOEek eta PPK garrantzia kendu diote ETak batzordeari lagunduko diola iragarri izanari, eta EAJk «zalantzak» agertu ditu. Bilduk, berriz, konponbide prozesuan «urrats erabakigarria» dela nabarmendu du, eta Espainiako Gobernuari dei egin dio «bake bidean» pausoak emateko.

Gaur astebete aurkeztu zuten euren burua Egiaztatze Batzordeko kideek, eta larunbatean ETak ontzat jo zuen batzordearen sorrera, BERRIARI bidalitako agiri batean. Gainera, haren zereginean «laguntzeko konpromisoa» hartu zuen, eta Espainiako eta

Frantziako gobernuari dei egin zuten Egiaztatze Batzordea onartzeko.

ETaren erabakiaren berri gertaera ugariz jositako aste batean eman dute. Joan den asteko igandean, EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboak bat egin zuen Gernikako Akordioarekin; asteartean, Nazioarteko Egiaztatze Batzordea aurkeztu zen; ostegunean, Patxi Lopez euskal presoek «gerturatze progresiboaren» alde azaldu zen Eusko Legebiltzarrean eginiko politika orokorreko saioan; eta larunbatean, Ekinek desegin egingo dela jakinarazi zuen, Gara egunkarian argitaratutako elkarrizketa batean.

Ia eragile guztiek txalotu dituzte EPPKren eta Ekinen erabakiak, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritza barne, eta nabarmendu dute konponbide prozesuan «urrats garrantzitsuak» direla. ETaren erabakiak ere ekarri du erreakzio soka luzea, baina

PSOEek, PPK eta EAJk garrantzia kendu nahi izan diote.

Sozialisten aldetik, Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakari eta PSE-EEko idazkari nagusia mintzatu da bereziki. ETaren agiriak «berrikuntzarik ez» dakarrela eta erakunde armatuaren aldetik espero duen «adierazpen bakarra» amaierarena dela adierazi zuen larunbatean, agiriaren berri jaso zuenean, Madrilen.

El País egunkariak argitaratuta elkarrizketa batean, berriz, Lopezek azaroaren 20ko hauteskundeentzako testuinguruan kokatu ditu joan den asteko gertakariak. «Kasualitate bat direla esan dut. Baina egia da, halaber, beste batzuetan ikusi dugula ETak komunikazio estrategia bat duela. Ez dugu maiatzeko hauteskundeetan

Bildurekin egin genuen huts bera egin behar: mundu guztia haiei buruz hitz egitea, haiek beren lekutik mugitu gabe merezi ez duten babes soziala jasotzen duten bitartean», adierazi du buruzagi sozialistak.

Rodolfo Aresek, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuak, antzeko hitzak izan ditu. Haren ustez, «abertzale erradikalak» egiten ari diren «antzezpen kanpainan» sartzen da ETaren erabakia, eta adierazi du Nazioarteko Egiaztatze Batzordea «abertzale erradikalen eta ETaren arteko bat ez etortzeak» konponitzeko sortu dela. «Lan hori egin nahi badute, egin dezatela; baina demokrazian poliziek egiten dituzte egiaztatzeak», adierazi du.

Antonio Basagoiti EAeko

Caamaño dio Gobernuak prest dagoela Lopezen proposamena aztertzeko

➔ Espainiako Gobernuak prest dago euskal presoak «era progresiboan» gerturatze proposamena aztertzeko, Francisco Caamaño Justizia ministroak adierazi duenez. Caamañoen arabera, proposamen hori egungo «legedia aintzat hartuz» eta «ETA amaitzeko helburuarekin» aztertu behar da. Juan Kalparso-ro Araba, Bizkai eta Gipuzkoako fiskal nagusiak, berriz, ETako kideei eskatu die «ausartak izateko» eta erakunde armatuaren desgitearen berri emateko. «ETak emandako pausoa aitortzen jakingo du Justiziak», adierazi du urte judicialaren hasiera ekitaldian.

PPko presidentek ere zilegitasuna kendu dio egiaztatze batzordeari, eta Espainiako Gobernuak ez duela bere lana zertan aitortu behar gaineratu du. «Hemen ez da ezer egiaztatzen behar», nabarmendu du.

EAJren «zalantzak»

Iñigo Urkullu EAJren EBBko presidentek larunbatean bertan egin zuen lehen balorazioa, eta ETaren erabakia urrats «baikorra» dela aitortu zuen arren, bere zalantzak agertu zituen. «Espero dut hau guztia ez izatea ezker abertzalearen aldeko hauteskunde kanpainaren parte», adierazi zuen, eta gaineratu ETaren erabakiak ez duela «ezertarako balio» izango datozen asteetan erakunde armatuak ez badu «baldintzarik gabeko eta behin betiko amaiera» iragartzen.

Antzera mintzatu da Josu Erkoreka diputatu jeltzalea. Radio Euskadin eginiko elkarrizketa batean, Erkorekak garrantzia kendu die Ekinen eta ETaren erabakiei. «Ez dira puztu behar, ez direlako indarkeriaren behin betiko amaieraren iragarpena», adierazi du. «Prozesua alde bakarrekoa bada, hala izaten jarraitu behar du, amaierara iritsi arte», esan du diputatu jeltzaleak, eta nabarmendu du Espainiako Gobernuak ez duela su-etena egiaztatzeko batzorde baten beharrik.

Halaber, urrats horiek guztiak Amaiur koalizioak datozen «hauteskunde bideari buruzko kanpainan diseinatutako urratsak» direla adierazi du Erkorekak. «Hemen badago asmo bat indarkeriaren amaieraz baliatzeko eta hauteskundeetan etekinak lortzeko», esan du.

Oso bestelako ikuspuntua dute Bildu kolazioa osatzen duten indar politikoei. Komunikabideetara bidalitako ohar batean ETaren erabakia «urrats erabakigarria» dela nabarmendu dute, eta Espainiako Gobernuari eskatu diote «bloke estrategia» amaitzeko. «Aukera historiko honen aurrean, Bilduk Espainiako Gobernuari dei egiten dio bake justua eta behin betikoa lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko».

Koalizioak dio azken urtean erakunde armatuak «urrats egiaztagarriak» egin dituela konponbide prozesuaren baitan. Besteak beste, aipatu ditu urtarriean iragarritako alde bakarreko su-etena egiaztagarri eta iraunkorra, *iraultza zerga* deiturikoa amaiera eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordea onartu izana.

Lokarrik, berriz, Espainiako Gobernuari dei egin dio Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin kolaboratzeko. Lokarriren ustez, «beharrezkoa» da egiaztatze prozesu bat abian jartzea, «indarkeriaren amaiera iragarriko adierazpena» eramango duelako horrek.

Elkartu, «herri gisa» aritu, eta bestelako garai batera iristeko zubi lana egiteko asmoa azaldu du Amaiurrek, igandean Iruñeko Baluartean koalizioa aurkezteko egindako ekitaldian.

Zume lotura, aro berrirako zubia egiteko

Aitziber Laskibar

Zubia hartu du irudi nagusitzat Amaiurrek, hau da, ezker abertzaleak, EAk, Aralarrek eta Alternatibak Espainiako Gortetarako hauteskunderi begira osatutako koalizioak. Bestelako garai batera igarotzeko zubi irudikatu nahi dute. Gatazka gainditzeko bideari lotuko zaion zubia, sustatzaileen hitzetan, eta burujabetza iparroratz izango duena. Hain zuzen, aldarririk hartu dute lan nagusitzat: Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea Madrilen bertan aldarrikatzea. Eta hori «dur arrotz batean» egingo duela ohar-tarazi du sustatzaileetako batek, Pello Urizar EAren idazkari nagusiak. «Euskal Herriaren nazio eskubideak ukatzen dituen erdigunera bertara» eramango dutela «independentismoaren ahotsa», hain jasoko dituzten erantzun eta «kritikak» direnak direlakoak izanda ere. Autodeterminazio eskubidearen inguruko eztabaida agenda politikoaren erdigunean ezarri nahi du koalizioak.


Zubia bestelako eredu politiko, sozial eta ekonomikoari begira ere egingo dutela agindu dute.

«Gezurra da ez dagoela alternatibarik egungo ereduaren aurrean; gezurra da aurrera egiteko bide posible bakarra hezkuntzan, osasungintzan edo kulturaren murrizketak egitean oinarritutakoa dela; gezurra da garapenak natur baliabideak suntsitzea eskatzen duela; eta gezurra da eskubide zibil eta politikoaren urraketa bake-rako bidea dela», adierazi du Amaia Agirresarobe Alternatibako kideak.

Bestelako etorkizun hobea batera eramango duen zubia egin nahi dute, beraz. Eta hori elkarriketa eta akordioa oinarri hartuta egin nahi dute. Gatazka gainditzeari begira, esaterako, Gernikako Akordioa bide orritzat hartu, haren balioaz ohar-tarazi, eta horren inguruan indarrak bilduta jardungo dute.

Adostasuna, indar metaketa
Amaiur osatzeko moduak berak erakusten du koalizioaren esentzia: adostasuna eta indar metaketa. Eta luzea izan da Amaiur osatu arteko bidea. Urteetan isilean egindako lan, elkarriketa eta akordioaren emaitza da igandean Iruñeko Baluartean publikoki aurkeztu zuten eskaintza.

Hainbat hausnarketa luzeren



Amaiurrek koalizioa aurkezteko igandean Iruñeko Baluartean egindako aurkezpen ekitaldia. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

ondoren, egoera politikoa iraultzea ezinbestekoa zela eta horretarako bidea elkarlana zela ondorioztatu, eta ezker abertzaleak eta Eusko Alkartasunak egin zuten elkarlanerako lehen ituna: Lortu Arte akordioa, 2010eko ekainean Bilboko Euskalduna jauregian sinatutakoa. Aurtengo urtarrilean, beste akordio bat adostu zuten bi alderdi horiek eta Alternatibak: Euskal Herria Ezkeretik.

Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetan, koalizioan gauzatu zen elkarlana: Bildu osatu, eta elkarrekin aurkeztu ziren bozetara. Orduko hartan, ezezkoe eman zion elkarlan hari Aralarrek. Bozetara bere kabuz aurkeztu, eta kolpe handia jaso zuten hark; Bilduk, berriz, emaitza historikoak eskuratu zituen.

Espainiako Gortetarako hauteskunderi begira, «herri gisa» aritzeko deia egin zuten, beste behin, ezker abertzaleak, EAk eta Alternatibak. Aralarrek barne

hausnarketa egin, eta baiezkoa eman dio orain proposamenari, EAk ez bezala. Elkarlanerako proposamenari ezezkoe eman zion alderdi jeltzaleak, eta, gainera, gogor kritikatu zuen autodeterminazio eskubidearen alde egitea lehentasuntzat jarri izana.

Ezker Batuak ere ezezkoe eman zion gonbitari. Baina EBko Erabaki ildoak, erabakiarekin ados ez-eta, Amaiurrera batzeko deia egin du. Jesus Uzkudun CC00ko kidea buru duen korrontearen ustez, ezkerreko indarrak batzeko unea da, eta, hortaz, Amaiurren aldeko botoa eskatuko duela iragarri zuten larunbatean, EBko kritikoei alderditik bereizi egingo direla iragarri zuten biltzar berean.

Beraz, koalizioa jendaurrean aurkeztu aurretik ere, hautsak harrotu ditu elkarketak, sustatzaileen hitzetan agerikoa baita potentzialitate handia izango duela bai bozei, bai eraginkortasunari begira.

Horren ondorio da, Txelui Moreno ezker abertzaleko kidearen eta Patxi Zabaleta Aralarrekoaren ustez, UPN eta PP hauteskunderi begira bildu izana. Azken urteetan elkar muturka aritu diren eskuineko bi alderdiak elkarrekin joango dira Espainiako Gortetarako bozetara Nafarroan, Amaiurrek lor dezakeen indarrak jakitun.

Nafarroaren erroetara

Nafarroako hiriburua aukeratu zuten lehen agerpen publikoa egiteko lekutzat koalizioak, eta ez da kasualitatea. Hautatutako izenak ere karga sinboliko handia du: Amaiur, duela ia bostehun urte Gaztelak konkistatu, eta Nafarroako Estatuaren galera ekarri zuten azken borrokaren kokalekua. «XVI. mendean galdu genuen subiranotasuna, baina XXI. ean berreskuratuko dugu», adierazi zuten Joseba Asiron historialariak koalizioa aurkezteko ekitaldian.

Sanzek «desegokitzen» jo du UPNk PPrekin hitzartutako ituna

‘Diario de Navarra’-ri emandako elkarrizketan ez du argitu nahi izan nori emango dion botoa hauteskundeetan

Joxerra Senar Iruñea

Ostegunean UPNko goi kargudunak pozarren ageri ziren komunikabideen aurrean, PPrekin hauteskunderi begira akordioa izenpetu eta gero. Atzo, berriz, *Diario de Navarra* egunkariari eskainitako elkarrizketan, Miguel Sanz

Nafarroako lehendakari ohiak gogor kritikatu zuen hitzarmen politiko horren egokitasuna. «Nire ustez, berez jada zailtasunak dituen koalizioa gobernuarentzat oztopo bat gehiago da», azaldu zuen.

Hiru hilabete iragan dira presidentetza utzi zuenez geroztik, eta Yolanda Barcinak presidente ohiaren adierazpen horien ondorioei egin beharko die aurre. UPNren kontseilu politikoak gehien-go handiz (%92) PPrekin hitzarmena egitearen alde bozkatu arren, Sanzek aitortu du kontseiluan alde bozkatu zutenetako askok egun batzuk lehenago kontra

zeudela aitortu ziotela. Horregatik, alderdiko hainbat militanten jarrera horrek atsekabetu egin duela onartu du.

Gainera, elkarrizketan adierazi du Barcinarekiko harremana okertu egiten dela. Esan du hasieratik alderdiaren zuzendaritzan laguntza emateko prest azaldu bazen ere inork ez duela bereganatu aholku eske, eta, horregatik, minduta azaldu da. Hauteskundeetan nori bozkatu dion galdetuta, ez du esan nori emango dion botoa. Goğora ekarri du PPK Barcinan Nafarroako lehendakari izatearen aurka bozkatu zuela.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

IRAGARKIA

2011ko urriaren 3an **Etxebideko** Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskarien **altak, bajak, artxibatzeak, ukoak, zuzentzeak eta izapideak betetzea** jakinarazi dira lurralde ordezkariekin ebazpenen bidez. Ebazpen horiek Lurralde Ordezkarizetako iragarki tauletan argitaratu dira.

Argitaratzeko lekua:

- ZUZENEAN Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak.
- Arabako: Ramiro de Maeztu 10. Vitoria-Gasteiz.
- Bizkaian: Gran Vía 85. Bilbo.
- Gipuzkoan: Andia 13. Donostia-San Sebastián.

Ordutegia:

- Asteleheneetik ostiralera 8:00etatik 20:00ak bitartean.

Errekurtsoak aurkezteko epea: 2011/11/03a arte.

Eskatutako agiriak aurkezteko epea: 2011/10/20a arte.

www.etxebide.euskadi.net

Iñaki Arriola López
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailburua



Ginea presoaren bi lagunek auto istripua izan dute espetxetik bueltan

Etixerat-ek salatu duenez, sakabanaketak aurten eragin duen hamargarren istripua izan da

Erredakzioa

Espetxera bidean, beste auto istripu bat izan da. Josu Ginea euskal presoaren Larrabetzuko (Bizkaia) bi lagunek auto istripua izan zuten joan den asteburuan, Estremerako espetxetik Euskal Herrira bueltan zetozela. Etixerat-ek salatu duenez, sakabanaketa politikak aurten eragin duen hamargarren istripua izan da hori.

Euskal errepresaliatu politikoen senide eta lagunak elkartearen arabera, Honrubia herrian (Espainia) gertatu zen ezbeharrak, autoarekin bide bazterra jota. Kolpea handia izan bazen ere, Ginearen bi lagunak onik daudela jakinarazi du Etixerat-ek.

Joan den urtean, 11 istripu izan ziren espetxerako joan-etorrietan. Sakabanaketa politika hasi zutenetik, berriz, 400 izan dira.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek bide baketsuekiko konpromisoa agertu dute

Bilduk ez du babestu ETaren biktimen aldeko ekimena, eta EAJ eta Aralar abstenitu egin dira bozketan

Erredakzioa Donostia

Gipuzkoako Batzar Nagusiek indarkeriarik ezarekiko eta bide baketsu eta demokratikoezko konpromisoa agertu zuten atzo, aho batez. PSE-EEren ekimenez hiru puntuko proposamena eztabaiatu zuten Giza Eskubide eta Memoria Historikoaren Batzordean, baina mozioaren lehen puntuak baino ez zuten aurrera egin. Hain justu ere, ETak hildako Juan Mari Jauregiren eta Fernando Mugikaren omenezko oroitarrien aurka uda partean egindako erasoak gaitzetsi, eta indarkeriarik ezaren aldeko jarrera agertzeko puntua onartu zuten Batzar Nagusiek, Bildu, EAJ, Aralar, PP eta PSE-EEren aldeko botoekin.

Jauregi eta Mugikaren oroigarrien aurkako erasoak arbuiatu,

eta «terrorismoaren biktimei» babesa emate aldera, hiru puntuko mozioa aurkeztu zuen PSE-EEk eztabaidarako. Ekimenaren lehen puntuak bide baketsuen alde egiten zuten, eta beste biek ETaren biktimei babesa eta errespetua agertzen zieten. Zehazki, horien bidez Gipuzkoako Aldundiari eskatzen zioten, terrorismoaren biktimen aitortzarako legea aintzat harturik, ETaren biktimen eskubideei errespetua agertzeko, horien memoria kontuan hartzeko eta haiekiko «umiliazio publikoa» saihesteko.

Puntu horretan, ordea, ez ziren ados jarri taldeak, eta, ondorioz, ez zuten aurrera egin: Bilduk kontra bozkatu zuen, Aralar eta EAJ abstenitu egin ziren, eta alde bozkatu zuten PSE-EEk eta PPK.

Ekimen «partziala»

Bilduk eta Aralarrek kritikatu zuten ekimena «partziala» zela, biktimen arteko mailaketa egiten zuelako; hala, alde guztietako biktimak aintzat hartzeko eskatu zuten bi talde horiek. «PSE-EEren ekimena ez dator bat Euskal He-

rriko egoera berriarekin», adierazi zuen Bilduko Begoña Vesgak. «Mota guztietako sufrimenduek merezi dute aitortzea», esan zuen Rebeka Ubera Aralarreko batzar-kideak.

EAJko Markel Olanok, berriz, bide baketsuen alde lortutako akordioaren garrantzia azpimarratu zuen. «Oso garrantzitsua da indarkeria ororen gaitzespenean eta bide politiko eta demokratikoen aldeko apustuan alderdi guztiak ados jartzea», azaldu zuen. Indarkeriarik ezaren aldeko konpromisoa aho batez babestu izana, gainera, «lan egiteko abiapuntu ona» dela esan zuen Olanok.

PSE-EEko Rafaela Romerok txalotu egin zuen bide baketsuen aldeko adostasuna, baina ETaren biktimen memoria «lurperatu» nahi izatea leporatu zien PP ez gainerako taldeei. PPKo Juan Carlos Canok, berriz, adierazi zuen «politikoki» sufrimendu guztiak ezin direla maila berean jarri: «Espainian eta Europan dagoen talde terrorista bakarra da ETA, eta ez dugu onartuko hori estaltzea».

→ Laburrak

Arotzarena zendu da, Hazparneko auzapezordea

HAZPARNE > Patxi Arotzarena Hazparneko (Lapurdi) auzapezordea zendu zen atzo, 43 urte zituela. Herriko San Josepe lizeoan lan egiten zuen, eta bertan atzeman zuten hilik atzo goizean. Nahiz medikuak berehala joan, beranduegi izan zen. Badu orain hiru urte Kultura, Animazioa eta Euskara saileko auzapezordea izendatu zutela. Kultura munduan ezaguna zen, besteak beste, Txakun taldeko kide gisa.

Euskal Herriaz bereiz egon nahi dute tarnosetarrek

TARNOSE > Tarnose (Landak) hiria eta Seignanx herri elkargoa Euskal Kosta-Aturri hiri elkargolari juntatzearen aurka agertu dira tarnosetarrek. Herenegun ziren galdezkatuak, eta 9.000 boz-emailetarik kasik %30ek zuten herri kontsultan parte hartu. %57,90 aurka agertu ziren. Frantziako Gobernuak abiatutako lurralde berrantolaketa dela eta, Landen zati hori Euskal Herriari lotu nahi luke Jean Grenet Baionako auzapez eta Euskal Kosta-Aturri hiri elkargoko lehendakariak.

MILAKA ETA MILAKA ESKER!!

KILOMETROAK 2011 AZPEITIA EUSKAL HERRIA



klik!



ikastolenelkartea

AZPEITIKO
IKASTOLA
IKASBERRI

ZOZKETETAN
SARITUTAKO
ZENBAKIAK:

KOTXE ZOZKETA

SARITUA: 49.981
1. ordezkoa: 45.333

SARRERETAKO BOLETOA

1. saria
KANARI-etako BIDAIA
SARITUA: 1.315
1. ordezkoa: 13.544
2. ordezkoa: 12.295

2. saria
ASTURIAS-en EGONALDIA
SARITUA: 3.584
1. ordezkoa: 3.555
2. ordezkoa: 1.144

Udazkenerako azal **berria**

Epeletik ibiltzeko arropa eskaintza

Haurrentzako jertsea: **25 €**



KOLOREAK:
Morea • Berdea

NEURRIAK:
3-4/5-6/7-9/9-11



Txaketa: **52,5 €**

Ezaugarriak:

- Soft Shell
Haizearen, elurraren, euriaren eta hotzaren aurkako %100eko babesa
- Txapela (ken daitekeena)
- Hiru poltsiko (bat barrualdean, bularraldean)

Gizon eta emakumeen modelook

Neurriak: • **Gizonak:** S-M-L-XL-XXL

• **Emakumeak:** XS-S-M-L-XL

Noiz eta nola egin eskaria?

Urriak 31 bitarte duzu aukera eskaera egiteko

- TELEFONOZ: 943-30 43 45
- WEBGUNEAN: www.berria.info
- POSTAZ: denda@berria.info

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz

berria info



Urgell eta Zela sailburuak Eusko Legebiltzarreko agerraldi batean, artxiboko irudi batean. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Euskaratik salbuesteko dekretuan «zuhur» jokatu dutela dio Zelaak

Ikasgaien erdiak baino gehiago euskaraz ikasi dituzten DBHko eta Batxilergoko ikasleak ezagutza B1 eta B2 mailekin parekatuko du

Eusko Jaurlaritzak agerian laga du dekretua urtea amaitu aurretik onartzeko asmoa

Jon Rejado Gasteiz

Euskaraz ikasi duten ikasleak hizkuntza horren ezagutza bermatzeko agiriak aurkezteaz salbuestiko dituen dekretuari forma ematean, «zuhurtziaz» jokatu dutela azaldu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Isabel Ze-

laak. Hain zuzen ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleak guztiek dekretuaren zirriborroan zehaztutako gutxieneko mugak gainditzen dituztela nabarmendu du. Are gehiago, dekretuaren helburuak ezbaian jartzea EAEko hezkuntza sistemaren kalitatea ezbaian jartzea litzatekeela gai-

neratu zuen atzo Zelaak. Blanca Urgell Kultura sailburuarekin batera Eusko Legebiltzarrean agerraldia egin zuen dekretuaren zirriborroaren aurkezpena egiteko. Urtea bukatu aurretik onartu nahi dute.

Ikastorduen erdian jarri du Eusko Jaurlaritzak euskararen ezagutza egiaztatzeaz salbuestita egongo diren muga. Hau da, DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastorduen erdiak euskaraz ikasten dituztenak B1 hizkuntza eskakizuna aurkeztetik salbuestita egongo dira, eta Batxilergoko ikastorduen erdiak euskaraz ikasten dituztenak, berriro, B2 maila aurkeztetik. Horre-

tarako Euskara eta Euskal Literatura ikasgaia ere gainditua izan beharko dute. Neurri horrek Eusko Jaurlaritzaren, EAEko hiru aldundien eta bertako udalen lan eskaintza publikoetan eragina izango du.

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak 2004. eta 2006. urteetan egindako zenbait ikerketak Hezkuntza eta Kultura Sailaren erabakia bermatzen dutela uste du Zelaak. Ikerketa horien arabera, ikasle gehienek Lehen Hezkuntzako 6. mailan B1 maila gainditzeko moduko ezagutza izaten dute, eta DBH bukaeran B2ra heltzen dira. Hala ere, Jaurlaritzak DBH bukaeran B1 maila aitortuko duela gogorarazi du Hezkuntza sailburuak, eta Batxilergoan B2 maila; horregatik dio «zuhur» jokatzeko ari direla.

C1 eta C2 mailatik salbuesteko irizpideak ezberdinak izango dira, dekretuaren zirriborroaren arabera. EGaren baliokidea den maila aitortzeko (C1) lau kasu aintzat hartuko ditu Jaurlaritzak. Euskaraz ikasitako kredituak, euskara ikasteko kreditu bereziak eta gradu bukaerako lana egin eta aurkezteko aukeraturako hizkuntza kontuan hartzen dira kasu horietan. Euskaraz emandako 48 kreditu, euskara ikasteko 12 kreditu berezi eta lanaren aurkezpena euskaraz egin beharko dira C1 mailatik salbuestita egoteko; gainerakoan, euskarazko 144 kreditu gainditu beharko dira.

C2 mailatik doktore tesia euskaraz egin eta defendatu duten doktoreak egongo dira salbuestita, baita Euskal Ikasketen gradua edo Itzulpen gintza gradua lortzen duten ikasleak ere. Azken kasu horretan lehen hizkuntza gisara euskara aukeratu dutenak soilik egongo dira salbuestita.

Dekretuaren zirriborroak atzera begirako eragina izango duela aurreratu du Zelaak. 2008ko apirilaren 16tik aurrera lortutako titulu guztiengan eragina izango du, egun horretan homologatu baitzuten Eusko Jaurlaritzak ematen zituen tituluak Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria-tura.

Ikasketen truke tituluak eman beharrean ikasleak titulu horiek aurkezteaz salbuesti nahi ditu Jaurlaritzak. Tituluak ematea baino bide egokiagoa dela uste du Urgellek: «Normalizatzaileagoa». Eredu horrek hezkuntza guztiz homologagarria dela frogatzen duela pentsatzen du.

Deredua lehenestearen alde

Eusko Legebiltzarreko talde guztiak bat datoz dekretu zirriborroaren funtsarekin, baina zenbait hainbat aldaketa egiteko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. DBHko titulua D ereduan lortu dutenei mugatzeko eskatu du, esaterako, Mikel Basabe Aralarreko legebiltzarkideak. Euskararen ezagutza bermatzen duen eredu bakarra dela nabarmendu

↓ Baliokidetasunak

Lehen bi mailetan, ikasleek, ezarritako euskarazko ikastorduek betetzeaz gain, Euskara eta Euskal Literatura ikasgaia gainditua izan behar dute. C2 maila euskaraz doktore tesia egin dutenei ez ezik, emango zaie hainbat titulu dituztenei ere. Dekretuaren oinarriak:

B1

■ **DBHren erdia euskaraz ikasi dutenentzat.** Garai bateko 1. Hizkuntza Eskakizunaren baliokidea da. Euskarazko testu argietako ideia nagusiak ulertzeko gaitasuna dute B1 dutenek; oinarriko gaitasuna dute ahozko komunikazioan eta idaztean.

B2

■ **Batxilergoaren erdia euskaraz ikasi dutenentzat.** 2. Hizkuntza Eskakizunaren baliokidea da. Testu zehatz edo abstraktuen ideia nagusiak ulertzen dituzte maila honetan, solasaldietan erraz molda daitezke, eta gai askori buruz idazki argi eta zehatzak egin ditzakete.

C1

■ **Unibertsitate ikasketak euskaraz egiten dituztenentzat.** EGaren baliokidea da. Nolabaiteko zailtasuna duten testu luze mota asko uler ditzakete C1 lortu dutenek, esanahi inplizituak barne.

C2

■ **Doktore tesia euskaraz egin dutenak.** Entzun eta irakurtzen den ia guztia ulertzeko gaitasuna eskatzen du C2k. Erraz komunikatu daitezke ahoz eta idatziz, zehaztasun handiarekin eta era ondo egituratuan.

du. Juanjo Agirrezabala EAEko legebiltzarkideak, berriro, dekretuaren edukia zehazterakoan erabilitako irizpideen berri emateko eskaera egin dio Eusko Jaurlaritzari. Hain justu, Agirrezabalak gogorarazi du zenbait ikerketaren arabera curriculumaren %60 baino gehiago hizkuntza bakar batean ematean lortzen direla emaitzarik onenak ikasleentzat.

Curriculumaren erdia euskaraz ematearen mugari buruzko kezka ere agerian utzi du Arantza Aurrekoetxea EAJko legebiltzarkideak. Horrez gain, dekretuaren funtsarekin bat etorri arren, erabakiak hartzerakoan erabilitako agiri eta ikerketen berri emateko eskaera egin dio Zelaari.

Ikasleak gehitzeari erantzuteko adina irakasle ez hartzea egotzi diote Zelaari

Gehiengo sindikalak dio 350 irakasle hartu behar zituela Jaurlaritzak, 5.000 gehiago direlako sare publikoko ikasleak

Garikoitz Goikoetxea

Ikasleen kopurua areagotzeak ez du izan behar adinako isla irakasleen kontratazioetan. Salaketa hori egin dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntzan gehiengo duten sindikatuek. Egin dituzten kalkuluen arabera, 350 maisu-maistra gehiago hartu behar zituen Eusko Jaurlaritzak sare publikoan, aurreko urtean baino 5.000 ikasle gehiago ari baitira aurten. Salatu dute ez dela halakorik gertatu: «Ez ditugu inon ikusi baliabide horiek», dio EILASeko ordezkari Inaki Izagirrek. Sindikatuek ez dute jaso lan taldea handitzeari buruzko berri; hainbat hedabidetan zabaldu dute 200 bat hartu dituela. Hala izatekotan ere eskasa da kopuru hori, sindikatu nagusien ustez.

Eusko Legebiltzarrean agerraldia zuten atzo EILASeko, LABeko eta ELAko ordezkariak; haiekin batera, han izan ziren ikastetxeetako zuzendarien elkartetako kideak ere. Eskoletan duten egoeraren berri plazaratu zuten. Isabel Zela sailburuaren jarrera salatu zuten, hark dienez bestera murrizketak egiten ari direlakoan. Izagirre: «Murrizketaz ari garenean ez gara ari eskola orduak gehitzeaz edo. Guk dioguna da ez dagoela behar adina baliabide ikasleen kopuruari aurre egiteko eta haiek *doitze* eta *optimizazio* esaten dietenak ari direla egiten».

Ikasgeletan zuzeneko eragina du horrek, Izagirren esanetan. Irakasle gutxiago dago ikasle bakoitzeko. «Matrikulen kopurua handitu egin da ikastetxe gehienetan, eta gelak betetzen ari dira. Ezin dugu esan orokorra denik, baina zenbait ikastetxetan gaintzen ari dira gehienezko mugak». Legean ageri dira; Haur Hezkuntzan, kasu, 23 ikasle egon daitezke —2 urte baino gutxiago koen geletan, gutxiago—, eta Lehen Hezkuntzan, 25. «Muga horiek gaintitzean, bikoiztu egin behar da taldea; kasu batzuetan, ordea, ez dute egin, aitzakiak erabiliz». Zirrikitu bat bada horretarako: epez kanpoko matrikulak badira, %10 gaintze daiteke muga.

Azken urteetako kexa legebiltzarrean eraman dute berriro sindikatuek: lan taldeari buruz ez diela informazio osatua ematen Jaurlaritzak. «Ikastetxeei bakoitzari buruzko informazio osatua helarazten diete; sindikatuari, zati bat, eta, osoa eskatuta, erantzun ere ez», dio Izagirrek. Berriro egin diote eskea Zelaaren sailari.

Egoera, norekin alderatu

Ikasturte hasieran behin eta berri esan du sailburuak: ez da murrizketarik izan hezkuntza publikoan. Datorren urterako hasia da bestelako egoerak irudikatzen. Harekin ituna egin duten sindikatuek, UGTk eta CCOOk, berretsi egin dute Jaurlaritzak diena. «Euskadi uharte baikor bat da», esan dute. Norekin konparatzen den. Hala dio EILASeko ordezkariak: «Okerrago daudenekin alderatuz gero, izango da irla. Kontua da hemen dauzkagun kalitatea eta baldintzak ez direla lortu okerrago daudenei begira egonda».

Zelaak Espainiako erkidegoetakoekin alderatu du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza publikoaren egoera, hobe dela defendatzeko. Iruzur egitea da hori, Izagirren ustez: «Ez du balio diskurtsoan eta asmoetan iparraldeko herrialdeetara begiratzea eta baliabideetan hegoaldera, Espainiara so egoteak».

Salatu dute lanpostuak kentzen eta kargudunak gehitzen ari dela NUP

➔ Elkarretaratzea dute gaur NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoan, lanpostuak kentzen eta goi karguak gehitzen ari direla salatzeko. Ordezkaritza duten sindikatu guztiek elkar hartuta egin dute deia. Haien arabera, postuak gutxitzen ari da unibertsitatea; bulegarien artean egin dute hori, eta, ondorioz, arratsaldean hamar langiletik lau ez dira ari lanean. Aldi berean auzi ekonomikoetarako bulegoa sortzea salatu dute; sindikatuen ustez, lehen ere bada kontu horiei buruz arduratzeko bulego bat. «Arazo ekonomikoak aitzakiatzat jarrita zerbitzua kaskartzen ari dira, eta zuzendaritza gehiago jartzen». Gaur hartuko du erabakia NUPeko gobernu kontseiluak.



Murrizketen aurka gehiengo sindikalak egindako protesta, iragan maiatzean. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

abere azoka

AGURAINen



Urriak 4, Asteartea 2011

616. urtea

Goizeko 11tan

- «Euskal Heriko Mendiko Zaldia» arrazako Euskadiko zaldiazindaren IV. Lehiaketa morfologikoa.
- Arabako XXV. Artzain-Gazta lehiaketa.
- Txaroles azindaren VII. Lehiaketa-erakustaldia, Euskal federazioak antolatuta.
- Behi eta ardi-azindaren erakustaldia.
- Nekazal makineriaren erakustaldia.
- Euskal Herriko artisautza, gastronomia eta produktuen erakustaldia eta salmenta.

Antolatzailea

Laguntzaileak



«Kolapsora» doan gizarte eredutzat jotzen dute gaur egungoa, eta auzolanean oinarritutako beste eredu bat amesten dute. Usurbilen egin dute asteburua, auzolanaz hausnartzen.

Bakarka ezin da

Mikel Peruarena

Auzolanean bai, posible da gizarte aldatzea, arazo zaharrei konponbide berriak aurkitzea. Edo hori uste dute, behintzat, asteburu honetan Usurbilen (Gipuzkoa) elkartu direnek, I. Auzolan Topaketetan. «Auzolana ez da zer bait materiala. Gure herriak belaunaldiz belaunaldi jaso duen kontzientzia bat da», azaldu du Gorka Pinillosek. Katalunian kooperatiba integralak bultzatzen dihardu Pinillosek, eta haien berri eman du Usurbilen. Seguru dago elkartasunak eta «kontzientzia kolektiboak» duten indarrean: «Batzarrean ere gauza bera gertatzen da: jendea elkartzen da arazoei konponbideak emateko».

Arazaok konpontzeko premiak elkartu ditu Usurbilen, beraz. Bazeramaten urte bat baino gehiago biltzen, auzolanak eta batzarrek duten balioaz gogoeta egiten, proiektu autogestionatuez hizketan... Hausnarketa zabaldu dute topaketekin, eta pozik daude emaitzarekin. Jasone Mitxeloren antolatzaileak azaldu du «aho zapore zinez ezitia» gelditu zaiela antolatzaileei. Euskal Herriko 72 herritatik, 200 bat lagun batu dira Usurbilen, eta lanerako gogoia bizi sumatu die Mitxelorenak.

Askotariko gaiak eztabaidatu eta aztertu dituzte ostiraletik igandera bitartean: elikadura, kultura, energia, hezkuntza, euskalgintza, hacktibismoa, hondakinak, desazkundera, krisia, tokiko batzarrak... Larunbat goizean hamalau lantalde egin zituzten, hamalau gai aztertzeko. Askok jarraipena izango dute; urte bukarrera bitarte, topaketa zehatzagoak egitekotan dira.

Baina elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko zen asmo nagusia, eta antolatzaileak oso pozik gelditu dira alde horretatik. Auzolanean edo autogestioan oinarritutako proiektu asko ja martxan daudela baina elkarri lotzeko eta beste gai batzuetan murgiltzen hasteko premia dagoela uste du Pinillosek. Horretarako aukera izan dira topaketak, hainbat proiektutan lanean ari diren pertsonak elkartu baitira: Bagara, Basherrri taldeak, Bizi! mugimendua, Bizi-Toki eskola...

«Konponbideek presa dute» Auzolana eta batzarreak. Behin eta berriro atera dira bi hitz horiek topaketetan. «Egoera politiko-soziala gero eta okerragoa da, eta prekarietatea nabarmenagoa. Konponbideek presa dute», esan du Pinillosek: «Konturatzen gara zein den egoera orokorra, eta zein



Lehendabiziko Auzolan Topaketak ostiraletik igandera egin dituzte, Usurbilen. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

den gizabanako bakoitzak bizi duen egoera, baina ikusi behar da kolektiboaren indarra alternatibak eraikitzeko».

Gizarte eredu «kolapsora» dola eta «gainbehera kaotikoa» izango duela nabarmendu dute topaketetan hitza hartu duten hainbat hizlarik, Felix Rodrigo Mora ikerlariak eta Joseba Azkarraga irakasleak, besteak beste. Krisi horri aurre egiteko elkartu beharraz aritu dira topaketetan, tokian tokiko ekimenak bultzatu beharraz, baina ikuspegi orokorrari eutsiz, eta herri ondasunak zabaldu beharra, jabetza pribatuaren gainetik.

Tailerretan parte hartzeaz gainera, hizlari ere aritu da Pinillos, Kataluniako kooperatiba integralak eta baita tokiko txanponen egitasmoak aurkezten. Biak ala biak, Euskal Herrian sortzeko proiektu «interesgarriak» direla uste du. Gehiago dena, itxaropentsu agertu da, «laster ideia berri-tzaileren bat» martxan sortuko

ote den. Kooperatiba integralen ideia da autogestioaren bidez antolatzea bizimodua: «Kooperatiben legea erabiliz, proiektu autogestionatuak bultzatzea da helburua, gizarte berri bat eraikitzeko oinarria jartzea». Kooperatiba ho-

“

Gero eta okerragoa da egoera, baina ikusi behar da kolektiboaren indarra alternatibak eraikitzeko»

GORKA PINILLOS
Auzolan ekimeneko kidea

riek «integralak» dira, pertsonen beharrez guztiak asetzen dituztelako, «autogestioaren ikuspegitik»: hezkuntza, elikadura, energia, osasuna...

Tokiko txanponen helburua, berriz, «sistema ekonomiko berri bat sortzea da, oinarritik, batzarren menpe egongo den sistema bat», Pinillosek azaldu due-

nez. Tokiko txanponak indarrean jartzeko, oinarritzat jotzen du eskualde bakoitzak berea sortzea, eta abantailak ikusten dizkie txanpon horiei: ekonomia batzarrek kontrolatuko lukete, eta tokiko ekonomiak sustatzeko baliagarri izango liriteke. «Bermatzen du eskualdean sortutako aberastasuna eskualdean gertatzea, eta ez joatea botere kontzentrazioak dauden lekuetara».

Gisa horretako ideiak eta beste asko sortu eta plazaratu dira topaketetan. Ideia berritzaileen laborategi bat izan da Usurbil. Baina ez da igandean bukatu. Usurbilen bertan egingo dute hurrengo bilera, urriaren 16an, 16:00etan. Topaketek zer jarraipen izan behar duten aztertuko dute bertan. Bitartean, Jasone Mitxelorenak berak idatzi duen eta igandean Usurbilen aurkeztu zuten *Auzolanaren kultura* liburua aurkezten jarraituko dute herriz herri. Auzolanaren kultura zabaltzen jarraitzeko.

Hiru andreri eraso egin diete Bilbon gau bakarrean

Christian Goy Baionan auzitegiko prokuradore ordezkoko izana epaituko dute gaur, adingabeak bortxatzea leporatuta

Erredakzioa Bilbo

Gau bakarrean hiru genero indarkeria kasu jazo dira Bilbon; hiru emakumeri eraso egin diete hiru gizonetarako, eta Basurtuko erietxeak artatu ditu hiru emakume zaurituak. Basurtuko Ospitalea izan da Ertzaintzari erasoetako baten berri eman diona; andre zauritua erietxean agertu zen herenegun, eraso goizaldeko ordu batean gertatu zela azalduz. Eri-

txeak ertzainei berri eman, eta haiek 31 urteko gizonetako bat atxilotu zuten.

Beste bi erasoak goizaldeko seiak aldera jazo ziren, igandean. Deustuan 39 urteko gizon bat eta Boluetan 30 urteko beste bat atxilotu zituzten ertzainek. Deustuko atxilotuari leporatu diote bikotekideari aurpegian jo izana. Boluetan atxilotutako gizonak, berriz, bikotekide ohiari eraso egin ziola azaldu du Ertzaintzak. Gizonak sexu harremanak edukitzea proposatu zion, eta emakumeak uko egin zion; orduan hasi zirela kolpeak azaldu du andreak.

Ostiral arratsaldean, berriz, 47 urteko gizonetako bat atxilotu zuten Gasteizko udaltzainek, bikotekideari jotzea leporatuta. Ema-

kumea gurgil aulkian zegoen, eta lokal publiko batean jazo zen eraso, lekukoaren arabera.

Hiru neska bortxatzea

Orain bost urte interpelatu zuten Christian Goy, Baionako Goi Instantsiako Auzitegiko prokuradore izandakoa, bost neska adingabe bortxatzea egotzita. Erasoak 1980ko hamarkadako azken urtean eta 1997 artean gertatu ziren, Bordelen (Frantzia). Gaur hasiko dute haren aurkako epaiketa, Bordeleko auzitegi kriminalean. Bost neska bortxatzea egotzi bazioten ere, hiruri eraso egiteagatik epaituko dute, iraungi egin direlako leporatzen zaizkion gertaerako batzuk. Espero dute ostiralean bukatuko dela auzia.



Astelehenean Liletako elkarretaratzeko egin zuten atzo iluntzean, Iruñean, emakumeen aurkako indarkeria amaitzeko eskatuz. ARGAZKILARIA / AGENTZIA

Urtero legez, ganadu feria egingo dute gaur Agurainen

AGURAINEN > Urriko lehen asteartea izanik, egun handia dute gaur Agurainen (Araba). Ganadu feria egingo dute. 616 urte bete ditu aurten azokak. 11:00etan hasita, abere postuak jarriko dituzte ikusgai, baita bertako produktuek ere. Bertsolariak eta artzain gazta txapelketak osatuko dute egitaraua, besteak beste.

Arabako kartzelaren izena bi eletan jartzeko eskatu dute

GASTEIZ > Orain aste batzuk inauguratutako Zaballako kartzelaren (Iruña Oka, Araba) izena bi hizkuntzatan jartzeko eskatu dio Arabako Foru Aldundiak Espainiako Espetxeen Zuzendaritzari. Javier de Andres ahaldu nagusiak eskutitz bat bidali dio Espainiako Espetxe Erakundeetako idazkari nagusi Mercedes Gallizori, hala egin dezan. Bilduk gogorarazi dio De Andre-si kartzelak ez duela Arabako gehiengo sozial eta politikoaren babesik.

EAEko basoen kudeaketa aldatzeko eskatu dute

DONOSTIA > Neiker-Tecnaliak egindako ikerketa baten arabera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako basoak kudeatzeko modua aldatuko balitz, horien lurra gai izango liriteke egun baino karbono gehiago xurgatzeko. Zehazki, oraingo karbonoaren bikoitza xurgatzera irits daitezke. Basoen lurra dira biosferako karbono biltegi handienak.

Jendea etxetik botatzeari aurre egiteko eraren bila ari da Lopez

BILBO > Hipoteka pagatu ezin dutenak etxetik ez botatzeko moduaren bila ari da Eusko Jaurlaritza, Patxi Lopez lehendakariak jakinarazi duenez. «Erakunde publikoak ezin dira besoak gurtzatuta geratu etxea utzi beharrean dauden familiak ikusita», esan du. Lopezek azaldu du eskumen gutxi dituela Jaurlaritzak eta bitartekari aritzea duela aukera. EAEko urte judizialaren hasierako ekitaldian hitz egin zuen atzo.

4,4

■ Bizkaiko hondartzetan udan izandako pertsonak milioitan. Bizkaiko Diputazioak jakinarazi duenez, %6,7 igo da udan Bizkaiko hondartzetan izan den pertsona kopurua. Guztira 4.418.826 pertsona izan dira. Jende gehien Plentziakoan bildu da.

50

■ Gasteizko alkatearekin hitzordua egin duten herritarrak. Gasteizko Udalak atzo jarri zuen abian Alkatearekin Hitzordua zerbitzua. Herritarrek alkateari aurrez aurre beren kezak, zalantzak eta proposamenak azaltzeko da zerbitzua. 50 herritarrek eman dute dagoeneko izena.

Donostiako Udalak etxe baten okupazioan izan duen jarrera defendatu du

Erredakzioa Donostia

Gazte batzuek Donostiako Gaztelubide kalean etxe bat okupatu dutela eta, eztabaida izan dute PSE-EEK eta Bilduk. Etxeari Uxotegi izena jarri diote gazteek, eta gaztetxe gisa erabiltzeko asmoa dute. PSE-EEKo zinegotzi Enrique Ramosek salatu du okupazioa izan zen egunean haiekin zegoela Jose-txo Ibazeta, Juan Karlos Izagirre alkatearen idazkaria. Hala, bitartekari lanak egitea egotzi dio udalari. Gainera, salatu du zalantzak dituela eraikinak segurtasun baldintzak betetzen dituen edo ez. Udalak esan du etxearen okupazioaren harira izandako jarrera «azkarra, gardena eta egokia» izan dela, eta une oro kontuan hartu dituztela bai gazteak eta bai etxebizitzaren jabeak.

Irudia > Bilbo



HONDARTZA, INDARKERIAREN KONTRA

Abuztuaren 30ean Espainiako armadak manobra batzuk egiteko Muskizko Arena hondartza (Bizkaia) «hartu» zuela salatuz, igandean Bilboko Gobernu Militarra hondartza bihurtu zuen Kakitzat koordinakunde antimilitaristak, indarke-

riarik gabeko nazioarteko eguna zela eta. Hala, gastu militarrean bideratutako aurrekontua urtero igotzea gaitzetsi zuten: Espainiako Gobernuarena 18.000 milioi eurokoa da, eta horietatik 1.500 Araba, Bizkai eta Gipuzkoatik jasotzen ditu. **BERRIA**

Laburrean

Hilberriak

ESKELAK

(0034)943 30 40 30
eskelak@bidera.eu



MARIA IZASKUN AZKOLAIN NAZABAL andrea

Herenegun hil zen, 78 urte zituela.
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Senarra: Juan Luis Diaz Gorostegi; semea: Ion; anai-arrebak: Maria Jesus(†) eta Jose(†), Irene(†) eta Felix(†), Sotero(†) eta Amparo, Paco(†) eta Tere, Ignacio eta Angeli, Jose Ramon eta Begoña; ezkon anai-arrebak: Ramon(†) eta Juanita, Ignacio(†) eta Josefa(†), Antonio(†) eta Juanita, Maria eta Felix(†), Rosalia(†) (lekaimea), Jesusa eta Juan Jose(†), Pedro(†), Jose(†), Margarita eta Daniel, Miguel, Juanita eta Miguel, Jose Mari; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaldeak.
Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitzela hiletara, gaur ASTEARTEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SAN FRANTZISKO parroki elizara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSA, 2011ko urriaren 4a

Helbidea: Nafarroa etorbidea, 12 - 5. A.
Oharra: Gorpu beila TOLOSako FUNERARIA VASCONGADA tanatorioan egongo da, gaur ASTEARTEA goizeko 09:15ak arte.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Kioskoa

harpidedunentzat opariak

Zozketak

PARTE HARTZEKO, deitu: IGANDETIK ASTEARTERA **943-30 43 47** edo www.berria.info/kioskoa

SARIDUNAK ostegunetan argitaratuko dira.

01 MAHALA

Bi sorta



Mahala Berri baserria • Leaburu
Tel.: 943-67 07 24

02 PASALEKU ERRETEGI ETA

ITSASKI JATETXEA

Bi lagunentzako dastatze menua



Illunbe, 11 - Amara
Donostia
Tel.: 943-46 16 65
www.pasaleku.com

03 KAIALDE JATETXEA

Bi lagunentzako menu berezia



Polentzarrene, 6 • Lezo
Tel.: 943-51 20 03
www.lezokokaialde.com

04 BOTARRI JATETXEA

Bi lagunentzako dastatze menua



Oria, 2 • Tolosa
Tel.: 943-65 49 21

05 LOIZU JATETXEA

Bi lagunentzako menu berezia



San Nikolas, 13 • Auritz
Orreaga eta Irati oihanaren ondoan.
Tel.: 948-76 00 08

06 ORUE LANDETxea


Bi lagunentzako gaua eta gosaria



Ergoena auzoa, 28 • Mutiloa
Tel.: 943-80 19 00
www.oruelandetxea.com

07 SORGINEN MUSEOA

Bost lagunentzako bina sarrera



Zugarramurdi

08 NAFARROA OINEZ 2011


Hamar sorta



www.nafarroaoinez.net

09 ARTEZ

Irakasle agenda
Bost agenda



10 ARTEZ

Ikasle agenda
Hamar agenda



11 ARTEZ

Lizeo agenda
Hamar agenda



12 ARTEZ

Haurtzaindegi agenda
Hamar agenda



k 2=1 kupoiak

MOZTU eta erabili zure **harpidedun txartelarekin batera***

* Harpidedun bakoitzak, asteko kupoi bat bakarra aurkez dezake.

AISIA ORIO
HOTEL TALASOTERAPIA ***
Hondartza bidea, 1
Orio
Tel.: 943-89 44 40
www.aisiahoteles.com

SASOIAN JARTZEKO ZIRKUITUA
2=1 kupoa

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

Batek ordaindu, eta bigarrenak doan!

ARGITARATZE EGUNA: 2011-10-02
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

AISIA ORDUÑA
HOTEL BAINUETXEA ****
Foru plaza, 15
Urduña
Tel.: 945-38 45 50
www.aisiahoteles.com

SASOIAN JARTZEKO ZIRKUITUA
2=1 kupoa

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

Batek ordaindu, eta bigarrenak doan!

ARGITARATZE EGUNA: 2011-10-02
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
Mikeltegi pasealekua, 43
Donostia
Tel.: 943-01 24 78
www.miramion.org

MUSEOA
2=1 kupoa

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

Batek ordaindu, eta bigarrenak doan!

ARGITARATZE EGUNA: 2011-10-02
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

ZELAI TALASOTERAPIA
Itzurun hondartza
Zumaia
Tel.: 943-86 51 00
www.talaszelai.com

SASOIAN JARTZEKO ZIRKUITUA
2=1 kupoa

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

Batek ordaindu, eta bigarrenak doan!

ARGITARATZE EGUNA: 2011-10-02
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

Atzeraldia sakondu da Grezian, eta ezinezkoa egin du defizita murriztea

Bigarren erreskaterako jarri zizkioten baldintzak betetzerik izango ez duen arren, dirua jasotzea espero du Atenasek

Aurten %5,5 apalduko da Greziako ekonomia, eta beste %2,5 datorren urtean

Iker Aranburu

Berri txarrak bata bestearen atzetik pilatzen ari zaizkio Greziari. Oraindik bigarren erreskate planaren dirua jaso gabe izanik, atzeraldia uste baino sakonagoa dela eta defizita murrizterik ez duela erakutsi dute azken datu ekonomikoek. Europako burtsek %2tik gorako jaitsierekin hartu dituzte Greziako berriak. Bankuak jaitsi dira gehien, eta haien artean Frantziakoak batik bat, haiek galduko dutelako gehien baldin eta Atenas bere zorraren zati bat pagatzeko gai ez bada.

Greziako Legebiltzarra atzo hasi zen eztabaidatzen 2012ko aurrekontuak. Horien arabera, datorren urtean ere, laugarren urtez jarraian, atzera egingo du herrialde hartako ekonomia; %2,5, hain zuzen ere. 2009an %2 gutxitu zen Greziaren barne produktu gordina, %4,5 iaz, eta aurten %5,5 eroriko dela diote Atenasen aurreikuspenek.

Ekonomia atzeraldian egonik, ez da harriztekoa langabezia handitzea. Urte bukaerarako 800.000 langabezitatea espero dute, biztanleria aktiboaren %15,2. Datorren urtean %16,4ra da iristekoa; besteak beste, Gobernu funtzionarioak kaleratzen ari delako, gas-tua murriztu nahian. Baina horiek datu ofizialak baizik ez dira, benetako tasa hori baino nabarmen handiagoa dela uste baitute.

380.000 milioi euroko zorra

Zorra pagatu ahalizateko Giorgos Papandreu lehen ministroaren gobernuak indarrean jarri dituen zerga igoerek eta gastuaren murrizketa bortitzek sakondu egin dute atzeraldia, baina ez dute lortu kontu publikoak orekatzea. Duela hilabete batzuk espero baino 1.500 milioi euro gehiagoko zuloa sortu da kontu publikoetan, eta, horren ondorioz, BPGaren %7,8ko defizita izan beharrean, %8,5ekoa izango da aurten.

Defizit hori estaltzeko, gero eta zor gehiago pilatzen ari da Grezia. Aurrekontu proiektuak dio 381.200 milioi eurora iritsiko dela datorren urtean, hau da, BPGaren %172,7ra. Iragarpen ezkorragoak egin ditu Nazioarteko Diru

Greziak laguntzaren truke eskatu zizkioten baldintzak betetzen ote dituen.

Agindutako defizit murrizketa lortu ez duen arren, ez da espero Europak diru iturria ixtea, Greziak porrot egingo lukeelako eta harekin batera eror daitezkeelako beste herrialde batzuk —Irlanda eta, batez ere, Portugal— eta kontinenteko banku handi batzuk ere.

Greba deialdia bihar

Edonola ere, Greziak azken unera arte itxaron beharko du laguntza gehiago jasotzeko, EBko gobernuak presio neurri gisa erabiltzen dutelako, Atenasek egin ditzan eskatutako erreformak eta murrizketak. Euroguneko finantza ministroak bilera batean izan ziren atzo arratsaldean Luxenburgon, baina ez zen espero azken erabakirik hartzea.

Adedy funtzionarioen sindikatuek eraikin publikoen okupazioekin erantzungo die gaur Papan-dreuren azken neurriari. Bihar eta hilaren 19an, berriz, greba orokorrera deituta daude greziarrak.

Funtsak, uste baitu BPGaren %189,1era helduko dela.

Zorra hain da handia, non Greziak ez baitu gaur egun haren interesak eta beste gastuak pagatzeko adina dirurik. Europako Batasunak diru gehiago utzi ezean, Greziaren kutzak hustu egingo dira hilabete honetan, eta ezin-gitu ordaindu pentsioak eta funtzionarioen soldadak. Euroguneko herrialdeek lehen erreskateko 8.000 milioi euro dituzte prest Atenasi uzteko, baina ez dute dirua askatuko egunotan Atenasen diren *troikako* ordezkarien oniritzirik gabe. EBko, Europako Banku Zentraleko eta Nazioarteko Diru Funtseko teknikariek osatzen dute hirukote hori, eta haiei dagokie erabakitzea



Evangelos Venizelos Greziako Finantza ministroa, atzo. NICOLAS BOUVY/ EFE

CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA - ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA (Erakunde Segregatzailea)

BANCO BILBAO BIZKAIA KUTXA, S.A.U. (Erakunde Onuraduna)

Segregazio-iragarpena.

Merkataritza sozietateen egitura aldaketei buruzko ("Egitura Aldaketen Legea") apirilaren 3ko 3/2009 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta beronen 73. artikuluan igorpen zehatzez, honako hau ematen dugu argitaratzen: Caja de Ahorros de Vitoria y Álava - Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxaren ("Kutxa") Batzar Nagusiak 2011ko irailaren 16an egindako bilkuran eta Banco Bilbao Bizkaia Kutxa S.A.U. ren Akziodun Bakarrak ("Bankua") 2011ko irailaren 23an egindako bilkuran, Bankuaren alde segregatzea onartu zuten, Kutzaren ondarea osatzen duten elementu aktibo eta pasibo guztiak, Gizarte Ekintzaren aktibo eta pasibo zehatz batzuk izan ezik.

Segregazioari buruzko akordioak, Kutzaren eta Bankuaren Administrazio Kontseiluak adierazitako segregazio-proiektuarekin bat eginez egin dira, 2011ko ekainaren 30eko norik bere bilkuren bidez, eta Arabako eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan gordailu eginez, oinarritzat hartuz (i) Kutzaren Balantze individuala 2010eko abenduaren 31an itxitakoa, zeina 2011ko irailaren 16n Kutzaren Batzar Nagusiak segregazio-balantze izendatu zuen, eta (ii) 2011ko ekainaren 15ean itxitako Bankuaren Balantzea, zeina 2011ko irailaren 23an Bankuaren Akzionista Bakarrak segregazio-balantze izendatzea erabaki zuen.

Proiektuan aurreikusitakoaren arabera, segregazioa nahitaezko baldintza zehatz batzuek aurretik betetzei lotuta dago, besteak beste, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren beharrezko baimenak lortzeari.

Egitura Aldaketen Legearen 43. artikulua betetzeko, espresuki honako hau kontutan hartzen da: Kutzaren kontseilari nagusiei, Bankuaren akziodunei eta erakunde bietako hartzekodunei, egindako akordioaren testu osoak lortzeko eta segregazioaren balantzeak lortzeko eskubidea aitortzen zaie, baita ere, erakunde bietako hartzekodunei honen kontra jartzeko eskubidea, legalki aurreikusitako ondorioekin, hilabeteko epearekin segregazio-akordioaren azken iragarpenetik hasita, Egitura Aldaketen Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondorioz, segregazioaren kontra jartzeko asmoa dutenek, dagokion erakundearen Administrazio Kontseiluari gutun bat zuzendu beharko diote, kontra jartzeko oinarria den kreditua identifikatuz, bere titularitatea edo beroni dagokioneko legitimazioa justifikatuz, eta kredituak adierazitako baldintzak betetzen dituela akreditatuz.

Bilbon eta Gasteizen, 2011ko irailaren 23an.

Carlos Vicente Zapatero Berdonces

Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxaren Administrazio Kontseiluko Presidentea

Ignacio Sánchez-Asiain Sanz

Banco Bilbao Bizkaia Kutxa, S.A.U. ren Administrazio Kontseiluko Presidentea

CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN - GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA (Erakunde Segregatzailea)

BANCO BILBAO BIZKAIA KUTXA, S.A.U. (Erakunde Onuraduna)

Segregazio-iragarpena.

Merkataritza sozietateen egitura aldaketei buruzko ("Egitura Aldaketen Legea") apirilaren 3ko 3/2009 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta beronen 73. artikuluan igorpen zehatzez, honako hau ematen dugu argitaratzen: Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián - Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxaren ("Kutxa") Batzar Nagusiak eta Banco Bilbao Bizkaia Kutxa S.A.U. ren Akziodun Bakarrak ("Bankua") 2011ko irailaren 23an egindako norik bere bilkuran, Bankuaren alde segregatzea onartu zuten, Kutzaren ondarea osatzen duten elementu aktibo eta pasibo guztiak, Gizarte Ekintzaren aktibo eta pasibo zehatz batzuk izan ezik.

Segregazioari buruzko akordioak, Kutzaren eta Bankuaren Administrazio Kontseiluak adierazitako segregazio-proiektuarekin bat eginez egin dira, 2011ko ekainaren 30eko norik bere bilkuren bidez, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan gordailu eginez, oinarritzat hartuz (i) Kutzaren Balantze individuala 2010eko abenduaren 31an itxitakoa, zeina 2011ko irailaren 23an Kutzaren Batzar Nagusiak segregazio-balantze izendatu zuen, eta (ii) 2011ko ekainaren 15ean itxitako Bankuaren Balantzea, zeina 2011ko irailaren 23an Bankuaren Akzionista Bakarrak segregazio-balantze izendatzea erabaki zuen.

Proiektuan aurreikusitakoaren arabera, segregazioa nahitaezko baldintza zehatz batzuek aurretik betetzei lotuta dago, besteak beste, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren beharrezko baimenak lortzeari.

Egitura Aldaketen Legearen 43. artikulua betetzeko, espresuki honako hau kontutan hartzen da: Kutzaren kontseilari nagusiei, Bankuaren akziodunei eta erakunde bietako hartzekodunei, egindako akordioaren testu osoak lortzeko eta segregazioaren balantzeak lortzeko eskubidea aitortzen zaie, baita ere, erakunde bietako hartzekodunei honen kontra jartzeko eskubidea, legalki aurreikusitako ondorioekin, hilabeteko epearekin segregazio-akordioaren azken iragarpenetik hasita, Egitura Aldaketen Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondorioz, segregazioaren kontra jartzeko asmoa dutenek, dagokion erakundearen Administrazio Kontseiluari gutun bat zuzendu beharko diote, kontra jartzeko oinarria den kreditua identifikatuz, bere titularitatea edo beroni dagokioneko legitimazioa justifikatuz, eta kredituak adierazitako baldintzak betetzen dituela akreditatuz.

Bilbon eta Donostian, 2011ko irailaren 23an.

Xabier Iturbe Otaegi

Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxaren Administrazio Kontseiluko Presidentea

Ignacio Sánchez-Asiain Sanz

Banco Bilbao Bizkaia Kutxa, S.A.U. ren Administrazio Kontseiluko Presidentea

EAJri Kutxen Legea negoziatzea eskaini dio Agirre sailburuak

Gobernua lortu eta gehiengoa izanez gero erreformaren edukian atzera egingo dutela ziurtatu dute jeltzaleek

I.S. Gasteiz

BBK, Kutxa eta Vitalen batzarretan Kutxa Banken sorrerak izan duen sostengu zabalaren ondoren, alderdien arteko desadostasunak azaleratu ditu berriro Aurrezki Kutxen Legearen erreformak. Proiektuak tramitea hasi berri du Eusko Legebiltzarrean, eta erreformaren helburu bakarra EAJri dagokion ordezkari-tza zabala murriztea dela uste du alderdi jeltzaleek.

Batzar orokorrean erakundeek eta taldeek duten ordezkari-tza aldatu nahi du Jaurlaritzak. Alde batetik, erakunde publikoen presentzia halabarrez murriztu behar du, Espainian onartu zen lege aldaketak hala egitera behar-tzen duelako. Bestetik, orain arte ordezkari-tzarik ez zuten erakundeak batzarrean egoteko modua egin nahi duelako: Legebiltzarra eta Batzar Nagusiak. Aldiz, erakunde fundatzaileen eta udalerrien ordezkari-tza murrizteko asmoa du; EAJ asaldatu egin du erabaki horrek.

Agirre sailburuak aldatetaren beharra defendatu zuen atzo, lege proiektua azaltzeko Legebiltzarrean egin zuen agerraldian. «Herrialdeko erakunde nagusia Legebiltzarra da, eta hortik ateratzen den gobernua eta ordezkari-tza garrantzitsua izan behar dute herrialdeko bizitza ekonomiko, sozial eta politikoa».

Jeltzaleek atzera egingo dute

Orain arteko ildo kritikoa izan zion EAJk eztabaidan. Tramitean ordezkari-tza kopuruak aldatzen ez badira hurrengo legealdian aldatuko dituztela argi utzi zuen Rikardo Gatzagaetxebarria EAJko legebiltzarkideak, gobernuan egonez gero. PSE-EEK eta PPK gehiengoa dute erreforma aldatetarik gabe bururaino eramateko, baina EAJrekin «erdibideko konponbide bat» negoziatzeko prest dagoela ziurtatu zuen Agirrek. Arazoak arazo, legea urtea amaitu baino lehen egokitzea komeni dela nabarmendu zuen sailburuak, batzarrak heldu den martxoan berri behar direlako.

Horrez gain, hiru aurrezki kutxek ohiko batzar orokorrak antolatu dituzte datorren urriaren 20rako. Bilerak horiek baliatuz, Bildurekin hitzartutako aldaketak Kutxa Bank sortzeko bateratze kontratuetan sartzea bozkatuko dute batzarkideek.

Bilduk baldintzarik gabeko oinarrizko errenta bultzatu nahi du Gipuzkoatik


Ordain unibertsal bat sortzeko aukera aztertzeke lan taldea sustatuko du aldundiak Batzar Nagusietan

Erredakzioa Donostia

Banakakoa, unibertsala eta baldintzarik gabekoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak uste du gaur egungo gizarte laguntzen erduan beste urrats bat egiteko garaia dela, eta oinarrizko errenta sistema «apurtzailea» bultzatzeko asmoa du, Ander Rodriguez Gizarte Politikako diputatuak atzo iragarri zuenez.

Orain dela hamar urte baino gehiago Hego Euskal Herrian oinarrizko errenta sortzea proposatu zuten gizarte taldeen gogoan antzeko oinarri bat zegoen. Hots, herritar orok izatea ordain baterako eskubidea, lan egiten duen edo ez axola gabe. Diru horren helburua pertsona guztiei irauteko gutxieneko baliabideak izatea bermatzea litzateke. Oinarrizko Errenta Hiritarrari buruzko eztabaida teorikoa asko garatu da, baina azkenean baldintzapeko errenda nagusitu zen Eusko Legebiltzarrean onartu zuen lege proiektuan.

Rodriguezen arabera, ordain horrek bestelako laguntzak eta pentsio eskasak ordezkatzeko litzateke, eta gaur egun gizarte politikari zuzentzen zaizkion baliabideak berriro egituratzea eskatu luke. Proposamen «handinahitsua» dela uste du Rodriguezek, baina «guztiz arrazoizkoa» dela defendatu zuen atzo, bere sailak legealdirako dituen asmen berri emateko agerraldian.



Apurtzailea delako harridura sor dezake proposamenak, baina guztiz arrazoizkoa da»

ANDER RODRIGUEZ
Gipuzkoako Gizarte Politikako diputatua

Oinarrizko errentaren eztabaidak Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkion eskumenak gaintzen dituela onartu zuen diputatuak. Hala ere, Batzar Nagusietan proposamena aztertzeke lan

talde bat sortzea ontzat jo zuen, ekimenaren «zilegitasun etikoa eta bideragarritasun teknikoa» aztertzeke.

Guztientzat, eskatu gabe

Errenta berria herritar guztiek jasoko lukete, eskatu behar izan gabe. Hala, soldatapeko lana osatuko luke, eta errenta handienak dituztenen kasuan eragina mugarituko litzateke. Antzeko ereduak —oso oinarrizkoak— Alaskan eta AEBetako zenbait hiritan daude la azaldu zuen Rodriguezek. Baliabideak lortzeko erreforma fiskal bat beharrezkoa litzatekeela aurreratu zuen, halaber.

Laguntza sortzea «beharrezkoa eta bideragarria» dela ikusiz gero, Batzar Nagusietatik proposamena beste administrazio batzuei helaraziko litzateke. Rodriguezen aburuz, errenda berriro aztertzeke garaia da, PSE-EEK eta PPK gizarte laguntzak gogortzeko hartu duten erabakiak agerian utzi duelako egungo baldintzapeko sistema ez dela nahikoa.

Eusko Jaurlaritzak iragarri du gogortu egingo dituela gutxieneko diru sarrerak bermatzeko errenta kobratzeko baldintzak, PPren babesarekin. Besteak beste, gutxienez hiru urtez eroldatuta egotea beharrezkoa izango da ordaina jaso baino lehen.

bbk=

OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Administrazio Kontseiluak, 2011ko irailaren 15ean egindako bilkuran hala erabakirik, eta Estatutuak 31. artikuluan agintzen dena bezela, Erakunde Kontseilari Nagusi Jaun-Andreei Ohiko Batzar Nagusirako deialdia zabaltzea erabaki du. Batzarra, lehenengo deialdian, urriaren 20an izango da, osteguna, arratsaldeko 17:00etan, Bilbon den BBK Salan (Kale Nagusia, 19-21 beheak), eta bigarren deialdian, 17:30ean, egun eta leku berean, hauxe izango delarik

EGUNEKO GAI-ZERREDA:

- I.- Batzarra eratu.
- II.- Lehendakariaren txostena.
- III.- Finantza Jarduerari eta Gizarte Ekintzari dagokien, 2011ko lehen seihilekoaren txostena.
- IV.- Joka-ildo Nagusiak.
- V.- Euskal Kutxetako Integrazio Proiektua, Integrazio Kontratuaren nobazio aldarazlea onartu.
- VI.- Eskari-galderak.
- VII.- IV eta V puntuen bozketa.
- VIII.- Batzarreko akta onartu.

Bilbo, 2011ko irailaren 23a
Administrazio Kontseiluko Idazkaria
Ángel Lobera Revilla

Irudia > Iruñea



KALITATEZKO ENPLEGUAREN ALDE

Iruñean eta Gasteizen ordezkarien batzarrak eta mobilizazioak egin zituen atzo LAB sindikatuak, kalitatezko enpleguaren beharra aldarrikatzeko eta azken asteotan iragarri diren kaleratzeak nahiz murrizketak salatzeke. «Murrizketak ez dira

beharrezkoak, ez dira krisiaren ondorio. Eskubideak kentzeko erabaki politikoa dago», Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiaren ustez. Murrizketekin enplegu gehiago ezabatuko dela ohar-tarazi du LABek, era berean. IDOIA ZABALETA / ARGAZKI-PRESS

→ Laburrak

De Andresek dio Arabak itzuli dituela laguntzak

GASTEIZ Javier de Andres Arabako ahalduen nagusiak esan du Arabak itzuli zituela Europako Batasunak legez kanpoko-tzat jo dituen diru laguntzak, *opor fiskal* deitutakoak. Ondorioz, herrialdeak ez duela zigorririk merezi dio. De Andresek zehaztu du Europako Batasuneko Justizia Epaitegiak erabakia 2012an ematea espero duela.

Langabeak hartzeagatik, enpresarioei beherapena

MADRIL Langabezia saria kobratzen duten langabeak kontratatzea saritu nahi du Valeriano Gomez Espainiako Lan ministroak. Hori egiten duten enpresei kotizazioak murriztea proposatu du. Gomezek adierazi du langabeen babeserako 30.000 milioi euroko aurrekontutik zati bat horretara bideratu daitekeela.

Bankuen etxeak erosi ahal izateko, hipoteka hobek

MADRIL OCU kontsumitzaile elkarteak ateratako txosten baten arabera, bankuek hipoteka hobek eman dituzte euren etxeak erosteko. Besteak beste, prezioaren %100eko hipotekak eman dituztela dio, merkatu libreko etxeak erosteko ez bezala. Baldintza hobea horien zilegitasuna zalantzan jarri du, partikularren arteko salerosketan zailtzen duelako.

S&P Erresuma Batuen kalifikazioa mantendu du

LONDRES Erresuma Batuen zorraren kalifikazioa mailarik gorenean, AAA mailan, mantentzea erabaki du Standard&Poor's-ek, eta horrela jarraituko duela uste du. Herrialdearen ekonomia «aberratsa eta dibertsifikatua» dela esan du. Horrez gain, gaineratu du zerga eta diru politika malguak dituela eta lan merkatura «nahiko erraz» egokitu daitekeela.

Alemaniko presentzia irmotu nahi du Ingeteamek

BILBO Offshore-etako eta itsas sektoreko ekoizleen Alemaniako elkartearen sartu da Bizkaiko Ingeteam enpresa. Era horretan, herrialdeko itsas energiaren duen presentzia sendotu nahi du, baita bezeroekin harremanak erraztu ere. Sektoreko enpresa nagusiak biltzen ditu elkarteak, esaterako, ABB, Siemens eta VEM.

↓ Hego Euskal Herriko matrikulazioak

Herrialdea	Iraila 2011	Iraila 2010-2011 (aldea, %)	Urtarriletik irailera 2011	Urtarriletik irailera 2010-2011 (aldea, %)
Araba	430	-34,9	4.731	-35,7
Bizkaia	1.145	-8	11.996	-25,9
Gipuzkoa	720	0	7.181	-19,7
Nafarroa	897	+11,7	6.910	-29,2
Hego Euskal Herria	3.192	-7	30.818	-27,1

ITURRIAK: GANVAM

Auto salmentek jaisten jarraitzen dute Hegoaldean

Prezioak jaitsi arren salmentak ez direla suspertu adierazi du kontzesionarioen Faconauto elkarteak

Miren Garate

«Esfortzu handia ari gara egiten. Promozioen bidez, auto bakoitza hiru mila euro merkeago saltzen dugu batez beste». Dena den, kontzesionarioak biltzen dituen Faconauto elkartearen arabera, horrek ere ez du balio izan salmentak suspertzeko. «Bezeroek ekonomiarekiko konfiantza falta dute, eta egoera hori gaindiezina bihurtu da sektorearentzat». Hego Euskal Herrian, %7 jaitsi dira matrikulazioak irailean. Urte osoko datuak kontuan hartuta, %27,1ekoa da jaitsiera.

Aipagarria da irailean Araban izandako beherakada: 450 auto saldu dira hilabete osoan, 2010eko irailean baino %34,5 gutxiago. Bizkaian ere jaitsi egin

dira matrikulazioak, %8; Gipuzkoan iazko kopurua berdindu da; eta Nafarroan %11 auto gehiago saldu dira. Lehen bederatzita hilabeteak kontuan hartuta ere, Araban izan da beherakadarik handiena, %35,7koa. Nafarroan %29,2 murriztu dira, Bizkaian %25,9 eta Gipuzkoan %19,7. Kontuan hartu behar da joan den urte hasieran laguntzak ematen zirela auto zaharra erretiratu eta berria erostearen truke.

Automatrikulazioez kexu

Egoera datuek erakusten duten baino larriagoa dela gaineratu du Faconauto elkarteak. Haren arabera, automatrikulazioek puztu egin dituzte salmenta datuak. Hau da, markek eurek matrikulatu dituzte autoak, gero aukerako ibilgailu gisa saltzeko. Horrek datuak hobetzeko aukera ematen die saltzaileei.

Etorkizunari begira ere ezkor dira kontzesionarioak. Hala, prezio neurriak indarrean jartzeko eskatu diote Espainiako Gobernuari.

GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA

Ohiko Batzar Nagusia

DEIALDIA

Erakundearen Estatutuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa honen Administrazio-Kontseiluak, aurtengo irailaren 15ean egindako bere bilan, Ohiko Batzar Nagusirako deia egitea erabaki zuen, hurrengo **urriaren 20rako, arratsaldeko Setarako (17,00)** lehen deialdian eta ordu erdi bat geroago, hala balegokio, bigarren deialdian, Erakundearen Donostiako Andia kale z/g.ko Ekitaldi-Aretoa.

EGUNEKO GAI-ZERRENDA

- 1.- Bertan bildutakoen zerrenda egitea eta Batzarraren eraketa.
- 2.- Lehendakariaren Txostena.
- 3.- 2012 ekitaldirako jardunbidearen Lerro Orokorra.
- 4.- Ikuskariaren izendapena.
- 5.- Euskal Kutxen integrazio-proiektua. Integrazio Kontratuaren aldaberritzearen onarpena.
- 6.- Eskari-galderak.
- 7.- 3. 4. eta 5. puntuak onartzeko bozketa.
- 8.- Administrazio-Kontseiluaren esku uztea, ordezkatzeko gaitasuna barne, Batzar Nagusiak 3. eta 4. puntuari buruz hartuko dituen akordioak formalizatu, zuzendu, interpretatu eta egikaritzeko ahalmenak.
- 9.- Bilkuraren Akta onartzeko ikuskatzaileak izendatzea.

Kutxaren Estatutuaren 24-9 artikuluen arabera, Batzarra egin baino hamabost egun lehenago utziko da Kutxako Idazkaritzan, eta Kontseilari Orokor Jaun-Andreen esku utzi ere, bidezko dokumentazio guztia.

Donostia, 2011ko Irailak 23
Lehendakariak,
Xabier Iturbe Otaegi

 kutxa

Haragitako behien laguntzak mugatzen segitu nahi du ELBk

Laguntza kopurua etxaldeka mugatua baldin bada, muga hori kendu nahi du Paueko Laborantza Ganberak

Jenofa Berhokoirigoin Baiona

«Interes orokorraren izenean, haragitako behien laguntzen mugatzea mantendu behar du prefetarako, diru publikoaren banaketa zuzena segurtatzeko». Horra zer zion atzo Marie-Claire Leurgorri ELB sindikatuko kideak, Baionan (Lapurdi) antolatutako prentsaurrekoan. Orain arte, etxaldeka banatu laguntzen kopurua mugatua baldin bada, Paueko Laborantza Ganberak muga hori kendu nahi du, eta prefetaren izenpea soilik falta da aldaketa gauzatzeko. Hitzordua galdutua dio sindikatuak prefetari, baina orainokoa ez dute erantzunik ukan.

Behi kopuruaren arabera dira laguntzak banatuak, eta gaur egun, nahiz betaldea handiagoa izan, 60 laguntza baino gehiago

ez dezake ukan etxalde batek. Departamenduan diren 4.400 ekoizleentzako 40k dute bakarrik jasotzen laguntza hein hori, beste guztiek gutxiago dutelarik, batez bestean 30 laguntza jasotzen dituzte etxaldeka. ELBren arabera, muga hori kenduz, «egoera hobereanean direnak, hots ekoizleen %1, defendatuko dituzte, beste guztien bizkar». Gainera, gaur egun soilik 1.500 bat laguntza dira banaturik Pirineo Atlantikoetan, gutxira 49.500 bat behar litzaizkeelarik banatu.

Erabaki horren gibelean nekazaritzako elikagaien industriaren «presioa» badela zehaztu zuten, «ahal bezain laborari gutxi eta ahal bezain handiak nahi dituztelako». Azken 10 urte horietan, departamenduko hazkuntzen herenak dira desagertu: «benetako odolustea gertatzen ari da», ELBren hitzetan.

2013an gauzatuko den Nekazaritza Politika Bateratuaren erreforma zer-nolako izanen den ez denez argi, «etxalde handien onerako, FDSEAk ahal bezainbat diru hartu nahi izana» ere gaitzetsi zuten.

BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA

(Erakunde Segregatzailea)

BANCO BILBAO BIZKAIA KUTXA, S.A.U.
(Erakunde Onuraduna)

Segregazio-iragarpena.

Merkataritza sozietateen egitura aldaketari buruzko ("Egitura Aldaketen Legea") apirilaren 3ko 3/2009 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta beronen 73. artikuluan igorpen zehatzez, honako hau ematen dugu argitaratu: Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitexearen ("Kutxa") Batzar Nagusiak 2011ko irailaren 16an egindako bilkuran eta Banco Bilbao Bizkaia Kutxa S.A.U.ren Akziodun Bakarrak ("Bankua") 2011ko irailaren 23an egindako bilkuran, Bankuaren alde segregatzea onartu zuten, Kutxaren ondarea osatzen duten elementu aktibo eta pasibo guztiak, Gizarte Ekintzaren aktibo eta pasibo zehatz batzuk izan ezik.

Segregazioari buruzko akordioak, Kutxaren eta Bankuaren Administrazio Kontseiluak adierazitako segregazio-proiektuarekin bat eginez egin dira, 2011ko ekainaren 30eko norik bere bilkuren bidez, eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan gordailu eginez, oinarritzat hartuz (i) Kutxaren Balantze individuala 2010eko abenduaren 31an itxitakoa, zeina 2011ko irailaren 16n Kutxaren Batzar Nagusiak segregazio-balantze izendatu zuen, eta (ii) 2011ko ekainaren 15ean itxitako Bankuaren Balantzea, zeina 2011ko irailaren 23an Bankuaren Akziodun Bakarrak segregazio-balantze izendatzea erabaki zuen.

Proiektuan aurreikusitakoaren arabera, segregazioa nahitaezko baldintza zehatz batzuek aurretik betetzeari lotuta dago, besteak beste, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren beharrezko baimenak lortzeak.

Egitura Aldaketen Legearen 43. artikulua betetzeko, espresuki honako hau kontutan hartzen da: Kutxaren kontseilari nagusiei, Bankuaren akziodunei eta erakunde bietako hartzekodunei, egindako akordioen testu osoak lortzeko eta segregazioaren balantzeak lortzeko eskubidea aitortzen zaie, baita ere, erakunde bietako hartzekodunei honen kontra jartzeko eskubidea, legalki aurreikusitako ondorioekin, hilabeteko epearekin segregazio-akordioaren azken iragarpenetik hasita, Egitura Aldaketen Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondorioz, segregazioaren kontra jartzeko asmoa dutenek, dagokion erakundearen Administrazio Kontseiluari gutun bat zuzendu beharko diote, kontra jartzeko oinarria den kreditu identifikatuz, bere titularitatea edo beroni dagokioneko legitimazioa justifikatuz, eta kredituak adierazitako baldintzak betetzen dituela akreditatuz.

Bilbon, 2011ko irailaren 23an.

Mario Fernández Pelaz

Bilbao Bizkaia Kutxa Aurrezki Kutxa eta Bahitexearen
Administrazio Kontseiluko Presidentea

Ignacio Sánchez-Asiain Sanz

Banco Bilbao Bizkaia Kutxa, S.A.U.ren Administrazio
Kontseiluko Presidentea



Afganistango Polizia defentsarako lerroa osatzen Pakistanen aurkako manifestarien aitzinean, herenegun, Kabul. S. SABAWOON / EFE

Gerraren azken txinparta

Afganistango presidente ohia hil izana ukatu du Hakkani sareak, eta Pakistanek dio ez duela zerikusirik gertatutakoarekin

Azken gertakariengatik AEBek Pakistanen esku hartuko duten beldur da Islamabad

Mikel Rodriguez

Badira urte batzuk AEBek 2001ean Afganistanen hasitako gerraren ondorio zuzenak Pakistanera hedatu zirela. Pervez Musharraf jeneralaren erregimena erori zenetik (2008), Washingtonen eta Islamabaden arteko harremana gaiztotu egin da, Pakistanen dauden talibanen indartzea dela eta. Azkenaldian, edozein txinparta agertzea nahikoa da tentsioa are gehiago zorrozteko, eta AEBek zuzenean esku hartzeko mehatxua jada sinisgarria da Pakistanen. Burhanuddin Rabbani Afganistango presidente ohiaren hilketa izan da harremanen hondatze horren azken atala. Kabulek eta Washingtonen Hakkani sareari egotzi zioten eraso, eta ISI Pakistaneko informazio zerbitzuari, berriz, horri sostengua ematea. Hakkani taldeak, baina, ukatu egin du Rabbani hil izana eta gaur egun ISIREkin harremana izatea. Pakistanek ere Rabbaniaren hilketarekin zerikusirik ez duela erran du.

«Rabbani ez dugu guk hil, eta hori bera erran dute hainbat aldiz Emirri Islamikoko bozeramai-

leek», erran dio Sirajuddin Hakkani BBC kateari. Hakkani sarearen sortzaile Jalaluddin Hakkaniaren semea da Sirajuddin, eta Emirri Islamikoa talibanek beren agintaldian (1996-2001) Afganistani emandako izena da. Azkenaldian izandako hainbat eraso bere gain hartu ditu Sirajuddin Hakkani —iragan hilean bertan NATOren egoitzaren aurka egin dakoa, adibidez—, baina AEBek Afganistan inbaditu zutenetik atzerriko informazio zerbitzuekin elkarlanik ez dutela izan ziurtatu du. «Herrialde islamikoetako eta islamikoak ez direnetako zerbitzu anitz paratu dira gurekin harremanetan, AEBak barne, jihad santua utzi eta oraingo gobernuaren kide garrantzitsuak izan gaitzen».

Informazio zerbitzuei begira

Washingtonen eta Kabulek ISIRI Hakkani sarea sostengatzea egotzi dioten aldi oro Islamabadek ukatu du leporatutakoa. Hamid Karzai Afganistango presidenteari ere berehalakoan erantzun dio, hark erran ondoren Rabbani Pakistaneko suizida batek hil zuela eta eraso herrialde horretako

Ketta hirian prestatu zutela. «Adierazpen arduragabe horiek egin ordez, Kabul en aginte karguak dituztenek argitu beharko lukete zer dela eta hiltzen dituzten sistematikoki bakearen eta Pakistanen alde dauden afganiarrrak», adierazi du Pakistaneko Atzerri Ministerioak ohar baten bidez. Susmoaren itzala Kabulen paratu du Islamabadek. «Beharrezkoa da Afganistango informazio eta segurtasun agentziek hartutako norabidea ikertzea».

Rabbaniaren hilketa ekintza eta akusazio kate luze baten azken atala izan da. Bakerako Kontseilu Goreneko burua zen Afganistango presidente ohia, eta bera zen gobernuaren eta talibanen arteko bitartekaria. Iragan irailaren 20an hil zuen suizida batek, bere etxean. Eraso, ordea, ez du inork bere gain hartu. Karzaik zuzenean Pakistan egin du erantzule, eta «terrorismoaren joko bikoitza» amai dezan eskatu dio. Talibanekin hitz egin beharrean Pakistanekin hitz egin behar dutela dio Karzaik, Afganistango erresistentziaren arduraduntzat baitu. Bakerako Kontseilu Gorenak ere Karzairen hitzak babestu ditu, eta Rabbaniaren hilketarekin zerikusia dutenak estraditatzeko eskatu dio gobernuak Pakistani.

NATOk, ordea, jakinarazi du ez duela «inolako informaziorik» jakiteko Hakkani sarea Afganistango presidente ohiaren hilketaren erantzulea ote den. Gainera, Anders Fogh Rasmussen aliantza militarreko idazkari nagusiak

erran du iaztik talde horren eta gainerakoen eragina «nabarmen» murriztu dela. Hala ere, Pakistan gogoan izan du, eta eskakizun zehatz bat egin dio: «Pakistaneko Gobernuak eta armada animatu nahi ditugu mugako babeslekuetara eraso egin diezaieten. Mugan zehar mugimendu nabaria dago, eta Hakkani sareak eta bertze talde terroristek horren bidez jarduten dute Afganistanen».

NATOk dio ez dakiela Rabbani presidente ohia Hakkani sareak hil ote duen

Pakistaneko mugaldea da AEBekiko tentsioaren arrazoi nagusietakoa

Rasmussenen eskaera, jarrera positiboarekin egin arren, Mendebaldearen presioaren azken adibidea da. Iraganean AEBek ere eskatu zioten Pakistani mugaldea erasoak egiteko, eta, gaur egun, hori da bi herrialdeen arteko tentsioaren arrazoi nagusietakoa. Mugaldeko eskualdeetako biztanleek harreman estua dute Afganistanekin, eta talibanak eta bertze hainbat milizia han ezarritako daude. 2001eko irailaren 11ren ondotik Musharrafek bat egin zuen AEBek deklaraturako *terrorismoaren aurkako gerrarekin*. Horren truke, Pakistanek 15.500 milioi euro jaso zituen, baina ho-

rren %70 armadaren esku gelditu zen, BBCren arabera. Islamabadek mugako eskualdeetan erasoaldiak egiteari ekin zion, AEBek Afganistango talibanen atzeraguardiatzat baitzeukan eremu zabal hori. Musharrafek, gainera, aukera ikusi zuen milizia islamistak eta gizarte antolakuntza tribalak nagusi ziren eremuetan botere zentrala sendotzeko.

Estrategia horrek, ordea, zama handiegia ekarri dio Pakistani politikan, arlo militarrean eta sozioekonomian. AEBek Pakistanen eduki duten aliatu onena armada izan da beti, eta herrialdean egon diren gobernu militarrekin harreman ona eduki du Washingtonen. Horren adibide argia da bi herrialdeetako informazio zerbitzuek 1980ko hamarkadan SESB Sobietar Errepublikaren Batasuneko armadaren aurka Afganistanen izandako elkarlana talibanak eta bertzelako miliziak —Hakkani sarea barne— diruarekin, armekin eta prestakuntzarekin laguntzeko.

AEBak laguntzea, garesti

Aldaketa, ordea, Pakistaneko armadak bere herritarren aurka egin behar izan duenean etorri da. Mugako kanpainak kostu handia izan dute. Zibil anitz hil dira, eta armadak ere soldadu anitz galdu ditu. Bakarrik 2002an eta 2004an Hego Uaziristanen egindako kanpainetan 700 soldadu hil ziren. Indarkeria mugara ez ezik, herrialde osora hedatu da ia, eta gobernuaren arabera, 2001etik 30.000 lagun hil dira erasoetan eta borroketan. Armadan AEBekiko jarrera aldaketa eragin du egoera horrek; alde batekin, elitearen zati batean nazionalismoa indartu da, Washingtonen esku hartzea gehiegizkotzat baitaukatete. Bertzetik, 1980ko hamarkadan komunismoaren eta Indiarren aurka egiteko sustatutako islamismoak agintearen eta Mendebaldearen aurkako jarrera hartu du, herrialde musulmanen inbasioen ondorioz.

Oposizioaren presioaren ondorioz Musharrafek alde egin zuenetik, gero eta gehiago eskatu diote AEBek Pakistani presio militarra areagotzeko. Era berean, gero eta esku hartze gehiago egin ditu Washingtonen. Adibide ikusgarriena Osama Bin Ladenen hilketa den arren, ondorio nabarmenak utzi dituztenak piloturik gabeko hegazkinekin egindako bonbardaketak dira. 2009an 53 egin zituzten, eta iaz jada ehundik goiti. New American Fundazioaren arabera, iaz arte 900 eta 1.500 ziren eraso horietan hildakoak, gehienak zibilak. Horren eraginez, AEBekiko elkarlanaren aurkako jarrera anitz hazi da Pakistaneko herritarren artean, eta, horrekin batera, Musharrafen ondorengo gobernu zibilarekiko barne presioa. AEBen balizko operazio baten beldurra egunez egun hedatzen ari da Pakistanen.

Ekialde Hurbila → Palestinarren geroa, NBE



Leon Panetta AEBetako Defentsa idazkaria, Jerusalemgo Memoriaren Museoan, atzo. JIM HOLLANDER / EFE

Arriskua saihesteko, AEBek «Israelen segurtasuna» bermatuko dute

Muturreko juduek su eman diote meskita bati Galilean, eta istiluak izan dira beduinoen eta Poliziaren artean

Jon Fernandez

«Begi bistakoa da egoera ez dela batere ona Israelentzat, gero eta bakartuago baitago», adierazi du Leon Panetta AEBetako Defentsa idazkariak Israelera egindako bisitaldian. «Ekialde Hurbileko potentzia militar handiena izan arren, ostrazismo diplomatikoak eragina izan dezake herrialdeko eta eskualdeko segurtasunean», Panettaren ustez. Hala, Washingtonen babesa berretsi du, arriskua dagoen bitartean AEBak Israel «beharrezkoa duen segurtasuna bermatzeko prest» egongo direla esanez. Era berean, «ausardiak jokatzeko» eskatu die bai palestinarrei bai israeldarrei.

Segurtasunaz eta beste hainbat gaiz hitz egiteko bildu zen atzo Panetta Ehud Barak Israelgo Defentsa ministroarekin; besteak beste, palestinarrekin elkarriketak hasteko eta Egiptorekin eta Turkiarekin harremanak hobetzeko eskatu dio. «Lagun zaharra dugu Panetta, lan handia egin du Israelen eta AEBen arteko harreman berezia sendotzeko», eskertu dio Barakek. Bi urte

eta erdiz CIAko buru izan zen, eta iragan uztailean izendatu zuten Panetta Defentsa idazkari. Dena dela, palestinarrei ere keinua egin die Panettak, AEBetako Kongresuak Palestinako Agente Nazionalarentzat 200 milioi dolarreko diru laguntza etetea «huts-gitea» dela adierazi baitu; Mahmud Abbas PANeko presidentek NBEn Palestina eskubide osoko estatu kide gisa aitortzeko egindako eskariagatik itxi dio itu-

“



Galileako eraso Israelgo Estatuaren erlijio eta kultu askatasunaren kontrakoa da»

BENJAMIN NETANYAHU
Israelgo lehengo ministroa

ria AEBetako Kongresuak PANi. Panettak eta Abbasek bilera egin zuten atzo Ramalan.

Nazioarteko politikariak Israelen segurtasunaz ari diren bitartean, bestalde, meskita bati eraso egin diote Galilea eskualdeko Tuba Zangarija herrian, Israel

iparraldean. «Argi dago muturreko juduak daudela erasoaren atzean», esan du Roni Atia komandanteak. Astelehen goizaldean eman zioten su meskitari, eta arabiarren kontrako grafitiak egin zituzten hormetan. Geroago, 300 beduino arabiar inguruk protesta egin zuten, eta Poliziak negar gasekin erantzun zuten. Benjamin Netanyahu Israelgo lehengo ministroak esan du horrelako erasoak onartezinak direla. «Galileako eraso Israelgo Estatuaren erlijio eta kultu askatasunaren kontrakoa da», adierazi du.

Israel, Laukotearekin bat

Tel Aviveko gobernuak Ekialde Hurbilerako Laukotearen proposamenari baiezkoa eman eta biharamunean etorri da meskitaren eraso. Izan ere, palestinarren negoziazioei ekiteko prest dagoela baieztatu zion igandean Netanyahu Laukoteari; halere, argi laga du ez duela etengo kolonien politika.

Palestinarrek bi baldintza jarri dituzte negoziazio mahaian jartzeko: 1967ko mugak onartzea eta kolonien politika etetea. Laukotearen proposamenak, ordea, ez du baldintzarik aurreikusten, Israel nahi duen bezala, eta hilabete epean bi aldeak hizketan hasateko eskatzen du. Netanyahu jarri aldatu ezean, ordea, PAN ez da mahaian jarriko.

Fronteak aurrera egin arren, Surt Gaddafiren indarren esku dago oraindik

NATOk «ahalegin handiagoa» eskatu dio Trantsiziorako Kontseilu Nazionalari armak kontrolatzeko

Erredakzioa

Libiako Trantsiziorako Kontseilu Nazionalako indarrek aurrerapauso txikiak eman dituzte Surteko eta Bani Ualideko fronteetan. Surt Muammar Gaddafiren jaioterrian haren jatorrizko auzoa hartzea lortu dute, Abu Hadi auzoa hain zuzen, hiriarren kanpoaldean. «Arma ugari» aurkitu dituzte bertan, eta Gaddafiren hogeitarraitzaile atxilotu dituzte. Hala ere, Gaddafiren indarrak hiriarren erdialdean gotortu dira, eta erresistentzia gogorra egiten ari dira.

Trantsiziorako Kontseilu Nazionalak, bestalde, Surten kontrako bonbardaketak etetea erabaki du, «zibilei hiritik ateratzen uzteko». Iragan ostiralean bi eguneko epea jarri zuten Surteko zibilei hiritik ateratzeko, baina luzatu egin dute epea. Halere, Gurutze Gorriak jakinarazi du ezin direla sartu Surten, erreboltariek erasoak ugaritu dituztelako. Bestetik, Anders Fogh Rasmussen NAToko idazkari nagusiak «ahalegin handiagoa» eskatu dio Trantsiziorako Kontseilu Nazionalari, Gaddafiren armategien kontrola bermatzeko. Azken asteetan milaka misil desagertu izana arduratzeko modukoa dela esan du Rasmussenek, eta «erantzukizuna» eskatu die Libiako erakunde berriei. Bestalde, NATok berretsi du oraingoz Libian segiko duela.

1.200 etorkin atera dituzte

Trantsiziorako gobernuak osatzeko erabakia atzeratzen ari da, Surt eta Bani Ualid kontrolpean ez dituztelako. Mustafa Abdeljalil matxinoen presidenteari izendatzen berririk jakinarazi zituen atzo, baina gobernu gerra bukatutakoan osatuko dutela berretsi du. «Libia osoa askatzean sortuko dugu gobernu». Artean, Mahmud Jibrilek jarraituko du kontseiluko buru gisa; gainera, «Martiri Ministerioa» sortu dute, iraultza hasieran hildakoez arduratzeko.

Bestalde, borrokengatik Sabhan harrapatuta zeuden 1.200 etorkin afrikar Txadera bidean daudela jakinarazi du IOM Migrazioarako Nazioarteko Erakundeak. Beste 1.500 etorkin inguru Sabhan geratu dira.

→ Laburrak

Marokok ekintzaile saharar bat atxilotu du

RABAT Torturaren Kontrako Erakunde Sahararreko presidenteorde Mahjud Ulad Txeij atxilotu du Marokoko Poliziak, Dakhla hirian, Mendebaldeko Saharan. Atxilotetan indarkeria erabili dutela eta Txeijen egotzaren berririk ez dutela salatu du giza eskubideen aldeko erakundeak.

Independentistak atxilotu dituzte Kamerunen

JAUNDE Gutxienez 200 lagun atxilotu dituzte Kamerun ipar-ekialdeko Buea hirian, independentziaren aldeko manifestazioa egiteagatik. Eskualde ingeles-hiztunaren independentzia eskatu zuten larunbatean 400 manifestarik. Urriaren 9an egingo dituzte presidentetzarako hauteskundeak.

Errepidearen kontrako martxa hasi dute Bolivian

LA PAZ Boliviako mila indigena inguruk Tipnis parke naturalean egitekoa den errepidearen kontrako martxa hasi dute, berriz, Quiquibeytik La Paz hiriburura. 200 kilometro egingo dituzte, gobernuari proiektua behin betiko gerarazteko eskatzeko. Iragan astean istiluak izan ziren indigenen eta Poliziaren artean.

Norvegiak bere gain hartu ditu Poliziaren «hutsak»

OSLO Norvegiako Gobernuak onartu du Anders Behring Breiviken atentatuaren inguruan «hutsak» egin zituela Poliziak. Halaxe aitortu du Knut Storberget Justizia ministroak, *Aftenposten* egunkarian eginiko elkarrizketa batean.

Usurbilgo Udarregi ikastola

Bazkide agurgarria:
Udarregi ikastola, Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Estatuaren 2.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, irailak 14an izaniko Artezkaritza Kontseiluak Elkartearen OHIKO BATZAR OROKORREKO BIGARREN ATALERAKO DEI egiten du.

Eguna: 2011ko URRIAREN 20a (osteguna)
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan (lehen deialdiz) eta hala badagokio, 18:30etan (bigarren deialdiz)

Lekua: Ikastola berriko aretoan (Gemika Ibilbidea 11)

Lan-zerrenda

1. Ekonomia eta Administrazioa
2. Artezkaritza Kontseilua berritzea
3. Zaintza Batzordea berritzea
4. Akta izenpetzeko bi bazkide hautatzea
5. Galde-erantzunak

ADMINISTRATZAILEAK

Tabernak ixteko ordutegia >

1997tik indarrean dagoen dekretua aldatu, eta tabernen itxiera ordua ordubete atzeratu asmo du Jaurlearitzak. Ostalariek aspaldi egindako eskaria da, krisiak eragindako kontsumo ohitura aldaketei aurre egiteko.

Luzatu, loa eragotzi gabe

Ainara Arratibel

Ostalarien eta auzo elkarten eskariak aurrez aurre jarri ditu, berriro ere, Eusko Jaurlearitzak taberna, jatetxe, pub eta dantzalekuak ixteko ordutegia luzatzeko onartu asmo duen dekretuak. Krisi ekonomikoaren eta leku itxietan tabakoa erretzearen debekuaren ondorioz izaten ari diren galerei aurre egiteko «ezinbesteko» neurria dela iritzi diote ostalariek. Auzo elkarten arabera, berriz, herritarrek atsedenerako duten eskubidea horren gaineratik dago, eta salatu dute gaur egungo ixteko ordutegia bera ere ez dutela errespetatzen taberna askok. Legea betez

gero, halere, luzatzeaz hitz egiteko prest leudeke. Bien interesak babesten saiatuko dira udalak, haien arduratzen baitira legea betearazteaz.

Egun Araba, Bizkai eta Gipuzkoan indarrean dagoen dekretua 1997koa da. Zaharkituta dagoela argudiatuta, ostalariak aspalditik ari dira hura aldatzeko eskatzen. Eusko Legebiltzarrak iazko maiatzean onartu zuen araudia aldatzeko legez besteko proposamena. Bertan, taberna, jatetxe eta dantzalekuen ixteko ordutegien gaia berriro aztertzeko eskatu zioten Eusko Jaurlearitzari. Ixteko ordua 45 minutu atzeratzea galdegin zioten, sektoreak ekonomikoki eta sozialki duen garrantzia aitortzearekin batera. Hain-

bat udalek ere onartu zituzten halako proposamenak. Jaurlearitzak esan zuen prestzegoela gaia aztertzeko, baina gaineratu zuen ostalarien eta herritarren interesak parekatu beharko zirela eta gaia Eudel Euskal Udalen Elkartearekin negoziatuko zuela. Badirudi negoziazio horiek bide onetik doazela, eta dekretu berritua urte hasieran jarriko dutela indarrean.


Taberna, jatetxe, pub eta dantzalekuek ordubete geroago itxi ahal izango dute ostiral, larunbat eta jaiegun bezperan, zuzentzerak dioenez; astegunetan, berriz, egun baino ordu erdi geroago. Udalek, gainera, orain baino eskumen handiagoa izango dute alor horretan. Hala, maizago eman ahal izango dituzte ordute-

giak luzatzeko baimen bereziak. Gaur egun baimen horiek herriko jaietan, Aste Santuko, udako eta Gabonetako oportunitatean eta urteko beste hamar egunetan eman ditzaizkete. Egun horietan ostalariek bi ordu gehiago luza dezakete negozioa irekia edukitzeko ordutegia.

Tabernariak pozik daude Jaurlearitzaren erabakiarekin. Hala dio, behintzat, Gipuzkoako Ostalarien Elkartearen idazkari nagusi Kino Martinezek. «Aste barruan ordutegia luzatzea ez genuen ikusten horren beharrezkoa, baina asteburuetakoa ezinbestekoa zen. Izan ere, gaueko astialdiari lotutako taberna, pub eta dantzalekuak dira krisia gogorren jasaten ari direnak, eta horiek batez

ere asteburuetan dituzte bezeroak». Neurriak kalte gehien dantzalekuei egin diezaikeela uste du. «Kexaren bat jaso dugu haiengandik. Izan ere, beldur dira tabernetatik beranduago atera, eta bezeroak ez ote diren etxera joango. Baina argi izan behar dute etsaia ez dela aurrean dagoen taberna, baizik eta jendea etxean geratzea».

Dena den, auzo elkarteak dira neurriarekin gehien kezkatuta daudenak. «Argi dugu ostalarien sektorea oso garrantzitsua dela ekonomiarentzat, eta bizia nahiz nortasuna ematen diela hiri nahiz herriei. Guk ostalarientzat onuragarria den edozein neurri babestuko dugu, baina beti ere herritarrek atsedenerako duten



Jendea parrandan
Bilboko Somera
kalean. J. HERNEAZ/APP

Tabernak ixteko ordutegia →

eskubidea errespetatzen bada. Eskubide hori ekonomia sustatzeko edozein neurriren gainera dago», dio Bilboko Auzo Elkartearen Federazioko lehendakari Javier Muñozek. Gainera, salatu du eurekin inork ez duela hitz egin ordutegi aldaketaz.

Udalek ere badute zeresana. Gasteizko Ekonomia Sustapenerako zinegotzi Fernando Arangizek «begi onez baina tentu handiarekin» hartu du neurria. «Guk ahalegin berezia egingo dugu legea bete, eta bai herritarrentzat bai tabernarientzat onuragarria izan dadin egitasmoa». Martinezek azaldu du eurek beti defendatu dutela herritarrek lo egiteko duten eskubidea. «Baina auzo elkarteekin hitz egitea ez dagokigu guri, baizik eta Jaurlearitzari. Izan ere, hura da legeak proposatzen dituen».

Kontsumoan aldaketak

Neurria aspalditik zela beharrezkoa berretsi du Gipuzkoako ostalarien buruak, krisiak jendearen kontsumo ohiturak aldatu dituela uste baitu: «Aurrezte aldera, askok etxean edo lokaletan afaltzen

dute. Gazteen artean ohikoa da hori. Lehen tragoak bertan hartzen dituzte, edo kalean taldean edaten dute. Orain urte batzuk pentsaezina zen goizaldeko ordubatean hastea tabernetara joaten. Egun, ordea, oso ohikoa da hori. Gainera, bezeroek gero eta gehiago begiratzen dute non eta



Ahalegin handia egingo dugu legea bete, eta ona izan dadin herritar eta ostalarientzat»

FERNANDO ARANGIZ
Gasteizko Ekonomia Sustapenerako zinegotzia

«Atsedean hartzeko eskubidea edozein neurri ekonomikoren gainera jarri behar da»

JAVIER MUÑOZ
Bilboko Auzo Elkarteetako Federazioko burua

«Gaur egun bezeroak geroago hasten dira kontsumitzen, eta gutxiago gastatzen dute»

KINO MARTINEZ
Gipuzkoako Ostalarien Elkarte burua

zer kontsumitzen duten». Horregatik, Arangizek uste du luzatzea ez dela «panazea» izango. «Alferrik da denbora gehiago zabalik edukitzea, bezeroak erakartzen ez badituzte. Hori berrikuntzaren bidez eta eskaintza erakargarriak eginez lortzen da».

Auzotarrak «kaltetuenak»

Baina kontsumo aldaketa horiek tabernariei bezainbesteko kaltea egin diete herritar askori, Muñozen irudiko. «Tabernetako soinua kalera atera da. Tabakoaren legearen eta taldean edateko ohituraren ondorioz, tabernen kanpoaldean jendetza pilatzen da, eta soinua jasanezina da. Bilbon, adibidez, Zazpikaleetan ia ezinezkoa da asteburuetan lo egitea». Hala, legea errespetatzeko beharra defendatu du. «Berez, kalean ezin da edan. Baina legea ez da betetzen. Horregatik gaude gu ordutegiak luzatzearen aurka. Azken batean, soinu jasanezin horrek ordu gehiago irauango du. Legea beteko balitz, errazagoa izango litzateke gai horren inguruan akordioa egitea». Martinezek defendatu du, haatik, taber-

↓ Ordutegi berriak

Ostalaritza saltokien itxiera ordutegiak ostiral, larunbat eta jai bezperetan EAEn



na, pub eta dantzalekuek zorrotz betetzen dutela araudia. «Araudia oso zehatza da, eta, ez badugu betetzen, berehala jartzen dizkigute isunak».

Saltoki guztiek eskubide berberak izate aldera, guztiei ordutegia parekatzea defendatu izan dute ostalariek, beti ere saltoki motaren arabera. Muñozek, hala ere, ez du uste hala izan beharko lukeenik. «Herri bakoitzak bere errealitatea du. Tabernen pilaketa ere

diferentea da auzo batetik bestera. Beraz, uste dugu horri egokিতuta jarri beharko liratekeela ordutegiak. Horretarako, azterketa zorrotz eta sakon bat egin beharko litzateke». Ez dator bat horrekin Gasteizko Udaleko Ekonomia zinegotzia: «Ostalaritza guztiei aukera berberak eman behar zaizkie. Kontrakoa bazterkeria litzateke».

Muñozek gogorarazi du azkenaldian hartu diren neurriak beti izan direla ostalarien aldekoak. «Bilbon, adibidez, orain hilabete batzuk udal ordenantza berria murriztu egin dute taberna batetik bestera legez egon behar duten distantzia». Kontrako iritzia du Martinezek. «Turismoa erakartzeko aldera, oso garrantzitsua da gure sektorea. Baina turismoak gurean bezainbesteko garrantzia duen lekuetan, gehiago bultzatzen da ostalaritza», dio Martinezek. Hala, ekonomikoki eta sozialki sektoreak duen garrantzia babestu du. «Zer litzateke Donostiako Parte Zaharra tabernarik gabe?». Urte hasieran ikusiko da neurriak zein ondorio duen.

Grenetek eutsi egin dio iaz tabernak ixteko ordua ordubete aurreratzeko hartutako neurriari. Auzotarrak pozik daude, eta tabernariak, kezkatuta.

Baionan, itxiera lehenago

A.A.

Urtebete pasatxo igaro da Baionako auzapez Jean Grenetek tabernak ixteko ordutegia ordubetea aurreratu zuenetik. Neurriak «ezinegona eta haserrea» eragin zuen ostalarien artean. Baina Grenetek tinko eutsi die bere asmoei, nahiz eta tabernetako jabeek urtebete honetan maiz eskatu izan dioten atzera egiteko. Azken presio neurri gisa, Baionako bestetan ostalariek planto egin, eta Greneti mehatsu egin zioten: herriko etxeak berrerabiltzeko edalontziak sustatzeko abian jarritako ekimena ez zuten babestuko. Baina Grenet argi erantzun zion enbidoari: babesten ez bazuten, kalean barrak jartzea debekatuko zien. Azkenean, ostalariek atzera egin zuten, eta oraingoz Grenetek tinko eusten dio erabakiari.

Tabernarien kezka agerikoa da, herriko etxeak onartutako dekretuak beste muga batzuk ezarri dizkie ostalariei. Besteak beste, arratsaldeko zortzietatik aurrera karrikan edatea debekatuta dago.

Ardevie auzo elkarteak hasieratik babestu zuen Greneten jokabidea, eta egun ere horretan jarraitzen du. Neurriak, haatik, haserrea eragin zuen gazteen

arte, eta protestak ere izan ziren. Baina egun horien jarrera ere apaldu da.

Nafarroan, aldaketa txikiak

Nafarroan 2003koa da ostalaritza saltokiak ixteko ordutegiei buruzko araua. Kasu honetan, kafetegi eta jatetxeek 01:30ean dute ixteko ordua, taberna eta pubek 03:30ean eta dantzaleku eta festa aretoek 06:00etan.

Bezeroek gehienez 30 minutu dituzte aretoa husteko, eta bitarte

8.500 biztanle baino gutxiagoko herrietako tabernek geroago itxi dezakete Nafarroan

horretan ezin dute edaririk saldu. Musika kenduta izan behar dute, eta argiak piztuta. Gainera, ezin da bezerorik sartu.

Salbuespenak ondorengoak dira: bidaiarien zerbitzurako saltokiak —gasolindegia, tren eta autobus geltokiak, autobideetako ordainlekuak— eta gauean lan egiten duten beharginei zerbitzua eskaintzen dietenak. Kasu horretan, foru gobernuak eskumena du ordutegi berezi bat jartzeko. Bestalde, herriko jaietan, Aste Santuan eta Gabonetan or-


dutegi bereziak dituzte tabernek, dantzalekuek eta jatetxeek.

Nahiz eta azken urteetan eten gabeak izan diren ostalarien eskariak ordutegiak luzatzeko, Nafarroako Gobernuak ez du horren inguruan neuririk hartu.

Dekretuan egindako aldaketa bakarra iazkoa da. Hala, 8.500 biztanle baino gutxiagoko herrietako tabernei aukera ematen zaie ordubete geroago ixteko. Beti ere, herri horietan ez badago dantzaleku edo festarako aretorik.

Iaz arte gehienez 7.500 biztanle zituzten herriek zuten horretarako aukera. Baina ordutik hainbat herri —Altsasu, Berriozar eta Corella, besteak beste— eskaria egin zioten Nafarroako Gobernuari arau hori aldatzeko. Izan ere, dekretua onartu zenetik 7.500 biztanleko muga gainditu dute.

Dekretu horren bidez herri txikitako tabernei bultzada bat eman nahi diote. Bestalde, herri horietako biztanleek goizaldean beste herri batzuetara joatea saihestu nahi dute. Izan ere, kasu gehienetan autoa hartu behar izaten dute. Neurriarekin, ibilgailua ez hartu eta istripuak izateko arriskua gutxitu nahi dute. Ikusteke dago foru gobernuak berriz dekretua aldatzen ote duen.



Kirola >



Fernando Llorente, lurtean etzanda, herenegun, partida amaitu berritan; lehertuta amaitu zuen partida errioxarrak, baina erabakigarria izan zen haren ekarpena. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Lehoi nagusia esnatu da

Llorente erabakigarria izan zen herenegungo euskal derbian, bi gol sartzeaz gain erreferentzia izan zelako erasoko jokoa

Aurrelariak pisu txikiagoa dauka jokoa Bielsarekin, Caparrosekin baino

Haritz Gallastegi Bilbo

«Eskerrak eman gura dizkizuet baloia sarera joan gura ez zuenan animatzen ninduzuen guztioi. Gaurkoa gozatzeko eguna da», idatzi zuen Fernando Llorentek Twitter bidez euskal derbia amaitu berritan. Leher eginda utzi zuen Anoeta Athleticen aurrelariak. Nekatuta oso. Baina, era berean, irribarre handi batekin. Galduak protagonismoa berreskuratu duenaren pozarekin, hain zuzen ere. Llorente izan baitzen derbiko izar nagusia. Bi gol sartu zituen. Oso onak biak. Kalitate handikoak. Eta bere golei esker eskuratu zuen Athleticen Espainiako Liga hasi zenetik lortu ezinik zebilen garaipena.

Lasaitu ikaragarria hartu zuten zuri-gorriek. Eta baita Rincon del Sotoko (Errioxa, Espainia) futbolariak ere. Beste edozein momentutan Llorente izan zela onena entzutea edo irakurtzea normaltasunaren barruan egongo

zen. Jakina baita ligako aurrelari onentsuenen artean dagoela. Baina, futboleko beste arlo askotan bezala, egunero dago balioa erakutsi beharra. Iraganak ez du ezertarako balio. Eta Llorente bere mailatik urrun egon da saioaren hasieran.

Hilabete gutxian asko aldatu dira gauzak. Izarrak dauden oholtzara ailegatzen lagundu dioten faktore garrantzitsuenak falta zaizkio egun. Bere dohainetan sinetsi zuen entrenatzailea ez da zuzentzen ari talde zuri-gorria. Ernesto Valverde debuta egiteko aukera eman zionetik, Joaquín Caparros izan zen bere aldeko apustu garbia egin zuen teknikari bakarra. Konfiantza barik zegoen jokalaritari bere buruan sinesteko behar zuen denbora eta partida kopurua eman zizkion. Orduetik zer gertatu den jakina da. Estatistikek Athleticen historian sartuko dela erakusten dute. 87 gol sartu ditu elastiko zuri-gorriarekin jokatu dituen 253 partidetan.

Bestalde, zenbakiak erakusten ez dutena dago: Llorentek Athleticen jokoa duen garrantzia. Zuri-gorrien jokoa Llorenteren dohainak aprobetxatzera bideratua egon da azken urteotan. Baina denboraldion aldatu egin dira gauzak. Marcelo Bielsak aldatu egin du taldearen jokatzeko era. Egun ardurak banatuta daude. Athleticen jokoa lehen baino landuagoa da. Futbolari gehiagok hartzen dute parte erasoko jokoa. Luze jokatzeko ez da lehen au-

Lasaitu ikaragarria hartu dute zuri-gorriek, eta baita Fernando Llorentek berak ere

Gaizka Toquero ondoan ez egoteak ez dio mesederik egin orain arte aurrelariari

kera. Horregatik daukate lehen baino pisu handiagoa Susaetak, Muniainek, De Marcosek eta Iturraspek.

Aipatu jokalariek pisua hartu duten neurri beretsuan egin du behera Llorenteren ekarpenak. Neurri handi batean, erdiko aurrelariaren atzetik jokatzen duten futbolarien esku egongo da erdiko aurrelariaren arrakasta

etorkizunean. Euren lana izango da errioxarrari errematerako aukera onak eskaintzea.

Bere dohainak azalertzeko jokatzeko era egokia zenaren falta sumatzeaz gain —aditu askok usate du oraingo jokatzeko erarekin gehiago gozatuko duela—, Gaizka Toquero ondoan ez egoteak ere ez dio mesederik egin. Azken denboraldi bietan oso ondo moldatu dira elkarrekin. Jokalari bati falta zaiona dauka besteak, eta alderantziz. Llorente talentu handiko futbolaria da. Gol sena dauka. Bizkarrez jokatzeko du gustuko. Asko mugitu barik. Eta ez da oso langilea. Ezaugarri horiek dituen futbolari bat nabarmendu ahal izateko, langile amorratu nekaezin bat behar du inguruan.

Eta behar hori egiteko ardura izan du Toquerok. Egun Llorenteri berari egokitzen zaio gauza biak egitea, lehendakariak ez baitu lekurik hamaikakóan. Lehen minututik defentsan lan handia egiteko eskatzen die entrenatzaileak jokalariei. Guztiek presionatu behar dute, eta, era berean, jokalari guztiek dute sormenean laguntzeko ardura. Lan zikina baina beharrezkoa den horretan sekula baino gehiago ari da agertzen aurrelaria. Baliteke horrek ere eragina izatea aurrean eraginkortasuna izateko orduan, nekeak itsutu egiten baitu jokalaria.

Denboraldia hasi zenean jokalariek esandakoa gogoratzea komeni da: «Fisikoki ez nago ondo». Badirudi motorra puntuan jartzeko ari dela Llorente. Derbian ez zuen beste inoren laguntza handirik behar izan goi mailako futbolaria dela erakusteko. Bi goletan bikain amaitu zuen jokaldia. Baina sartu zituen golak bezain garrantzitsua izan zen partidaren zehar egin zuen lana. Asko hartu zuen parte talde jokoa, eta Realeko atzelariak baino gehiago izan zen. «Taldea gidatu du bere futbolarekin eta ahaleginarekin», adierazi zuen Bielsak.

Kontratua luzatu nahian

Ume jator aurpegia duen piztia agertu da. Giharrak puntuan jartzeko ari da Llorente. Eta gorpuzarekin batera burua bere lekuan edukitzea garrantzitsua izango da aurrerantzean, jakina baita talde zuri-gorriarekin kontratua luzatzeko negoziatzen ari dela jokalaria. Ez da izango bide erraza. Batek baino gehiagok iritzi dio Athletic ez dela iritsiko jokalariek eskatzen duen kopuruetara. Eta horrek beste leku batzuetara begira jar lezake jokalaria. Bai Llorenteren onerako bai Athleticen mesederako, kontu horiek eraginik ez izatea litzateke onena. Bestela, bi aldeek galduko lukete asko.

24» Oiana Blanco: «Badakit Olinpiar Jokoetara iritsiko naizela horrela jarraituz gero»

25» Asteburu honetan jokatuko dira Munduko Errugbi Kopako final-laurdenetako partidak

Aulkitik begira

Aitor Manterola



Astelehen tristeak

Athletic edo Real. Aurreko denboraldia amaitu berritan, Real entrenatzaile bila ari zenean, Marcelo Bielsa fitxatzekotan egon zen. Azkenean ez zen ausartu Realera etortzen. Gero, handik pixka batera, Josu Urrutiari baiezkua eman zion, Athleticen hauteskundeak izan aurretik. Realari ezetz esan zion, Athleticici bai. Erabaki horren oinarrian zerbait dago, eta Kike Marin kirol kazetari donostiarrak honela azaltzen du: «Bielsak ezetz esan zion Realari, haren ustez, astelehen gehiegi izaten direlako tristeak Donostian». Atzokoa tristea izan zen oso Gipuzkoa aldean. Guztiz alai, berriz, Bizkaian.

Galtzeko beldurra. Itsusia izan zen derbia. Makala. Bi taldeen jokatzeko eredu balaioaren jabetzan oinarritzen delako, ikuskizun polita espero zen. Partida irekia ikusteko aukerak zeuden; batez ere, Athleticcek jokalariek askorekin jotzen duelako erasora, atzealdean zuloak utziz. Baina uste guztiak erdia ustel izan ziren. Biek galtzeko beldur latza izan zutelako. Jokatzeko eredu ia erabat aldatzeraino. Bi taldeek aurreko bost partidetan baino gehiagotan erabili zuten joko zuzena. Lekua galtzeko arriskua uxatu nahian. Bi taldeek asko atzeratu zituzten lerroak, ia-ia bakoitzaren eremu handiraino.

Baloia ibili edo jokalaria ibili. Bien jokatzeko eredu a une txiki batzuetan baino ez zen azaldu Anoetan. Eta biena baloia jabetzan oinarritzen bada ere, izan zen alderik. Athleticcek baloia paseen bidez gorde zuenean, eta aurrerantz jo, baloia egiten zuten lasterka, eta ez jokalariek. Baloia oinetan zuten jokalariek ez zuten hiru aldiz jarraian ukitzen baloia; lehen edo bigarren ukituan ematen zuten pasea. Horretarako, jokalariek espazio libreak bete behar dituzte, etengabe sortu eta bete ibiliz. Realekoek baloia jabetza izan zutenean, aldiz, kosta egiten zitzaizkien lagunari pasea ematea. Baloia lasterka egin beharrean, jokalariek aritu ziren korrika, baloia eraman eta eraman. Behin eta berriz Athleticen hormaren kontra jotzen zuten. Eta horma jarri gabe zutenean, makina bat aukera on galdu zuten Realak espazio hutsak baliatzeko, baloia eraman eta eraman, astia ematen zuelako Athleticcekoei lerroak atzeratzeko eta ondo kokatzeko.

Igandean eguzkiak majo berotzen zuten zelaia. Orduetegi zelebren hori Asian liga ikusteko jarri omen dute. Ez dakit ikusiko zuten, baina, ikusi bazuten, berehala aspertuko ziren

Indartsu eta bigun. Derbieten beste edozein partidetan baino grina handiagoarekin aritzen dira jokalariek. Igandean, baina, grina zuri-gorria izan zen. Baloia lortzeko buruz buruko talka horietan, ia beti Athleticcek irabazi zuten. Bigun aritu zen Real, derbieten eta gainerako partida guztietan aritu behar ez den bezala. Ez zuten azaldu etxean ari zela. Baietz Athleticcek grina indartsu hori atera San Mameseko derbian. Lagun batek esango lidakeen bezala: «Errazagoa da Athleticcek Anoetan irabaztea Realak San Mamesen baino».

Hala ere... Kontuak kontu, eta Athletic hobe izan bazen ere, Realak derbia irabazteko aukerak izan zituen. Bigarren zatiko lehen minutuetan, jan egin zion lekua aurkariari. Presioa zentraleri eginez, goian lapurtzen zuten baloia, eta eroso aritu zen orduan. Berdindu egin zuten derbia, eta bi aukera eder ia gauzatu ere bai. Gauza gutxi eginda, minutu apur batzuetan ondo jokatuta, partida iraultzeko zorian egon zen. Futbolak ez dauka logikarik. Kontu txikien mende dago emaitza.

Igande eguerdietan, ez. Ez zen giro futboleko jokatze. Eguzkiak majo berotzen zuten zelaia. Orduetegi zelebren hori Asian liga ikusteko jarri omen dute. Ez dakit ikusiko duten ala ez, baina, ikusten jarren badira, berehala aspertuko dira. Oso zaila da baldintza horietan partida onak ikustea. Udan eta udazken hasiera beroetan, ia ezinezkoa. Futbolari kalte baino ez dio egiten, baina jakina da neurri hori hartu zutenei piperririk ere ez zaiela axola futbola. Txin-txin, txin-txin... Txinako diruaren hotsa. Igande eguerdiak oso tristeak izaten ari dira lehen jardunaldi hauetan. Astelehen tristeak mugituz doaz talde batek bestera, baina igande eguerdi tristen kontua ez da mugitzen.

Irudia Donostia



54 METROKO JAURTIKETA APARTA

Lehen taldera jauzia, debuta, hamaikakoan tokia eta lehen gola. Oso bizkor ari da igotzen Iñigo Martinez, Realeko atzelaria. Igandean jokatutako lehenengoz Athleticen aurka, eta gol ikusgarria sartu zuten —irudian, Realeko jokalariek, ospatzen—.

Gorka Iraizoz atezaina aurreratuta zegoela ikusi, eta, bi aldiz pentsatu gabe, bere zelatik bertatik jaurti zuten baloia. 54 metro denera. Modu sinetsu gaitz horretan lortu zuten Realak berdintzea, nahiz eta berehala jaso zuten 1-2koa. JON URBE / ARGAZKI PRESS

↓ Saikapena

LEHEN MAILA

7. jardunaldia

Osasuna-Mallorca	2-2
Vila-real-Zaragoza	2-2
Racing-Rayo Vallecano	1-1
Valentzia-Granada	1-0
Malaga-Getafe	3-2
Real-Athletic	1-2
Betis-Levante	0-1
Atletico Madril-Sevilla	0-0
Sporting-Bartzelona	0-1
Espanyol-R. Madril	0-4

Saikapena

	Puntuak	J	I	B	G
1. Bartzelona	14	6	4	2	0
2. Levante	14	6	4	2	0
3. Real Madril	13	6	4	1	1
4. Malaga	13	6	4	1	1
5. Valentzia	13	6	4	1	1
6. Sevilla	12	6	3	3	0
7. Betis	12	6	4	0	2
8. Atletico Madril	8	6	2	2	2
9. Real	7	6	2	1	3
10. Mallorca	7	6	2	1	3
11. Osasuna	7	6	1	4	1
12. Vila-real	6	6	1	3	2
13. Rayo Vallecano	6	6	1	3	2
14. Zaragoza	6	6	1	3	2
15. Espanyol	6	6	2	0	4
16. Athletic	5	6	1	2	3
17. Getafe	4	6	1	1	4
18. Racing	4	6	0	4	2
19. Granada	4	6	1	1	4
20. Sporting	1	6	0	1	5

■ Txapelkunen Ligara ■ Europako Ligara ■ Bigarren Mailara

8. jardunaldia (urriak 15-16-17)

Larunbata	Ordua
Real Madril-Betis	18:00
Mallorca-Valentzia	18:00
Getafe-Vila-real	18:00
Bartzelona-Racing	20:00
Granada-Atletico Madril	22:00
Igandea	Ordua
Rayo Vallecano-Espanyol	12:00
Zaragoza-Real	16:00
Levante-Malaga	18:00
Sevilla-Sporting	22:00
Astelehena	Ordua
Athletic-Osasuna	21:00

→ Laburrak



Nekunam, larunbatean. L.F.A. / ARP

Nekunam eta Raitala selekzioekin joan dira

OSASUNA Javad Nekunam eta Jukka Raitala euren selekzioetara joan dira, eta hurrengo astera arte ez dira itzuliko Iruñera. Nekunam Palestinaren aurkako lagunartekoa jokatuko du bihar Irango selekzioarekin, eta hilaren 11n Bahrainen aurka ariko da, Brasilgo Munduko Koparako baliagarria izango den partidari. Raitalak, berriz, Suediaren aurka jokatuko du bihar Finlandiarekin, eta Hungariaren aurka hilaren 11n. Gainerako jokalariek gaur itzuliko dira lanera, bi eguneko atsedenen ondoren. Larunbatera arte egunero edukiko dute entrenamendua.

Urriaren 23an jokatuko dute hiru euskal taldeek

LEHEN MAILA Espainiako Futbol Liga Profesionalak atzo arratsaldean jakinarazi zituen Lehen Mailako bederatzigarren jardunaldiko ordutegiak, eta hiru euskal taldeek igandean jokatuko dituzte euren partidak, urriaren 23an. Realak Getaferen aurka jokatuko du, Anoetan, 16:00etan; Osasunak bi ordu geroago ekingo dio Zaragozaren aurkako partidari, Nafarroako Erresuman; eta Athleticcek 20:00etan jokatuko du Valentziaren zelaian.

Javi Martinezek ez dauka hausturarik bularraldean

ATHLETIC Javi Martinezek zelaia utzi behar izan zuten herenegun, Realaren aurkako partidari, bularraldean hartutako kolpe baten ondorioz. Zuzenean ospitalera eraman zuten nafarra, baina berehala argitu zuten zuri-gorriak ez daukala hausturarik. Egin beharreko probak eginda, etxean dago jada.

Lagunak-ek 3-1 irabazi du, eta Realak 2-1 galdu

LEHEN MAILA Lagunak-ek arnas pixka bat hartu zuten herenegun, El Olivori 3-1 irabazita. Denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten nafarrek, eta 13. posturaino igo dira saikapenean. Realak, berriz, 2-1 galdu zuten Espanyolen zelaian, eta 7. postuan daude gipuzkoarrak.

Eguneroko ogia, berria

Hasi eguna **berriarekin**, egin harpidedun eta jaso ogia egiteko makina hau

OPARI



EZAUGARRIAK:

- Oragailu hagaxkaduna: 2
- Display led handia
- BERO MANTENTZEKO: ordubete
- Potentzia (W): 1.300
- Barraren tamaina: 750/1.000/1.350
- Tapa hagaxkadun desmuntagarria
- Timer programagarria: 13

Harpidedun izateak beti du saria,
zu zara berria



BERRIaren harpidedunen artean,
urriaren 21ean,
kafe makina hau zotz egingo dugu,
Fagor Etxetresnen eskutik.

FAGOR 

Harremanetarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**^{Info}



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Oiana Blanco • Judoka

Olinpiar Jokoetan sartzeko aurrerapauso handia eman zuen duela bi aste, Kazakhstango Munduko Kopako proban sasoiko hirugarren urrezko domina lortuta. Asteburu honetan Abu Dhabin lehiatuko da.

«Olinpiar Jokoak eskura dudan amets bat dira»

Xabier Larrañaga Donostia

Oiana Blanco (Orio, Gipuzkoa, 1983) buru-belarri dabil asteburu honetan Abu Dhabin jokatu duen sari nagusia prestatzen. Astero hiru egunez entrenatzen da Usurbilgo kiroldegian, eta, epe motzeko helburuak ez ezik, hurrengo urteko Londresko Olinpiar Jokoak ere begiz jota ditu.

Denboraldi hasiera ona egin duzu, Munduko Kopako hiru proba irabazita. Nola ikusi duzu zeure burua?

Oso gustura nago. Txapelketetan, orain arte, lasai aritu naiz, eta gauzak ondo ateratzen ari dira. Eginiko lanak ematen duen konfiantza dut, eta txapelketa guztietan gustura gelditu naiz eginiko lanarekin, nahiz eta emaitzak beti ez diren lagun izan.

Azken urreak Parisko Munduko Txapelketan jasotako kolpea arintzeko balio izan al dizu?

Kolpea ez zen hain handia izan. Latzena domina gabe itzultzea izan zen. Denboraldiko probarik garrantzitsuena zen, eta han emaitza ona ez lortzea pena da, baina uste dut lan ona egin nuela. Ni gustura aritu nintzen, eta orain ikusi da sasoi onean nagoela. Baina beti ezin da irabazi, ezta domina lortu ere.

Orain Olinpiar Jokoetarako sailkatzea da helburua?

Kirolari batentzat Olinpiar Jokoetan parte hartzea gerta dakiokeen gauzarik handiena da. Gaur egun, han aritzea, ametsa baino gehiago, nire esku dagoen zerbait dela ikusten dut, hortxe baitaude. Badakit horrela jarraituz gero lehenago edo geroago iritsiko dela eguna Olinpiar Jokoetan lehiatzekoa. Maiatzera arte denbora dago oraindik, baina gogotsu eta ilusioz gainezka nago; nire ustez, hori da garrantzitsuena.

Azken Olinpiar Jokoetan euskal judokaren bat egon da beti. Hurrengo zu izatea espero duzu?

Ni eta beste norbait ere han egotea espero dut. Egia esan, hori lortu nahi dut, eta horretarako borrokatuko naiz. Kontuan izango dut errealitate bat dela eta nire esku dagoela. Horrek ilusioa sortzen dit.

Londres... Ez al da gainkarga hainbeste zentratzea helburu horretan?

Egia da azken urteetan Londresko helburua beti izan dudala. Txapelketen atarian beti dut puntuak lortzearen presioa, baina lehiatzeko egunean ez, dena ahazten dut, eta ez dut horretan pentsatzen. Ahalik eta lan onena egiten saiatzen naiz, borroka borroka pentsatzen, eta ez dominetan. Horrela, etor daitezkeen ondorioetan pentsatzea saihesten dut.

Eta orain zer?

Maiatzera arte denbora luzea geratzen da, orduan amaituko da denboraldia. Asteburu honetan Abu Dhabin lehiatuko naiz. Han ahalik eta puntu gehien lortzea espero dut.

Gastu eta bidaietarako diru laguntza nahikoak badaude?

Orain arteko bidaia guztiak Espainiako Federazioarekin egin ditut, eta hura arduratu da. Egun badugu aukera gure kabuz bidaiatzeko zenbait txapelketetara, baina zaila da, judoan babesleak izatea oso zaila delako. Orain arte Kirolgi izan dut babesle, eta orain, BAT Basque Team. Horiek dira nik ditudan laguntza baka-rrak. Baina, oro har, zaila da edozein enpresa judoan sartzeta.

Eta entrenamenduak? Nola planifikatzen dituzu?

Ni klubean entrenatzen naiz, eta bertan jendea lanean eta entrenatzen aritzen da. Nirekin alderatuta, denbora gutxiago eskaintzen diote, baina normala da, ni erabat murgilduta bainago judoan. Fisikoki asko zaintzen dut neure burua, txapelketek ahalegin handia eskatzen baitute. Eta judorako garaian, beti dago klubeko jende hori laguntzeko prest. Kirol honetan jende gutxi aritzen garenez, erraztasun handiagoa dago elkar laguntzeko, borroka lana ezinbestekoa delako.

Munduko Kopako final-laurdenetako partidak iragan asteburuan zehaztu zituzten, eta ziurra da hemisferio bakoitzeko talde bana ariko dela finalean. Kanporaketak larunbatean hasiko dira

Munduko Kopa, iparra galduta

Eneritz Zabaleta Baiona

Pixkanaka, Munduko errugbi Kopa bidea egiten ari da. Aucklandetik Wellingtonera (Zeelanda Berria), hamaika partida jokatu dira, eta hasierako ligaxkako fasea iragan igandean bururatu da. Dagoeneko final-laurdenak erabakita daude. Asteburu honetan jokatu dira lau partidak, eta txapelketa abiadura hartzen hasiko da, urriaren 23ko finalean arte.

Final-laurdenetako parekaketek txapelketak hasieratik sortutako sentsazioa berresten dute. Munduko Kopa hainbat ezusteren agertokia izan da, eta partida erabakigarriak iritsi aurretik, txapelketa nolabait iparra galduta dagoela dirudi. Final-laurdenen taula horren adierazle da. Taularen goiko zatia Sei Nazioen bertsio txiki bat izanen da, lehen fasean erori diren Italia eta Eskozia salbu, Europako selekzio guztiak bertan egonen direlako. Alderantziz, azpiko partea hego hemisferioko txapelketa bat izanen da, Argentina, Zeelanda Berria, Australia eta Hegoafrikarekin.

Gidoi hau ez zen hastapeneko pronostikoetan sartzen, eta Irlandak Australiari irabazitako partidandak dauka azalpena. C multzoan lehen postuan bukatzeko faborittoa Australia zen. Irlandaren aurka, baina, *wallabyak* galtzaile izan ziren (6-15). Ondorioz, Australiaren ordezkariak bukatu zuen multzoko taldeburu. Beste faboritoez, berriz, ez zuten hutsik


egin: A multzoan Zeelanda Berria sailkatu zen lehen postuan, B multzoan Ingalaterra, eta D multzoan Hegoafrika.

Irlandaren lorpenari esker, txapela janzteko hiru hautagai nagusiak —Australia, Hegoafrika eta Zeelanda Berria— euren artean gurutzatuko dira finalean iristeko galbahean. Alderantziz, europarrak finalean leku bat segurtatuta dute, eta Munduko Kopa irabazteko aukera ederra daukate.

Frantziaren ezina

Parekatzeen ezuste horren oinarrian Irlanda egon bada ere, orain arte ikusitakoaren arabera, ipar hemisferioa galduta sentitu da. Horren adierazle garbiena da Frantziako selekzioa. Lehiaketa hasi baino lehen ezustea emateko hautagaia zen. Orain arte izan duen ibilbidea, baina, bere historiako txarrena izan da. Japoniari eta Kanadari irudimenik gabe irabazi zion lehenik. Zeelanda Berriak lezioa eman zion gero (37-17), eta asteburu honetan sekulako bizkarrekoa jaso zuen Tonga uharteen aurka (19-15). Frantzia da Munduko Kopako historian bi partida galdu eta gero final-laurdenetarako sailkatu den selekzio bakarra. Lehen aldia da baita ere Tonga uharteek errugbian Frantzia garaitzen dutena. Lorpen handia, 120.000 biztanle eskas eta jokalarik batzuk Frantziako ligako laugarren eta bosgarren mailan dauzkan nazio batentzat.

Marc Lievreumont hautatzaileak hamaika aldaketa egin ditu hasierako hamabostekoan, jokala-



Irlandako Rob Kearney eta Donncha O'Callaghan elkar besarkatzen, Australiari irabazi ondoren. KIM LUDBROOK / EFE

rien aurka adierazpen gogorrak egin ditu, kazetariekin publikoki haserretu da... Jokalariak ere behin eta berriz burumakur ikusi dira, baloiarekin zer egin jakin gabe, beldurti. Larunbatean Ingalaterra arerio historikoaren aurka jokatu aurretik, noraezean dago oilarraren selekzioa.

Ingalaterra bera ere iparrorratz gabe nabari da. Berdegune-

an gauzak ongi doaz, partida guztiak irabazi baititu arrosaren hamabostekoak. Zelatik kanpo zentzua galdu dute ingelesek, ordea. Mike Tindall, selekzioeko kapitaina eta Ingalaterrako erreginarenean ilobaren senarra, Zeelanda Berriaren beste emazte batekin harpatu dute, ezkondu eta hilabetera. James Haskell hirugarren leerroa eskandalu baten erdian

dago, halaber. Haskellek selekzioaren hoteleko emazte langile bat bidez grabatu zuen, buruz behe-ekintza sexual bat egiteko eskatuz, hego hemisferioan egotearen inguruko txiste penagarria eginez. Martin Johnson hautatzaileak publikoki barkamena eskatu behar izan du, eta Haskellen aurka salaketa jarrita dago.

Iparra galdu duen azken taldea Zeelanda Berria da. Kopa irabazteko hautagai nagusia da, eta orain arte itxura bikaina eman du. Daniel Carter taldeko irekiztzaileak min hartu du, ordea, eta askoren ustez munduko jokalaria onena dena ezingo da gehiago zelaiari ikusi. Zeelanda Berriak patroiari gabe irabazi beharko du txapela. Berri txarra da *All Blacks*-entzat, Graham Henry hautatzaileak Luke McAlister Carterren ordezkari naturala etxean utzi zuelako Tolosarekin fitxatu izana zigortzeko. Mc Alister gabe, goi mailan esperientziarik ez duen Colins Sladek edo usaian uztartze erdia den Piri Weepuk aritu beharko dute, eta etxekoan jokoaren iparra markatu.

↓ Munduko Errugbi Kopako kanporaketak

Final-laurdenak

Wellington
Urriak 8 (08:00)

Irlanda - Gales

Auckland
Urriak 8 (10:30)

Ingalaterra - Frantzia

Wellington
Urriak 9 (08:00)

Hegoafrika - Australia

Auckland
Urriak 9 (10:30)

Zeelanda Berria - Argentina

Finalerdiak

Auckland
Urriak 15 (11:00)

Auckland
Urriak 16 (11:00)

Finala

Auckland
Urriak 23 (11:00)

3. - 4. postuak

Auckland
Urriak 21 (10:30)

Orozkoko Udala

IRAGARKIA

2011ko irailaren 27ko alkatetza-dekretu bidez hasierako onarpena emon jako "Zubiaur Alderdian indarrean dagoan plangintzako lerrokadura batzuen zuzenketa" izeneko xehetasun-azterketari. Berau IDOM enpresak idatzi dau, Galletas Artiach, S.A.U enpresaren eskariz.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratzen dan egunetik zenbatuta 20 eguneko epe bat zabalitzen da; guzti hau, espedienteaz aztertzeko eta behar bada, alegazioak aurkeztuteko.

Orozkon, 2011ko irailaren 29an.

Alkatea

euskarazbizi!

ASTE BETEKO EGONALDIA
ETA BIDAIA 2 LAGUNTZAT
ESKOZIAN

Zozketa notario aurrean egingo da urriaren 3an. Sariduna urriaren 4ko Berria egunkarian eta www.euskalherrianeuskaraz.org webgunean argitaratuko da.

Saridun Zkia: 13.560

KULTOUR | euro | euskal herriean euskaraz

1l. = 0'0015€

Iturriko litro bat urek 0,0015€ balio du, eta prezioaren barnean daude uraren arazketa, etxeetara garraioa eta ur zikinak jaso eta garbitzea.

Uraren Telefona
902 30 22 22
Teléfono del Agua

Gros xake taldea klubaren arteko Europako Txapelketan aritu da, Eslovenian, eta lehen bost tauletan goian ibili da. Presioak eraginda, 28. amaitu du azkenean, baina esperientzia ona izan da.

Espero zena ez, baina polita

Josu Tornay Donostia

Beti nahi izaten da gehiago, eta Gros xake taldea ere oso gora begira jarri zen Eslovenian, klubaren arteko Europako Txapelketan. Baina 28. postuarekin etsi behar izan zuen azkenean, azken bi tauletan, presioa tarteko, huts egin ondoren. Irailaren 23tik urriaren 2ra artean jokatu berri da klubaren arteko Europako Txapelketa. Beste urte batzuetan bezala, Europa ekialdeko taldeak ziren txapelketa irabazteko faborito nagusiak. Batez ere, Azerbaijango SOCAR eta Errusiako SHSM, Ekonomist eta San Petersburgoko taldeak. Hala ere, Baden Baden Alemaniako taldea bosgarrena zen faboritoren artean. Gros, berriz, 62 taldeen artean 13.a zen. Dena den, donostiarrek eskarmentu handia daukate torneo horretan, eta hamar onenen artean sartzeko itxaroparekin hasi zuten lehia.

Talde ahaltzu batekin joan zen Gros Esloveniara: Loek Van Wely herbeheretarra, Christian Bauer frantziarra, Hicham Hamduti marokoarra, Alex Franco espainiarra eta Santi Gonzalez, Iñigo Argandoña eta Iñigo Martin euskal jokalariek. Hiru Maisu Handi, hiru Nazioarteko Maisu eta Maisu FIDE bat. Berme handiko jokalariek dira Van Wely, Bauer eta Hamduti, eta euskal herritarren esku zegoen atzeko tauletan puntuak pilatzeko lana.



Gros xake taldeko jokalariek, Europako Txapelketan. GROS XAKE TALDEA

Torneoa ez zen gaizki hasi. Marseillaren aurka 3-3 berdindu zuten donostiarrek, eta emaitza ona da hori, kontuan izanda Frantziako txapeldunek profesionalen osatutako taldea daukatela. Hala ere, bigarren txandan donostiarrek 4-2 galdu zuten Esloveniako Tehcentger Ptujen aurka. Argandoñak irabazi egin zuen bere partida, baina Francok, Gonzalezek eta Hamduti galdu egin zuten. Van Welyk eta Bauerrek goian lortutako bi berdinketek, beraz, ez zuten ezer askorako balio izan. Hirugarren txandan taldea suspertu egin zen, eta 6-0 jipoitu zuten Ukrainako Shtrafbat. Laugarren txanda garrantzitsua zen goiko postuetan jarraitzeko, eta donostiarrek ondo erantzun zuten berriz ere, 3,5-2,5 Edinburgoko

Xake Talde eskoziarren aurka. Bosgarren txanda iritsi, eta, berriz ere, 6-0eko argia Austriako SK Advisory Invest Badenen kontra. Lan aparta egiten ari ziren Gros xake taldeko jokalariek. 11. postuan kokatu ziren une horretan, eta azken bi txandak bakarrik gertatu ziren.

Loek Van Wely, onenen pare

Orduantxe agertu zen presioa. Taldeko jokalariek gazteenek nabaritu zuten ezintasuna. Seigarren txandan 4-2 galdu zuten Bosna Sarajevoren aurka. Emaitza hori, printzipioz, ez zen arraroa izan, kontuan izanda Bosnia eta Herzeegovinako taldea sendoa zela. Baina azken txandan, artean goiko postuetan sartzeko aukerakin zeudenean, eta sei partidak

oso ondo bideratuta zeuzkatenean, Islandiako Bolungarviken kontra 4,5-1,5 galdu zuten euskal taldekoek. Emaitza horrek 28. posturaino bidali zuen Gros, merezi zuen postutik oso urrun. Edonola ere, donostiarren lehen taula, Loek Van Wely Maisu Handia, Europako Txapelketako onenetako bat izan zen, zazpi partidetan 4,5 puntu aterata. Lehen taulako jokalarien artean herbeheretarra bederatzigarrena izan zen. Bauer 15.a izan zen bigarren taularen artean, eta Hamduti 18.a hirugarren taularen artean. Euskal jokalarien artean Argandoña izan zen onena, zazpi partidetan 4 puntu aterata.

Emaitza espero zena izan ez bazen ere, taldeko euskal jokalariek esperientzia polita bizi izan dute, eta Espainiako Ohorezko Mailako Txapelketarako prestaketa bikaina egin dute. Melillan (Espainia) jokatu da txapelketa hori, azaroaren 20tik 26ra, eta, beste urteetan bezala, faboritoren artean dago Gros.

↓ Sailkapena

KLUBEN EUROPAKO TXAP.

1. San Petersburgo	31,5 puntu
2. SOCAR	31,5 pt.
3. G-Team Novy Bor	31,5 pt.
4. Ekonomist SGSEU Saratov	30,5 pt.
5. SHSM-64	30 pt.
28. Gros	24 pt.

ditan hastea aski izan zuen partida hausteko (21-12). Txapeldunak Landerrek eta Hernandezek jokatu duten partidako irabazlea izango du aurkari finalerdietan.

Buruz burukoaren beste bi final-laurdenak larunbatean jokatu dira, Markinako Uni-an. Lopezek Irastorzaren aurka jokatu du, eta Erkiaga II.ak, Konpa beteranoaren kontra.

↓ Jaialdiak

IGANDEKO EMAITZAK

■ **Etxarri Aranatz.** Ongai 22; Cecilio 7. Xala-Zabaleta 16; Aritz Lasa-Zubieta 22.

■ **Arrosa.** Ibarrola-Kurutxarri 50; Lanbert-Ezkurra II.a 38.

ATZOKO EMAITZAK

■ **Gernika.** Egiguren-Minvielle 30; Olharan-Lopez 30. Goikoetxea 30; Erkiaga 12.

→ Laburrak

Bizkaia Gernikak irabazi egin du hirugarren lehia ere

ERRUGBIA Bizkaia Gernika Ohorezko Mailako sailkapenaren goialdean dago, ligako lehen hiru partidak erraz irabazita —La Vila dago lehen postuan, baina partida bat gehiago jokatu du—. Herenegun Cajasoli irabazi zioten bizkaitarrek, 35-16. Marvin Swartboi hegoafrikarraren lanari esker menderatu zuen Gernikak aurkaria, berak lortu zituelako gernikarren 35 puntuetatik 30.

Anaitasunak 27-28 galdu du Torrevellaren aurka

ESKUBALDIA Esnatu ziren iruindarrak, baina beranduegi. Anaitasunak 27-28 galdu zuen herenegun Torrevellaren aurka, eta sailkapen nagusian behera egin dute nafarrek. 13. postuan daude orain, bi punturekin. Anaitasuna 11-14 iritsi zen atsedendira, eta bigarren zatian 14-22 ere joan zen atzetik. Azken uneko susperraldia ez zen nahikoa izan, ordea.

Sasoiko hirugarren proba irabazi du Dani Pedrosak

MOTOZIKLISMOA Dani Pedrosak (Honda) irabazi zuen herenegun Japoniako Sari Nagusia, Moto GP mailan, Jorge Lorenzoren (Yamaha) aurretik. Moto 2n Andrea Iannone (Suter) izan zen azkarrena, eta Marc Marquez (Suter) dago orain buruan. 125 cc-ko mailan, azkenik, Johann Zarco (Derbi) irabazi zuen proba, eta Efen Vazquez erretiratu egin zen.

Nafarroako finaletik kanpo geratu da Floren Nazabal

AIZKORA Juanjo Lopez, Jon Rekondo, Donato Larretxea, Antonio Senosiain eta Ander Erasun. Boskote hori sailkatu zen herenegun Nafarroako Txapelketako finalerako. Floren Nazabal ez da han izango, ostiralean min hartu zuelako hankan. Azaroaren 18an izango da finala, Donezteben, 17:30ean.

Garcia: «Beharrezkoa den maila ematea espero dut»

TXIRRINDULARITZA Ricardo Garcia gasteiztarrek datorren denboraldian egingo du debuta profesionalean, Euskaltel-Euskadirekin. «Beharrezkoa den maila ematea eta hutsik ez egitea» espero duela azaldu zuen atzo txirrindulariak. 23 urte dauka Garciak, eta Orbean ari da denboraldi honetan, hirugarren urtez jarraian.

Lau t'erdiko Asegarceren lehen bi partidak Iruñean jokatu dira

Berasaluzer VIII.a Arretxe II.aren aurka ariko da larunbatean, Labriten, eta Olaetxea, Ruizen kontra

Erredakzioa Donostia

Lau t'erdiko txapelketako lehen kanporaketako partida guztiak non eta noiz jokatu ziren zehaztuta dago dagoeneko. Asegarcerenak falta ziren, eta biak Iruñean jokatu dira, larunbatean. Jaialdiko estelarrean Patxi Ruizek eta Mikel Olaetxeak neurtuko dituzte indarrak; jaialdiko hirugarren partidari, berriz, Iker Arretxek Pablo Berasaluzeren kontra jokatu du. Jaialdia osatzeko. Iñaki Izak eta Iker Taintak 2. Mailako

txapelketako partida jokatu dute. Pilotak bihar aukeratuko dituzte (11:30), eta sarrerek 30, 20 eta 15 euro balioko dute.

Aspeko partidak aurretik ziren ezagunak. Ostiralean, Antzuolan (22:15), Aritz Lasak eta Mikel Urrutikoetxeak jokatu dute. Jaialdi berean Aitor Mendizabalek —Antzuolako semea da— Jose Javier Zabaletarekin neurtuko ditu indarrak, 2. Mailakoan. Lau t'erdikoaren lehen kanporaketako azken partida Eibarren jokatu da, Mikel Idoate eta Ekaitz Saralegiren artean. Jaialdi berean 2. Mailako txapelketako beste bi antolatuko dituzte: Miguel Merino Mikel Olazabalen kontra lehenbizi, eta Gorka Esteban Jon Jaunaren aurka gero. Aspekoek etzi aukeratuko dituzte pilotak.

Asteburuan Bigarren Mailako

txapelketako beste partida bat jokatu da, ostiralean, Nairan (Errioxa). Jokin Argote eta Aberto Untoria ariko dira. Bi mailetak partidetak irabazleek hurrengo astean jokatu dituzte bigarren kanporaketak.

Goikoetxeak, erraz (30-12)

Iñaki Osa *Goikoetxea*-k partida erraz batekin ekin zion atzo buruz buruko zesta-punta txapelketari, Gernikan. Zumaiarrak txapela bederatzigarren aldiz irabazteko faborito nagusia zergatik den erakutsi zuen Aritz Erkiagaren aurka (30-12). Ispasterko arrerariak belauneko lesio bat pasatu berri du, eta berez Goikoetxeari aurre egitea zaila bada, atzo are zailagoa egin zitzaion.

Hasieran oreka pixka bat egoizten arren (10-6), Goikoetxeak izer-

→ Ekitaldiak

Zure ekitaldia BERRIAN agertzea nahi baduzu: www.berria.info/zerbitzuak/agenda/bidali/

Musika

- **Arrasate.** Atom Rhumba taldearen emanaldia. Ostegunean, 22:00etan, gaztetxean.
- **Bilbo.** Bilbao Hiria 23. Pop-Rock Lehiaketa. Bihar eta etzi, 20:00etan, Bilborock aretoan.
- **Bilbo.** Lim taldearen kontzertua. Gaur, 19:30ean, BBK aretoan.
- **Bilbo.** Alfonso Gomez musikariaren kontzertua. Gaur, 20:00etan, Campos Eliseos antzokian.
- **Bilbo.** Belmóndo Quintet taldeen kontzertua. Ostegunean, 20:00etan, Guggenheim museoan.
- **Bilbo.** Revolver taldearen kontzertua. Ostegunean, 20:00etan, Arriaga antzokian.
- **Bilbo.** Sonic Trash eta Yellow Big Machine taldeen kontzertuak. Ostegunean, 21:30ean, Bilboko Kafe Antzokian.
- **Mungia.** Wormrot eta Maruta taldeen kontzertuak. Ostegunean, 21:00etan, gaztegunen.
- **Tolosa.** Enablers taldearen kontzertua. Ostegunean, 22:00etan, Bonberenean.

Bertsolaritza

- **Agurain.** Bertso saioa: Sebastian Lizaso eta Ekaitz Samaniego. Gaur, 12:00etan, Andramari plazan.
- **Gasteiz.** Bertso saioa: Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Manex Agirre, Arkaitz Estiballes, Julio Soto eta Maialen Lujanbio. Ostegunean, 20:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

Dantza

- **Donostia.** Oroitzen naiz... dantza emanaldia. Gaur, 20:00etan, Donostiako Antzoki Zaharrean.

Erakusketak

- **Bilbo.** *Retrato de John Cage (1912-1992)* erakusketa. Gaur, 20:00etan, BBVA erakusketa aretoan
- **Bilbo.** Arte eta objektu zaharren erakusketa. Gaur, 09:00etan, Alondegian.
- **Bilbo.** Ezinezko objektuak erakusketa. Gaur, 10:00etan, Alondegian.
- **Iruñea.** Itziar Nzabal, Inma Senosiain, Ines Gonzalez, Cesar Sancho eta Javier Costa artisten erakusketa. Gaur, 20:00etan, Orizu Gallery arte galerian.

Hitzaldiak

- **Bilbo.** *Artea XVIII. mendean Bizkaian* hitzaldia, Jose Angel Barrio Loza katedradunaren eskutik. Gaur, 19:00etan, Foru Agiritegiko hitzaldi aretoan.

- **Bilbo.** *¿Es posible recuperar sistemas degradados? El caso de la Ría de Bilbao* hitzaldia. Gaur, 19:30ean, Hika Ateneo aretoan.
- **Bilbo.** *Escritores viajeros* hitzaldia. Gaur, 19:30ean, Bilboko udal liburutegian.
- **Donostia.** *El largo viaje* liburuar buruzko solasaldia. Ostegunean, 19:00etan, Aiete kultur etxean.
- **Etxebarri.** *Lankidetzza Sahararekin. Saharar errefuxiatuen kanpamentua* Echderian hitzaldia. Bihar, 19:30ean, Mugarri gaztetxean.
- **Iruñea.** Euskarazko hitzaldien zikloa: *Euskal Kantu Tradizionala zer den*. Gaur, 19:30ean, Erraldoien Txokoan.
- **Laudio.** Juan Kruz Igerabide idazlearen hitzaldia. Bihar, 18:00etan, udal liburutegian.

Ikus-entzun

- **Santurtzi.** *Winter's bone* filmaren emanaldia. Ostegunean, 18:00etan, Serantes kultur aretoan.
- **Bilbo.** *Poesia* filmaren emanaldia. Gaur, 19:45ean, El Carmen aretoan.
- **Donostia.** *Zeelanda Berria bizikletaz, familia giroan: Kiwizibidaia* filmaren emanaldia. Ostegunean, 19:30etan, udaletxe-ko batzar aretoan.
- **Legazpi.** *Amadeus* filmaren emanaldia. Bihar, 20:30ean, Kultur Etxeko areto nagusian.
- **Tafalla.** *Una mujer en África* filmaren emanaldia. Ostegunean, 20:00etan, kultur etxean.

Bestelakoak

- **Bilbo.** *Euskadi bihotzean* Jose Antonio Ardanzaren saiakera liburuen aurkezpena. Gaur, 10:30ean, Carlton hoteleko aretoan.
- **Bilbo.** 2011ko *Film Sozialak* Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdian sarituta filmaren emanaldia. Gaur, 11:00etan, Bizkaiko Esperientzia Geletan.
- **Bilbo.** Marea taldeak *En mi hambre mando yo* azken diskaaren sinatuko du. Gaur, 17:30ean, Fnac saltokian.
- **Bilbo.** *Y tú ¿con quién estás? Yo, con las mujeres de África* ekimena. Gaur, 19:00etan, Begoñako udalategian.
- **Bilbo.** *Socotra, la isla de los genios* Rosa Regas eta Jordi Estevareman liburuen aurkezpena. Gaur, 19:30ean, Bidebarrieta kulturgunean.
- **Donostia.** *Lau kantari* liburuen aurkezpena. Gaur, 11:00etan, Donostiako udal liburutegi nagusian.
- **Donostia.** *Zwei Frauen* liburuen aurkezpena. Bihar, 11:00etan, Donostiako Elkar aretoan.

«Agenda



Ezkerretik hasita, Philippe Oihanburu, Koldo Zabala eta Jean Nesprias. BERRIA

Iturri zaharreko ur berria

‘Oroitzen naiz...’ emanaldia eskainiko dute gaur arratsaldean Donostiako Antzoki Zaharrean

Mikel Rotaetxe

Zahartzaroaren edertasuna artea liluratzeko gai izan da gizakia gizaki denetik. Margolaritzak, eskultururak, musikak... denek bihurtu nahi izan dituzte zimurak margolan, irudi edo nota. Mixel Theret koreografoak beste hainbeste egin nahi izan du bere

azken ikuskizunean, eta *Oroitzen naiz...* dantza emanaldia sortu du horretarako. Donostiako Antzoki Zaharrean eskainiko dute gaur, 20:00etan.

Ikuskizun horretarako, bizitza osoa dantzari eman dioten hiru adindu bildu ditu agertokian: Jean Nesprias (84 urte), Philippe Oihanburu (90 urte) eta Koldo Zabala (75 urte). «Arteari arima osoa eskaini dioten dantzari batzuk dira», dio Theretek, «eta sugar hori ez da sekula itzaltzen».

Intimismoa da antzezlanak eragin nahi duen sentipen nagusia, eta, horretarako, ahalik eta keinu gutxien egitea erabaki du

zuzendariak. Hala ere, argi utzi nahi izan du bere helburua ez dela omenaldi bat egitea, nostalgiazko mezu bat transmititzea baizik, nórberak eginiko ibilbidearen inguruan gogoeta egiteko.

Ikuskizunaren amaieran solasaldi bat egingo dute koreografoek eta Jon Maia dantzariak, bertaraten direnek nahi bezainbeste galdera egin ditzaten.

‘OROITZEN NAIZ...’ DANTZA EMANALDIA

- **Non.** Donostiako Antzoki Zaharrean.
- **Noiz.** 20:00etan.
- **Sarrera.** 12, 15 eta 20 euro.

Euskal kantagintza hizpide


Euskal Herriko olerki tradizionalen inguruko hitzaldi sorta prestatu du Nafarroako Ateneo elkarteak

M.R.

Beste urtebetez, euskarazko hitzaldi ziklo bat antolatu dute aste honetan Iruñeko Erraldoien Txokoan. Nafarroako Ateneo elkarteak prestatu ditu jardunaldiak, eta Iruñeko Udalaren laguntza izan du. Aurtengoa Euskal Herriko olerkigintzaren inguruko izango da, eta, horretarako, euskal kulturako hainbat ordezkari bost hitzaldi egingo dituzte.

Piter Ansorena izan zen Erraldoien Txokoko agertokira igotzen lehena, atzo arratsaldean, eta euskal musika tradizioak atzeritik jasotako eraginez mintzatu zen ordubetez.

Gaur, Pako Aristi idazle eta musikariaren txanda izango da, eta euskal kantagintzaren historia-



Pako Aristi idazlea. JON HERNAEZ/ARGAZKI PRESS

ren inguruko hitzaldia egingo du (19:30): *Euskal kantagintzaren historia: Iparragirrerik Ken Zazpiraino*.

Ansorenaz eta Aristiz gain, euskal kantagintzaren alorreko beste zenbait adituk hartuko dute parte hurrengo egunetako hitzaldietan, hala nola Jabier Kalzakorta filologoak (asteazkena) eta Pantxoa Etxegoien Euskara Kultur Erakundeko zuzendariak (osteguna). Zikloari amaiera

emateko, Beñat Axiari eta Philippe Ezkurra musikariek *Iturri zaharretik* kontzertua eskainiko dute ostiralean Planetarioan. Abesteaz gain, Atxaga eta Artzeren testuak irakurriko dituzte.

EUSKARAZKO HITZALDIEN ZIKLOA: PAKO ARISTI

- **Non.** Iruñeko Erraldoien Txokoan.
- **Noiz.** 19:30ean.
- **Sarrera.** Doan.

Eguraldia JON ALBISU

Joera

Osteguna, 6 Ostirala, 7 Larunbata, 8

Gaur t°

Eguzkia eta goiko hodeiak
 ■ **Zerua.** Antizikloiaren eragina gaur ere nabaritu da Euskal Herrian; Atlantikotik datozen fronte kateak uxatu, eta goi latitudeetara bidaliko ditu. Egunsentitik lanbroa eta behe lainoa agertuko dira betiko tokietan, baina goizean bertan, eguzkia eta goiko hodeiak agertuko dira.

■ **Haizea.** Haize aldakorra.
 ■ **Temperatura.** Berdin. Ipar isurialdean eta mendialdean, 23 eta 27 gradu artekoak izango dira beroenak; barnealdean, berriz, 22 eta 31 gradu artekoak.

Bihar

t°

Antzeko eguraldia
 ■ **Zerua.** Azken egunetako eguraldi bertsua izango da bihar ere; beraz, giro eguzkitsua eta egonkorra izango da. Goizean bertan aterako da eguzkia Euskal Herri guztian; goiko hodeiak ere agertuko dira leku gehienetan.
 ■ **Haizea.** Haize aldakorra ibiliko da.
 ■ **Temperatura.** Tankerako tenperaturak izango dira. Eguneko beroenak, ipar isurialdean eta mendi inguruetan, 23 eta 27 gradu artekoak izango dira; barnealdean, pixka bat epelago, 22 eta 31 gradu artean ibiliko dira.

Itsasoa

■ **Itsasoko egoera.** Lehenengo 20 milietan, haize aldakorra ibiliko da, 2ko indarrarekin, eta itsaskirria sortuko du. Ondo ikusiko da.
 ■ **Olatuak.** Metro bat arteko olatuak altxatuko ditu.

Itsasaldiak	ORDUA	METROAK
Itsasbehera	04:16	1,38
Itsasgora	10:49	3,43
Itsasbehera	17:02	1,36
Itsasgora	23:44	3,13

Isobara mapa

Eguzkia	Sortu	Gorde
	08:14	19:53

Ilargia	EGUNA
Igora	Urriaren 4a, asteartea
Ilbete	Urriaren 12a, asteazkena
Ilbehera	Urriaren 20a, osteguna
Ilberri	Urriaren 26a, asteazkena

Hitzjokoak BAGABIGA

↓ **Hitzgurutzatuak**

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1						■						
2										■		
3			■									
4				■					■			
5								■				
6		■										■
7	■										■	
8				■								
9			■					■				
10									■			
11		■										
12							■					

Ezker-eskuin
 1. Aramaioko auzoa, Araban. Asia erdialdeko etnia. 2. Elkartea. Molibdenoaren ikurra. 3. ... egin, pilotak paretaren eta lurraren artean jo. Ipar Euskal Herrian, meza laguntzaile. 4. Hedadura neurria. (zah.) Zakurra. Emakume izena. 5. Ehun sintetiko baten izena. Ezpalarta. 6. Uranioaren ikurra. Autobusa. 7. Tiranahia, nagia ateratzeko egiten den ahalegina. Boroaren ikurra. 8. Mehar, ez lodi, ez zabal. Bota, jaurtiki. 9. Sarrera. Ukitu aditzaren oina. Noka, nau. 10. Pluralean, zirkunferentziaren erdigunea. Egoskin mota. 11. Gipuzkeraz eta, zuzeneko galderak indartzeko erabiltzen den partikula. Jaki egosiegiak, ore bihurtuak. 12. Pluralean, paduretan hazten den belar landarea. Ohia.

Goitik behera
 1. Jai edo ekitaldi bereziren batez gogoratu. Adiurre oneko. 2. Frantziako ibaia, frantsesen moduan idatzia. Ergel, inozo, tentel. 3. Zuhaixa mota. Abederako azken letra. 4. Titanioaren ikurra. Gizon zahar. (Errep.) Ukaldi ez oso bortitz baina jarraien onomatopeia. 5. Ipar Amerikako estatua. Ate, hitz elkartzeetan. Urratu aditzaren oina. 6. Teologiari dagozkionak. 7. Marraka egiten dutenak. 8. Landare arantzatsua. Edo. Portuaren zati, edo portu bera. 9. Ipar Euskal Herrian, zeharo, erabat. Animalia adardun. Euskal fonema. 10. Kontsonantea. Urratua. 11. ... jakin, ez zuzenean. Toka, zien. 12. Lilia. Birazka, binako multzotan.

↓ **Sudokua**

				5		
	1		4		6	
3	7		8		5	9
	6				9	8
1			9			6
5	3				4	
8	9		6		3	7
	4		7		1	
			3			

9x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu, letik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

↓ **Goitibehera** ↓ **Atzoko erantzunak**

1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

8	4	5	9	6	3	2	7	1
2	7	1	4	8	5	9	6	3
3	9	6	2	1	7	4	5	8
6	2	4	5	9	8	3	1	7
9	3	7	1	4	6	5	8	2
1	5	8	3	7	2	6	9	4
7	1	9	6	2	4	8	3	5
5	8	2	7	3	9	1	4	6
4	6	3	8	5	1	7	2	9

Goitibehera: 1. Serbala. 2. Arbela. 3. Belar. 4. Lera. 5. ELA. 6. Gela. 7. Igela. 8. Alegia. 9. Garaile.

Maitasuna da erantzuna, baina hura noiz iritsiko zain zauden artean, hainbat galdera egiten dizkizu sexuak (Woody Allen).

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.
 1. Bizkaiko hondartza, Getxon. 2. Intsektu bizkarroia. 3. Hostoa. 4. Gipuzkoako ibaia. 5. Jardun. 6. Abere belarjalea. 7. Balio gutxiko txanpon zahar. 8. Arte zuhaitzez osatutako baso. 9. Kirol talde biren arteko norgehiagoka.

Aretoak

Araba

GASTEIZ

→ ABACO BOULEVARD
Boulevard merkatari gunea (902-221622), ikuslearen eguna: osteguna.

No habrá paz para los malvados	16:00	18:10	20:25	22:45
La cara oculta	16:10	18:20	20:30	22:35
Super 8	17:00	19:20		
Los amos de Brooklyn			20:00	
Los tres mosqueteros 3D	15:50	18:00	20:15	22:30
El origen del planeta...	16:00	18:05		
La piel que habito		20:15	22:35	
Los tres mosqueteros	16:05	18:15	20:25	22:40
Larry Crowne, nunca es tarde	16:15	18:15	20:20	22:25
Johnny English returns	16:15	18:20	20:25	22:35
Con derecho a roce	15:45	18:00	20:20	22:35
Phineas y Ferb	16:20	18:20		
Cómo acabar con tu jefe		20:25	22:30	
Colombiana	15:55	18:10	20:20	22:30
Los pitufos	16:00	18:10		
La deuda		20:20	22:40	

→ FLORIDA
San Prudentzio, 22 (94-5231940), ikuslearen eguna: asteazkena.

El árbol de la vida	17:00	19:45	22:30
Four Lions	17:30	20:00	22:30
Hiru Mosketariak	17:30		
La piel que habito	20:00	22:30	
Somewhere	17:30	20:00	22:30
Tras las luces	18:00	22:30	
Los pasos dobles	20:15		
El arte de pasar de todo	18:00	20:15	22:30
No habrá paz para los malvados	18:00	20:15	22:30

→ GURIDI
San Prudentzio, 6 (94-5231940), ikuslearen eguna: asteazkena.

Los tres mosqueteros 3D	17:30	20:00	22:30
Los pitufos	17:30		
Los tres mosqueteros	19:30	21:45	
La deuda	17:30	20:00	22:30
Urte berri on, amona!	17:30	20:00	22:30
Larry Crowne, nunca es tarde	18:00	20:15	22:30
Con derecho a roce	18:00	20:15	22:30
Johnny English returns	18:00	20:15	22:30

→ YELMO GORBEIA 3D
Gorbeia merkatari gunea (94-5460623), ikuslearen eguna: asteazkena.

Los tres mosqueteros	18:00	20:15	22:30
Los tres mosqueteros 3D	17:30	19:45	22:00
Johnny English returns	18:10	20:10	22:10
Larry Crowne, nunca es tarde	17:50	19:50	21:50
El arte de pasar de todo	18:30	20:30	22:30
No habrá paz para los malvados	17:40	20:00	22:20
Con derecho a roce	17:45	20:00	22:15
Colombiana	18:10	20:20	22:30
La cara oculta	18:00	20:20	22:00
Cómo acabar con tu jefe	18:20	20:20	22:00
Cowboys & Aliens	17:55		
La piel que habito		20:10	22:25
Los amos de Brooklyn		21:50	
Arriya	17:30		
La deuda		19:45	22:00
Super 8		19:30	21:45
El origen del planeta...		19:45	
Phineas y Ferb	18:00		
Los pitufos	17:45		

Bizkaia

BILBO

→ COLISEO CINESA ZUBIARTE
Leizaola Lehendakariaren kalea.

Johnny English returns	16:00	18:10	20:20	22:30
Con derecho a roce	16:00	18:15	20:30	22:45
No habrá paz para los malvados	16:00	18:10	20:20	22:30
La cara oculta	16:00			
Cómo acabar con tu jefe	18:10	20:00		
La deuda		20:20		
Los tres mosqueteros	16:00	18:15	20:30	22:45
Larry Crowne, nunca es tarde	16:00	18:10	20:20	22:30
El árbol de la vida	16:15	19:00	22:00	
Colombiana	17:30			
Los tres mosqueteros 3D		19:30	22:00	

→ GOLEM ALHONDIGA

Johnny English returns	16:30	18:30	20:30	22:15
Urte berri on, amona!	17:15	20:00	22:15	
Pina 3D	17:30	20:10	22:15	
Con derecho a roce	17:30	20:00		
No habrá paz para los malvados	17:15	20:00	22:15	
Arriety y el mundo de los ...	17:15			
Cómo acabar con tu jefe		22:15		
La deuda		20:10	22:15	
La piel que habito		20:10	22:15	

→ MULTICINES
Eskutza kalea, 13 (94-4310310), ikuslearen eguna: astelehena.

Beginners	17:30		
Los pasos dobles (JBA)		22:15	
Urte berri on, amona!	17:30	20:00	22:15
Hiru Mosketariak	17:30	19:45	
Somewhere	17:30	20:00	22:15
El árbol de la vida	20:00		
El arte de pasar de todo	17:30	19:45	22:15
Four Lions	17:30	20:00	22:15
Tras las luces	17:30	20:00	22:15

→ COLISEO CINESA MAXOCIO
Kareaga kalea z/g (94-4310310), ikuslearen eguna: astelehena.

Los tres mosqueteros	16:00	18:15	20:30	22:45
Los tres mosqueteros 3D	17:00	19:30	22:00	
Larry Crowne, nunca es tarde	16:00	18:15	20:30	22:45
Cowboys & Aliens	17:00	19:30	22:30	
Los amos de Brooklyn	16:15	19:15	22:15	
Cómo acabar con tu jefe	16:30	18:30	20:30	22:30
Lo contrario al amor	16:00	22:00		
La piel que habito		18:15		
Destino final 5		20:30		
Monte Carlo	16:00	18:15		
El origen del planeta...		20:30	22:45	
La cara oculta	16:00	18:15	20:30	22:45
Noche de miedo 3D	16:00			
Noche de miedo		18:15		
Super 8		20:30		
Colombiana		22:45		
Con derecho a roce	16:00	18:15	20:30	22:45
La deuda	16:30	19:30	22:30	
No habrá paz para los malvados	16:00	18:15	20:30	22:45
El árbol de la vida	16:15	19:15	22:15	
Johnny English returns	16:00	18:15	20:30	22:45

→ YELMO MEGAPARK
Embera etorbidea z/g (94-4181672), ikuslearen eguna: astelehena.

Los tres mosqueteros 2D	18:10	20:25	22:40
Los tres mosqueteros 3D	17:30	19:45	22:00

Larry Crowne, nunca es tarde	18:05	20:20	22:35
Johnny English returns	18:00	20:15	22:30
No habrá paz para los malvados	17:55	20:15	22:35
El árbol de la vida	18:40	21:30	
Cowboys & Aliens	17:45		
Colombiana	20:05		
La piel que habito		22:25	
Phineas y Ferb	17:30		
La cara oculta		19:20	21:35
Super 8	17:35	19:55	22:15
La deuda	17:50		
Cómo acabar con tu jefe		20:10	22:20
Con derecho a roce	17:30	19:50	22:10

BASAURI

→ IBAIGANE
Johnny English returns 20:00

→ BERMEO, Nestor Basterretxea.
Ez dago emanaldirik.

→ DERIO, Gurea aretoa. Ez dago emanaldirik.

→ DURANGO, Zugaza.
Urte berri on amona! 20:00

→ ELORRIO, Arriola antzokia. Ez dago emanaldirik.

→ GALDAKAO, Torrezebal. Ez dago emanaldirik.

→ GERNIKA-LUMO, Lizeo. Ez dago emanaldirik.

GETXO

→ GETXO ZINEMAK
Amiluze z/g (94-4310310), ikuslearen eguna: asteazkena.

El arte de pasar de todo	17:00	19:30	22:00	
El árbol de la vida	17:00	19:45		
Con derecho a roce		22:20		
Larry Crowne, nunca es tarde	17:00	19:30	22:00	
Johnny English returns	17:00	19:30	22:00	
Cómo acabar con tu jefe		19:30		
Urte berri on, amona!		17:00	22:00	
Los tres mosqueteros		17:00	19:30	22:00

→ IGORRE, Lasarte aretoa. Ez dago emanaldirik.

LEIOA

→ GINESA ARTEA
Artea merkatari gunea (902-333 231), ikuslearen eguna: asteazkena.

Cowboys & Aliens	18:00			
Colombiana	20:15			
Los tres mosqueteros 3D	17:00	19:30	22:00	
Los tres mosqueteros	16:00	18:15	20:30	22:45
No habrá paz para los malvados	16:00	18:10	20:20	22:30
Johnny English returns	16:00	18:00	20:00	22:00
Larry Crowne, nunca es tarde	16:00	18:00	20:10	22:20
El árbol de la vida	16:15	19:15	22:00	
Cómo acabar con tu jefe	16:00	20:20		
La deuda	16:00	18:15	22:20	
Con derecho a roce	16:00	18:15	20:30	22:45
Los amos de Brooklyn		22:20		

→ KULTUR LEIOA
La clienta 20:00

→ LEKEITIO, Ikusgari zinema. Ez dago emanaldirik.

→ MUNGIA, Torrebillola. Ez dago emanaldirik.

→ ONDARROA, Bide Onera. Ez dago emanaldirik.

PORTUGALETE

→ BALLONTI

Los tres mosqueteros 3D	17:30	19:50	22:10
Los tres mosqueteros	17:45	20:00	22:20
Johnny English returns	17:45	20:00	22:10
Larry Crowne, nunca es tarde	18:00	20:00	22:15
Phineas y Ferb	18:00		
Con derecho a roce		19:50	22:20
La piel que habito		19:50	22:20
La cara oculta		17:45	

SANTURTZI

→ SERRANTES
(94-4839244), ikuslearen eguna: asteazkena.

Larry Crowne, nunca es tarde	17:30	20:00	22:30
El árbol de la vida	17:15	20:00	22:30
Con derecho a roce	17:30	20:00	22:30

→ ZALLA, Zalla Antzokia. Ez dago emanaldirik.

→ ZORNOTZA, Zomotza aretoa. Ez dago emanaldirik.

Gipuzkoa

DONOSTIA

→ ANTIGUOBERRI
(943-001200), ikuslearen eguna: astelehena.

Los tres mosqueteros 3D	17:15	20:00	22:30
No habrá paz para los malvados	17:00	19:45	22:15
Los tres mosqueteros 2D	17:00	19:45	22:15
Johnny English returns	17:15	20:00	22:30
Con derecho a roce	17:00	19:45	22:15
Larry Crowne, nunca es tarde	17:15	20:00	22:30
La piel que habito	17:00	19:45	22:15
Urte berri on, amona!	17:15	20:00	22:30

→ LABRETZA
Arañadegi eraikina (943-421371).

Los tres mosqueteros	16:00	18:15	20:30	22:45
No habrá paz para los malvados	16:00	18:15	20:30	22:45
Johnny English returns	16:00	18:00	20:00	22:15
Arriety y el mundo de los ...	16:00			
Los tres mosqueteros 3D	18:00	20:15	22:30	
El árbol de la vida	16:15	19:00	22:00	
Larry Crowne, nunca es tarde	16:15	18:30	20:30	22:30
La cara oculta		17:15		
La piel que habito		19:30	22:15	
La deuda	16:00	18:10		
Cómo acabar con tu jefe		20:20	22:45	
Phineas y Ferb		16:15		
Con derecho a roce		18:15	20:15	22:30

→ PRINCIPE
San Joan, 10 (943-421247), ikuslearen eguna: asteazkena.

El arte de pasar de todo	17:00	19:45	22:00
Pina 3D	16:45	19:30	22:00
Urte berri on amona	17:15	19:30	22:00
La piel que habito	17:15		
La deuda		19:45	22:15
Somewhere	17:00	19:30	22:30
Tras las luces	17:30	20:00	22:30
No habrá paz para los malvados	17:15	19:45	22:15
El perfecto anfitrión	17:30	20:00	22:30
El árbol de la vida	16:45	19:30	22:15
Four Lions	17:00	19:45	22:30



Somewhere, Sofia Coppola zuzendariaren filma. BERRIA

→ TRUJEA
S. Esnaola, 10 (943-271391), ikuslearen eguna: asteartea.

El árbol de la vida (JBA)	17:00	19:45	22:15
Los pasos dobles (JBA)	17:00	18:45	
Catalunya über alles (JBA)		20:30	22:30

→ ANDOAIN, Bastero zinema. Ez dago emanaldirik.

→ ARRASATE, Amaia.
Senna 20:30

→ ATAUN, Herri Antzokia. Ez dago emanaldirik.

→ AZKOTIA, Baztartzko zinema. Ez dago emanaldirik.

→ AZPEITIA, Soreazu antzokia. Ez dago emanaldirik.

→ BEASAIN, Usurbe zinema. Ez dago emanaldirik.

EIBAR

→ COLISEO
Ez dago emanaldirik.

→ ELGOIBAR, Herri Antzokia. Ez dago emanaldirik.

ERRETERIA

→ NIESSEN ZINEMAK
(943-345291).

Los tres mosqueteros 3D	17:00	19:45	22:30
Johnny English returns	17:30	20:10	22:45
Larry Crowne, nunca es tarde	17:15	19:45	22:30
Urte berri on, amona!	17:15	19:45	22:30
Los tres mosqueteros	17:15	22:45	
Hiru Mosketariak	20:00		
Con derecho a roce		20:10	22:45
Cómo acabar con tu jefe		17:30	

→ HERNANI, Biteri aretoa. Ez dago emanaldirik.

IRUN

→ CINEBOX MENDIBIL
Mendibil merkatari gunea (943-630223), ikuslearen eguna: osteguna.

Los tres mosqueteros	18:00	20:15	22:30
La cara oculta	18		

Komunikazioa →

Zaharkituak jaio



Ekografiak
Aritz Galarraga

Informe semanal beteranoak badu zerbait euskaldunokin. Ez dakit tema deitu, obsesioa, edo pagotxa. Kontua da saioak antenan daramatzen 38 urte luzeetan (halako markarik!) maiz eskaini izan diola tartea euskal

gatazka gisa definituko dugun magma konplexu horri. Azkena, pasa den larunbatean. ETako presoak ardatz zituen erreportaje bat izan zen, *ETA, entre rejas*: laburra, 15 bat minutukoa, zahartzaroari buruzko baten eta malariari buruzko beste baten ondoren. Erreportajea egiteko aitzakia, presoan kolektiboak Gernikako Akordioarekin bat egin duela. Hasieran, testuinguruan jarri zuten gertakaria, eta erantzunak eman zituzten: Rubalcabak, pauso bat gehiago dela, ez behin betikoa; Raxoik, komunikatu bakarra espero dutela: disoluzioa.

Hortik abiatuta, imajinazioa askatu zuten kazetariak, euskal gatazka esan diogun horri lotzen zaizkien askotan ohi duten legez: beldurrezko film bateko soinu banda, hain gustuko duten izen-goitien erabilera, artxiboko irudiak barra-barra, eta ez garai onetakoak. Presoen artean izan diren iritzi ezberdinak nabarmendu ziren bereziki, eta onak eta txarrak zeintzuk diren argi utzi ziguten teleikusleei. Erreportajea ixteko, Patxi Lopezek pasa den ostiraleko osoko bilkuran egin zuen diskurtsoa aitaru zuten, lehendakariak presoan

balizko gerturatzeko egin zuen proposamena (edo hori uste dut, aldrebesa izan baitzen oso erreferentzia; bide batez, ze poetikoa iruditu zitzaidan *penados* terminoa).

Pasa den larunbateko *Informe Semanal* ikusten, ordea, sentsazio arraroa izan nuen: gertakari berri-berriak hunkitu arren, azken astean gertatutakoak azaldu arren, zaharkitu usaina hartu nion erreportajeari. Izan ere, hilabeteetan, ze hilabeteetan, urteetan apenas mugitu den erraldoia, badirudi pixkanaka-pixkanaka ari dela aurrera, edo atzera, bai-

na ez dagoela lehen bezala geldirik. Azken egunetako gertakari garrantzitsu gehiagok ez dute izan kabida larunbateko erreportajearen, informazioa bera baino azkarrago etorri dira kasik: bate-tik, ETAk Egiaztatze Batzordea ontzat jo duela eta laguntzeko prest agertu dela; eta, bestetik, bere burua desegin duela Ekinnek. Imanol Murua Uriak igandero artikuluan esan berri bezala, tunel luzearen bukaeran argi pixka bat ikusten dela.

Nahiko nuke *Informe Semanal* guztiak larunbatekoa bezain zaharkituak jaioko balira.



Konplexurik gabeko sukaldaritzza saioaren hurrengo atalak aurkezteko, Bilboko Erriberako azokako haragi postu bat aurkeratu zuen De Jorgek. ETB

'Robin Food' goseturik itzuli da

Denboraldia hasi zuen atzo David de Jorge sukaldariaren saioak, eta hainbat atal berri agindu dituzte

Erredakzioa

Oporren ondoren, hondartzan eta tabernako terrazan harturiko kiloak kentzen hasten da jende asko. ETB2n, berriz, denboraldi berria hasi du koipeari eta kolesterolari beldurrik ez dien saio dietetika aldetik okerrak. David de Jorge sukaldariaren proposamenak, *Robin Food, Atracón a Mano Armada*-k, berrikuntzak dakartzatza, eta emakumeei sukaldearen atea irekiko die, aholkulari gisa baino ez bada ere.

Goi mailako sukaldaritzaren dotoreziari eta elitismoari uko egiten die De Jorgeren saioak, apropos. Halere, Martin Berasategi sukaldaria hartuko du ostegunetan, jaiegunetan bere buruari eta ingurukoei prestatzen dizkien platerak erakusteko: «Benetako sukaldaritzako plater sendoak».

Emakumeak eta sukaldaritzza
Berrikuntzen artean *Los ángeles de David* atala dago. Hiru emakumek aholkuak emango dizkio sukaldariari. Luisa Lopez, Arantxa Ezkurdia dietista eta Mari Carmen Gonzalez belarretan, loreetan eta mahaiak apaintzen aditua dena ikusiko ditugu sukaldearen inguruan, baina horren lema hartu gabe. «Sekulako luxua da», dio sukaldariak, «odol-

kiei xuxurlatzen ohituta dagoen gizon batentzat».

Asteartero, *Bailando con lobos* atalean, sukaldaritzako eta ikuskizunaren munduko pertsonaiak ekarriko dituzte pantailara, «benetako sukaldaritzza» horren ildoan sakontzeko.

Hilean behin *Los Intocables* atala emango dute saioan. Horretan, jatetxeak hornitzen dituzten ekoizleak ezagutu ahalko ditugu. Mundu osoko lehen mailako jantziak non eta nola sortzen dituzten erakutsiko digute, erreportaje baten bitartez.

Krisi sukaldaritzza

Ekonomiaren egoera kontuan hartuko du saioak. Saioko giro umoretsuari uko egin gabe, janari merkea eta tuperretan sartzeko proposamenak nabarmendu-

ko dituzte. Horiekin batera, mikrohuin labeen presta daitezkeenak erakutsiko dituzte, eta, kontraste gisa, kaloria gutxikoa.

Ostiralero, berriz, bere estiloari fidel izateko aukera izango du sukaldariak, *Guarrindongadas* tar-tearekin. Ikusleek www.davidde-jorge.com gunearen bidez helarazten dizkioten proposamenik heterodoxoenak kameran aurrean gauzatuko ditu; «perbertsio gastronomikoak», haren hitzetan.

Ikusleen parte hartzea sustatu-ko dute, hileroko sukaldeko tresnak oparitut.

Plato-sukalde txiki eta ziztrinegia erabili izana leporatu diote hainbatetan saioari. Denboraldi honetan, leiho handi bat izango du, lorategi batera begirakoa.

Urteko ikusle daturik eskasena izan du ETB2k irailean

La1 kateak aurrea hartu dio Tele5ri Espainian, eta albistegietan buruan dago oraindik ere

Erredakzioa

Ez da asko jaitsi ETB2, hamarrenko bat, baina nahikoa urteko daturik txarrena jasotzeko irailean. Ez litzateke horren larria izango, ez balitz horrek azken urteotako joera baieztatzen duelako.

Aurtengo jaitsiera ez da azken bi urteotakoa bezain ikusgarria izan, baina abuztuan nabarmen egin zuen behera Euskal Telebistako bigarren kateak. Hilabete horretan %7,5eko ikusle kuota izan zuen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Irailean, berriz, %7,4 lortu ditu. Iazko datuekin parekatuta, puntu erdi pasatxo egin du behera, eta duela bi urteko sasoi berean lorturiko datuekin alderatuta, bost puntu baino gehiago.

ETB2 kasu berezia dela erakusten du iraileko datuak, kate autonomiko publikoek hiru hamarrenko irabazi dituztelako oro har (%9,7).

La1, Tele5ren aurretik

Hiru hilabeteko joera hautsi du telebista publikoak Espainian. La1k aurrea hartu dio Tele5ri, *Aguila Roja*, *Cuéntame* eta Txapeldunen Ligako emanaldiei esker. Halere, ikusleak gero eta sakabanatuago daudela erakusten du datuak, La1 nagusitu delako hilabete batean buru izateko ikusle kopururik txikienarekin.



'Gernika' Gernikara ekimena mintzo

Picassok margoturiko *Gernika* koadroa Bizkaiko herrira eramateko eskatzen duen herri ekimeneko ordezkariarik hitz egingo dute *Berbetan* saioan. Madrilen izan dute margoa azken 30 urteotan.


'Berbetan'. Hamaika, 19:40.



Munduko haserretuak ezagutzeko saioa

Tunisian, Marokon, Kolonbian, Libian eta Espainian kaleak hartu dituzten gazte haserretuak ezagutzera bidaliko dituzte sei gazte frantses, Frantziar horrenbesteko eragina izan ez duen mugimendua aztertzeko.


'Un Monde six jeunes'. France2, 20:35.



'La Noche de...' -ren 17. denboraldia

Felix Linaresek aurkezten duen saioak 17. denboraldia estreinatuko du gaur. Jim Carrey protagonista duen *Di que sí* komedia gainera, Susan Sarandoni tarte berezia eskainiko diote, 65 urte beteko dituelako gaurtxe.

'La Noche de...'. ETB2, 22:00.



Erbesterako 'Alsina' ontziaren historia

Alsina-ren historia erakutsiko dute, 1936ko gerraren ondoren hainbat intelektual euskaldun Ameriketara zein Afrikara eramantzen zituen itsasontziarena, eta Baionako Itsas Museoa bisitatu joango dira.

'Kresala'. ETB1, 23:05.

Gaurko filmak

Denver y Rio Grande

■ **ETB2, 18:30.** Zuz.: Buron Haskin. Akt.: Edmond O'Brien, Sterling Hayden, Dean Jagger. AEB. 1952.

Arrebato

■ **La2, 22:00.** Zuz.: Ivan Zulueta. Akt.: Eusebio Poncela, Cecilia Roth, Will More. Espainia. 1979.

Di que sí

■ **ETB2, 22:30.** Zuz.: Peyton Reed. Akt.: Jim Carrey, Zooey Deschanel, Bradley Cooper. AEB. 2008.

Jane Doe: más dura será...

■ **Antena3, 00:00.** Zuz.: James A. Contner. Akt.: Lea Thompson, Joe Penny, William R. Moses. AEB. 2005.

La gueule de l'autre

■ **France2, 01:05.** Zuz.: Pierre Tchernia. Akt.: Jean Poiret. Frantzia. 1979.

Telebista

ETB1

06:15: Marrazki bizidunak. (Nafarroako deskonexioa 09:55 arte). **07:15:** Bidaide. **08:20:** Mihiluze. **08:55:** Travel notes. **09:20:** Gure lanbide zaharrak. **09:55:** Elkartasunaren bideak. **10:25:** Arrantza. **10:50:** Euskal Herritik. **11:20:** Nick dut nik. **11:50:** Perretxikoen mundua. Dokumentala. **12:05:** Soinu-jotzailea auztegiaren. **12:55:** Kerman mintzalagun bila. **13:00:** Bidaide. **14:00:** Gaur egun. **14:45:** Eguraldia. **20:55:** Azpimarra. **21:30:** Mihiluze. **22:00:** Goenkale. **23:05:** Kresala. **23:50:** Gauberri. **00:25:** Azpimarra. **00:55:** Arratsaldero.



'Azpimarra' saioa. 22:55

ETB2

07:30: Robin Food. **08:00:** Egun on Euskadi. Gonbidatua: Jose Antonio Ardanza. **10:10:** Forum. Gonbidatua: Santiago Posteguillo idazlea. **11:00:** Rutas por Euskal Herria. **11:30:** Bonanza. **13:25:** Navarra directo. (Nafarroako deskonexioa). **13:30:** Monk. **13:45:** Just for laughs. (Nafarroako deskonexioa). **14:25:** Robin Food. **14:58:** Teleberri. **16:00:** Eguraldia. **16:10:** Ni más, ni menos. **18:30:** Zinema. 'Denver y Rio Grande'. Zuz.: Buron Haskin. Akt.: Edmond O'Brien, Sterling Hayden. 1952. **20:10:** Euskadi Directo. **20:58:** Teleberri. **22:00:** Eguraldia. **22:10:** La noche de... (22:30) Zinema. 'Di que sí'. Zuz.: Peyton Reed. Akt.: Jim Carrey. 2008. **00:35:** EITB kultura. **01:00:** Teleberri. **01:35:** Ni más, ni menos.



'Di que sí' filma. 22:15

Hamaika

08:00: Lazkao txiki. **08:20:** Bat eta Bat. **09:35:** Euskal Herria esnatuz. **11:45:** Behi Pirinaikoren feria. **13:10:** Ikusmira. Done jakue bidea. **13:40:** Onein. **14:00:** Bat eta Bat. **15:15:** Harrobia/Hamaikakoa. **16:15:** Gipuzkoa kultura. **16:55:** Erritmoz bizi. **19:20:** Pernando amezketarra. **19:40:** Berbetan. 'Guernica' Gernikara. **20:10:** G puntua. Gipuzkoako bertsolari txapelketa. Azkoitia. **20:45:** Bat eta Bat. Albistegia. Erreportajea. Elkarrizketa. **22:00:** Frontoia. **23:15:** G puntua.

La1

06:30: Telediario matinal. **09:00:** Los desayunos de TVE. **10:15:** La mañana de La1. **14:00:** Albistegia. **14:30:** Corazón. **15:00:** Telediario 1. **16:05:** Eguraldia. **16:15:** Amar en tiempos revueltos. Telesaila. **17:05:** La fuerza del destino. Telesaila. **17:35:** Eva Luna. **18:20:** Amar de nuevo. **19:00:** + Gente. **21:00:** Telediario 2. **22:05:** El tiempo. **22:15:** Españoles en el mundo. **23:55:** Destino: España. **00:45:** Repor. **01:15:** Paddock GP. **01:45:** La noche en 24 horas. **03:15:** TVE es música.

La2

10:00: La aventura del saber. **11:00:** Babel en TVE. **11:30:** Mundos de agua. **12:00:** Grandes documentales. **13:00:** Para todos La2. **14:40:** Documentales culturales. **15:30:** La felicidad en 4 minutos. **15:35:** Saber y ganar. **16:00:** Grandes documentales. **17:55:** Documentales culturales. **19:00:** Bubbles. **19:30:** Para todos La2. **20:00:** Programa de mano. **20:30:** Más que perros y gatos. **21:00:** Documentales culturales. **22:00:** Zinema. 'Arrebato'. Zuz.: Ivan Zulueta. 1979. **00:25:** La2 noticias.

Antena 3

09:00: Espejo público. **12:00:** Karlos Arguiñano en tu cocina. **12:30:** La ruleta de la suerte. **14:00:** Los Simpson. Marrazki bizidunak. **15:00:** Antena3 noticias. **15:40:** Deportes. **16:00:** El tiempo. **16:15:** Bando lera. Telesaila. **17:15:** El secreto de Puente Viejo. **18:30:** Ahora caigo. Lehiaketa. **19:45:** Especial Atrapa un millón. **21:00:** Albistekak. **21:35:** Deportes. **21:40:** El tiempo. **21:45:** El hormiguero 3.0. **22:30:** Gran hotel. Telesaila. **00:00:** Zinema. 'Jane Doe: más dura será la caída'. 2005.

Tele 5

06:30: Informativos Telecinco. **09:00:** El programa de Ana Rosa. **12:45:** Mujeres y hombres y viceversa. Emma Garciak aurkeztutako saioa. **14:30:** De buena ley. **15:00:** Informativos Telecinco. **15:45:** Salvame diario. **20:00:** Pasapalabra. **21:00:** Informativos Telecinco. **21:45:** Ultima hora: aventura en el bosque. Christian Galvezek aurkeztuta. **22:30:** Homicidios. 'Gritos en la oscuridad'. **00:00:** El debate: aventura en el bosque. **02:30:** Locos por ganar. **04:00:** Infocomerciales.

La Sexta

07:00: La Sexta en concierto. **08:10:** Este es mi barrio. **09:05:** Crímenes imperfectos. **10:30:** Crímenes imperfectos: historias criminales. **11:25:** Crímenes imperfectos, ricos y famosos. **12:25:** Al Rojo Vivo. **13:55:** La Sexta noticias. **15:00:** La Sexta deportes. **15:30:** Mucho que perder poco que ganar. **16:30:** Navy: investigación criminal. Telesaila. **19:30:** La Sexta noticias. **20:55:** Quién vive ahí. **21:30:** El intermedio. **22:25:** El mentalista. Telesaila. Atal berriak. **02:00:** Quien vive ahí. **02:20:** Astro tv.

Cuatro

08:15: Top Gear. **10:15:** Alerta Cobra. **2:30:** Las mañanas de cuatro. Marta Fernandezek aurkeztutako saioa. **14:00:** Noticias Cuatro. Hilario Pinok aurkeztutako saioa. **14:50:** Deportes Cuatro. **15:50:** No le digas a mamá que trabajo en la tele. **17:10:** NCIS: Los Angeles. **19:00:** ¡Allá tú!. Jesús Vázquezek aurkeztutako saioa. **20:00:** Albistegia. **20:45:** Deportes Cuatro. **21:30:** Frank de la jungla. **22:30:** Falling skies. 'Santuario'. 'Lo que hay debajo'. **00:15:** Invasión jurásica. **02:00:** Ultimo aviso.

Arte

09:15: La fabuleuse histoire des nouilles. **10:05:** Ils étaient les Brigades rouges. **12:15:** Globalmag. **12:45:** Arte Journal. **13:00:** Le saint. **13:45:** Une année sous la lumière arctique. **14:30:** Mascarades. **16:05:** L'Huile d'argan, cosmétique et diététique. **16:55:** Le Saint. **17:45:** X:enius. **18:15:** Les explorateurs du Nord canadien. **19:00:** Arte journal. **19:30:** Globalmag. **19:55:** La momie dinosaure. **20:40:** Dis-moi ce que tu manges... Dokumentala. **21:35:** La bataille de nos assiettes. **22:30:** The Killing.

TF1

06:25: Les Petites Crapules. **06:45:** TFOU. **08:25:** Téléshopping. **09:20:** Le destin de Lisa. **11:00:** Secret story. **12:00:** Les 12 coups de midi!. **13:00:** Journal. **13:55:** Les feux de l'amour. **14:55:** Telefilma. 'Une assistante presque parfaite'. Zuz.: Douglas Jackson. 2008. **16:35:** Les frères Scott. **17:25:** Grey's anatomy. **18:15:** Secret story. **19:05:** Le juste prix. **20:00:** Journal. **20:45:** Les experts: Manhattan. Telesaila. **23:45:** Appels d'urgence. **00:55:** Enquêtes et révélations. **02:35:** Reportages.

France 2

09:10: Des jours et des vies. **09:35:** Amour, gloire et beauté. **10:00:** C'est au programme. **10:55:** Motus. **11:25:** Les z'amours. **12:00:** Tout le monde veut prendre sa place. **13:00:** Journal. **14:00:** Toute une histoire. **15:10:** Comment ça va bien!. **16:15:** Rex. **17:10:** Seriez-vous un bon expert?. **17:55:** On n'demande qu'à en rire. **18:55:** N'oubliez pas les paroles!. **20:00:** Journal. **20:35:** Un monde, six jeunes. **22:40:** Réunion de famille. **00:45:** Journal. **01:05:** Zinema. 'La gueule de l'autre'. 1979..

ETB3

15:25: Super maltzurren liga. **15:40:** Doraemon. **16:20:** George ohianekoa. **16:45:** Shaun arditxoa. **16:55:** Woofy. **17:10:** Tom eta Jerry. **17:35:** Hartz txiki. **17:55:** Doraemon. **18:35:** Galaktik football. **18:40:** Etxekal-tetxoak. **19:00:** Ninja dorkak. **19:20:** Keroro sarjentua. **19:45:** One piece. **20:05:** Super maltzurren liga. **20:20:** Benetakoko mamuak. **20:40:** Tom eta Jerry mutikotan. **21:00:** Shin Chan. **21:25:** Dragoi bola. **22:30:** Gaztea klip. **23:00:** Bizitza normal bat. **23:55:** Dr. Who.

ETB Sat

10:00: Zona Zapping. **10:25:** Ni más, ni menos. **12:20:** Esto no es serio. **12:30:** Futbol laburpenak. Real - Athletic. **13:30:** Magazine Champions. **14:00:** Magazine futbol sala. **14:30:** Gaur egun. **15:25:** Trinkete. **16:25:** Magazine Champions. **16:55:** Zu Kirolari. **17:25:** Areto futbola. Movistar - Cartagena. **18:55:** Magazine futbol sala. **19:25:** ETB Kantxa. Apeztexea - Sainz / Gorka - Merino. **20:25:** Gure bideoteka. **21:30:** Teleberri. **22:30:** Herri kirolak. Idi probak + Aizkolariak. **23:30:** Bat to London 2012.

France 3

07:10: Ludo. **08:55:** Des histoires et des vies. **10:50:** Midi en France. **11:50:** Le 12/13. **13:40:** Keno. **13:45:** En course sur France3. **14:05:** Inspecteur Derrick. **14:55:** Assemblée nationale. **16:15:** Viktor Vincent: mentaliste. **16:45:** Slam. **17:30:** Des chiffres et des lettres. **18:10:** Questions pour un champion. **18:50:** Le 19/20. **20:10:** Plus belle la vie. **20:35:** Telefilma. 'Le choix d'Adele'. 2011. **22:10:** Soir 3. **22:40:** Ce soir (ou jamais!). Magazina. **00:45:** Maison en travaux du rêve... au cauchemar.



Saria, behe laino artean

Joseba Sarrionandia (Iurreta, Bizkaia, 1958). BERRIA

Joseba Sarrionandiaren 'Moroak gara behelaino artean?' saiakera mardula saritu dute Literaturako Euskadi sariarekin

«Saridunak bere egoera erregularizatu arte», Jaurlaritzak atxiki egingo du sariaren dirua

Irene Berro

«Euskal literaturaren barnean klasiko» bihur daitekeela uste du Euskadi sariaren epaimahaiak; «originala da, ate asko zabaltzen

ditu, eta kontsultarako ere baliagarria da». Ainhoa Larrañaga buru izan duen taldeak aho batez erabaki du Joseba Sarrionandiaren (Iurreta, Bizkaia, 1958) *Moroak gara behelaino artean?* obra sa-

ritzera, euskarazko saiakeraren atalean. «Diskurtsoen ugaritasuna» nabarmendu dute epaimahaiakideek. «Azpimarratzekoa da pentsaera nagusitik kanpoko ikuspegi ezberdinak eskaintzeko ahalegina. Kultura aniztasunaren aldeko aldarria da».

Alabaina, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak iragarri du «atxiki» egingo dituela Literaturako Euskadi sariaren irabazlea izateagatik Sarrionandiari dagozkion 18.000 euroak, «saridunak justiziaren aurrean bere egoera erregularizatu artean». Jaurlaritzak dio «errespetatzen» duela epaimahaiaren ebazpena, eta ez duela «zalantzan jarri nahi idazlearen literatur balioa». «Dena dela, legea betetzeko, eta terrorismoa irmoki arbuiatzeko daukan konpromisoarekiko koherentziak, oztopo larriak ditu diruz hornitzen duen saria horrelako pertsona bati eman dakion, hau da, ETA organizazio terroristako kide izateagatik zigortua izan den, kartzelatik ihes egin duen, eta 1985az geroz leku ezezagunean den eta bere militantziaz sekula damurik agertu ez duen pertsona bati».

Pamielak argitaratu zuen iaz Sarrionandiaren lan mardula. Eta Pello Eltzaburu editoreak aurkeztu zuen Euskadi sarietara. «azken urteetan egin den saiakerarik onena» dela iritzita. Horrenbestez, «pozik» hartu du epaimahaiaren erabakia, «obra horren maila berretsi egin duelako». Eta

«harriduraz» Jaurlaritzaren erreakzioa, «literaturatik kanpoko arrazoi ilunengatik» atxiki duela saria.

Eltzabururi zail egiten zaio halakorik konprenitzea. Espainiako Kritikaren Saria eman dioten bi aldietan, esaterako, ez baita ezta antzekorik ere gertatu. 1986an eta 2001ean jaso zuen, *Atabala eta euria* eta *Lagun izoztua* lanekin, hurrenez hurren. Azkenekoz jaso zuenean, Jose Maria Aznar zen Espainiako Gobernuako presidentea. Eta inork ez zuen kontrako ahotsik altxatu.

Zazpi urteko lanaren emaitza

da *Moroak gara behelaino artean?* obra, eta 700 orrialde dauzka. Pedro Hilarion Sarrionandia fraide frantziskotarraren (Garai, Bizkaia, 1865-Zornotza, 1914) gorabeherak kontatzen ditu liburuak hasieran, nobela batean bezala. Eta kapitalismoa, kultura eta Euskal Herriaren etorkizuna daude ondoren garatuz doan lanaren gogoetagaien artean.

Epaimahaiaren iritziz, «ondo dokumentatutako, garatutako eta egituratutako lan sendoa da». Halaber, «edizio lan handia» duela arrazoitu du. «Argazkiz eta azalpenez betetako obra da».

↓ Hemeroteka

Zertan ari zen Unamuno?

Bixente Serrano Izkok *Moroak gara behelaino artean?* liburuari eginiko kritika argitaratu zuen BERRIAK urtarrilean. Hona hemen pasarte batzuk.

[...] Gutxitan gertatzen zaigu liburu-iruzkingileoi honetaz bezain nahi eta ezinean gelditzea obra batez labor idazterakoan. Liburuaren luzera ez ezik, haren barren mamitsua ere bada gaina hartzen diguna. 542 testu-orrialde gehi 1.387 ohar bertze 161 orrialdean. Alta, inolaz ere ez irakurlea gogaitzeko, zin egingo dut [...].

Dokumentazio arrunt oporak, datuen aberastasunak, ez diote batere kentzen irakurgarritasunari, egile honen idazkera komunikatzaileari, gure gaurko kezketara hurbiltzeari, Ez da, noski, janaldi batean irensteko, baina ez dago asebetetzerik, aspertzerik, behin eta berriz platerkadari ematerakoan [...]

[...]

Lan izugarria, zinez, baina inolaz ere ez bertan murgiltzeak izutzeko.

■ Bixente Serrano Izko. BERRIA.



berria

Sorahize (Herri Antzokia) Urriaren 7a, 22:15etan

34» Eugene Green: «Gauza guztien espiritualtasuna ikusten laguntzen ahal gaitu zinemak»

35» Durangoko Azokak Galizia izango du herri gonbidatu aurten, abenduaren 4tik 8ra

Literaturako Euskadi sariak →

Karlos Zabalak irabazi du itzulpenaren saria, bigarren aldiz

Ivo Andritxen 'Zubi bat Drinaren gainean' lanak «elkarrizketa biziak eta sinesgarriak» ditu, epaimahaiaren iritzian

Gorka Erostarbe

Lehen ere ezaguna du Karlos Zabalak Euskadi Literatur sariaren zaporea itzulpenen arloan, 2005ean ere eskuratu baitzuen Emile Zolaren *Parisen sabela* lanarengatik. Oraingoan Ivo Andritxen *Zubi bat Drinaren gainean* lanarengatik saritu du Xabier Mendiguren Bereziartuk (epaimahai burua), Bakartzo Arrizabalak, Elizabete Manterolak, Karlos del Olmok eta Ander Aranak osaturiko epaimahaiak. 18.000 euroko saria jasoko du Zabaletak.

Epaimahaiaren iritzian, «liburu ederra da, euskaraz erraz irakurtzen dena eta guretzat ezezagun den beste mundu bat erakusten diguna». Epaimahaiak ikusitako merituen artean dago, halaber, «prosa ongi itzulia, deskribapenak oso lortuak, eta elkarrizketa biziak eta sinesgarriak»

izatea. Gainera, balio erantsi gisa, «beste hizkuntza bat gurera ekarzte» nabarmendu du epaimahaiak.

Hain zuzen ere, euskarara ekarritako Andritxen lehen liburua da *Zubi bat Drinaren gainean*. Literatura Unibertsala bildumaren barruan argitaratu zuen liburua Zabalak, Alberdania eta Elkar argitaletxeen eskutik. Ia 500 orritan, XVI. mendetik XX. mendera bitartean Drina ibai ertzeko Vixegrad hirian gertaturikoak kontatu zituen Ivo Andritx idazle bosniarrak (1892-1975).

Drina ibaiaren gaineko Mehmed Pasa Sokolovitz zubia da liburuko protagonista nagusia. Turkiarrek 1571n eraiki eta austriarrek I. Mundu Gerran lehertu zuten. Hala ere, oraindik zutik dirau, eta gizadiaren ondare izendatua du Unescok. Liburua zubi baten kronika da, baina ez da gertaera historikoen kontakizun soila, Zabalak aurtengo martxoaren hasieran liburua aurkezpenean azaldu zuenez: «Literaturak xede handi bat duelako uste sendoa zuen Andritxek. Kontalari on baten hitzek gure ekintzei argia ematen dietelakoan zegoen. Uste



Karlos Zabalak 2005ean ere Euskadi Saria irabazi zuen, Emile Zolaren *Parisen sabela* liburuaren itzulpenarekin. JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS

zuen gizateriaren egiazko historia ipuinetan eta kantuetan bilatu beharra dagoela».

Iñaki Uriarte gaztelaniazkoan

Iñaki Uriarte Cantollaren (New York, 1946) *Diarios 1999-2003* (Pepitas de calabaza) saritu dute Gaztelaniazko Saiakera sailean, «estilo arineko eta literatura kalitate handiko lana» dela iritzita. «Umoresen azkarrak eta bere buruaren ironia erabiltzeko duen gaitasunak» atentzioa eman diete

epaimahaia osatu dutenei. «Niren subjektibotasuna defendituz, egileak oso errotuta dauzkagun zenbait gizarte arau gutxiesten ditu, zorrotzasun menderakaitzarekin baina sentiberatasun handiarekin».

Iñaki Uriarteren lehen liburua izan da *Diarios 1999-2003*, baina dagoeneko bigarrena ere argitaratua dauka: *Diarios 2004-2007*. Parisen, Londresen eta Bartzelonan bizi ondok, Bilbon bizi da 80ko hamarkadaz geroztik.

Iban Barrenetxea ilustratzailearen «diseinu dotore eta dinamikoa» saritu dute

G.E.

Ilustrazioen arloan saritutakoa ez ezik (*Bombástica Naturalis*), beste lan bat ere izan du Iban Barrenetxeak aurtengo Euskadi sarietako finalistaren artean: *El cazador y la ballena*. Elgoibarren (1973) jaiotako artistak autodidaktatzat dauka bere burua, eta oraindik ere ikasten ari dela dio: «Ilustrazioak eta liburuak beti nire buruaren parte izan dira». 18.000 euroko saria jasoko du ilustrazioaren arloko Euskadi saria eskuratzeagatik, eta lan saritua beste hizkuntza batean argitaratuko balitz, beste 4.000 euro jasoko lituzke.

Jokin Mitxelena izan zen iazko Euskadi sariduna literatur ilustrazioaren arloan, eta hark gidaturiko epaimahaiak saritu du, hain zuzen ere, *Bombástica Naturalis* lana. Barrenetxearen ilustrazioek «oso diseinu dotore eta dinamikoa dute», epaimahaiaren iritziz: «Akaberà preziosista dute argizatapenean eta egituretan; xehetasun txikienez ere arduratu egin da. Testua ezin hobeto harmonizatzen da marrazki zehatz eta zorrotzekin».

↓ **Sarituak**

EUSKARAZKO SAIKERA

- **Irabazlea:** *Moroak gara behelaino artean?* (Joseba Sarrionandia).
- **Finalistak:** *Walter Benjaminen aingerua Gernikako bombardaketatik* (Ignazio Aiestaran) eta *Darwin gurean* (Kepa Altonaga).
- **Epaimahaia:** Ainhoa Larrañaga, Andoni Eizagirre, Katixa Agirre, Josu Bijuesca, Fernando Garcia.

ITZULPENEA

- **Irabazlea:** *Zubi bat Drinaren gainean* (Karlos Zabala).
- **Finalistak:** *Zelestina* (Joxe Antonio Sarasola).
- **Epaimahaia:** Xabier Mendiguren Bereziartu, Bakartzo Arrizabalaga, Elizabete Manterola, Karlos del Olmo, Ander Arana.

ILUSTRAZIOA

- **Irabazlea:** *Bombástica Naturalis* (Iban Barrenetxea).
- **Finalistak:** *El cazador y la ballena* (Iban Barrenetxea), *Alex, nire laguna* (Maite Gurrutxaga).
- **Epaimahaia:** Jokin Mitxelena, Elena Odriozola, Begoña Medel, Raquel Alzate, Iker Aiestaran.

GAZTELANIAZKO SAIKERA

- **Irabazlea:** *Diarios 1999-2003* (Iñaki Uriarte).
- **Finalistak:** *Clandestinos* (Martin Aldalur), *Una historia moral del rostro* (Belen Altuna), *Cristobal Balenciaga. la forja del maestro (1895-1936)* (Miren Arzalluz).
- **Epaimahaia:** Ana Iriarte, Francisco Soguero, Cesar Coca, Isabel Muguruza, Xabier Aierdi.

ioskoa

harpidedunentzat
sarrerak

berriak
gonbidatzen zaitu

berria

ERRAUTSAK

Antzezlanak

BASTERO KULTURGUNEA ANDOAIN

Urriak 7, ostirala
21:30ean

10 sarrera



GURE BIDE GALDUAK

Dejabu Panpin Laborategia Antzezlanak

LUGARITZ KE DONOSTIA

Urriak 8, larunbata
20:00etan

10 sarrera



Sarrerak eskuratzeko:


www.berria.info

Edo deitu, **urriaren 5ean**, harpidetza sailera.

(Deitze ordua: 09:30-11:30 Telefonoa: 943-30 43 45)

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak urriaren 6an argitaratuko ditugu.

aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Eugene Green ◉ Taula zuzendaria, zinemagilea eta idazlea

«Basakeriaren herrian» sortua dela dio, eta aspalditik Parisen dabil lanean; Euskal Herriak liluraturik, sorkuntza iturri gisa erabili du eta erabiltzen ari da, baita hemengo historia, hizkuntza eta kultura ere

«Pastorala ikusi nuenean, egiazko antzerkia ikusi nuen»

Nora Arbelbide Donibane Garazi

Luzaz antzerkian aritu eta mundu hori utzi ostean, zineman hasi eta film batek ekarri zuen Euskal Herrira Green (New York, AEB, 1947). *Un monde vivant* (2002) grabatzen ari zela Biarnon, irudi batzuk hartzera hurbildu zen Zubeoroara, jakin gabe nora heltzen zen. Baina bertara heldu eta bazterrek hunki zuten erabat, baita aukera baliaturik asteburu hartan ikusi pastoralek ere. Geroztik, ahal duen guztiz itzultzen da Euskal Herrira. 2006an, Ziburun (Lapurdi) grabatu zuen *Les Signes* Cannesko jaialdiak hautatu zion film laburra.

Irudietan harrapatzeaz gain, idatziak ere baditu Euskal Herriaz. *La bataille de Roncevaux* (Gallimard, 2009) eleberririk Orreagako guduaren bertio garaikide bat irudikatzen du, Donibane Garazin, turisten aurka, Gotzon Peyrat protagonistaren bidez. Orain, France Culture-entzat prestatutako irratorako antzerkia oinarri, film bat egin nahian dabil Euskal Herria aipagai duela, baina dirurik ez du atzematzen horretarako.

Idauze-Mendiko pastorala ikusi zenuen, zer iruditu zitzaizun, antzerkilari gisa?

Antzerkia egin dut luzaz, baina nire antzerkiaren kontzeptua ez da 1968tik hona egiten dena. Eta Pastorala ikusi nuenean, egiazko antzerkia ikusi nuen. Sekulakoa zen. Japoniako Kabukiaren eitea du. Ekialde muturreko antzerkia interesatzen zitzaidan orduan.

Zure iduriko, zertan da pastorala «egiazko antzerkia»?

Dena da antzeztua. Dena da kodeetan oinarritua. Nik ikusi pastoralek Pierre Lotiren *Ramuntxo* zuen inspirazio iturria. Biziki eleberririk txarra dena, bestalde. Baina pastoral horretan baziren elementu batzuk, zinez... Adibidez, Ramuntxoren ama hiltzen den mementoa. Lehenik bertsetak ematen ditu makila lagun, eta hiltzear dagoe la, zutik jartzen da jendeari begira, eta sinpleki, makila erortzera uzten du, besoak gurutzatzen ditu bularrerat ekarriz, eta bada-kigu hila dela. Ez da saiatu errealista den zerbait egiten. Eta niretzat errealismoa antiteatrala da. Zerbait indartsua sentitu nuen, nire baitakoari oihartzun egiten

ziona. Hortik, euskaraz ikasten hasi nintzen. Liluratzen nau hizkuntza horrek. Baina biziki zaila da...

Zerk liluratzen zaitu?

Hemen hizkuntzaren sorgunea aurkitzen dudala iruditzen zait. Adibidez, euskaraz hitz egiten dut erraiten da euskaraz. Eta hori hain da hunkigarria: hitza egitea...

«1968tik hona egiten den antzerkia» zer da zuretzat?

Beti gauza bera da. Aktoreak oihuka ari dira eta lurtean itzulipurdika. Eta, adibidez, Moliere-ren antzerki bat ematen badute, pertsonaiak beti nazi moduan jantziak dira. Egia moral handiak adierazten dituzte, itxuraz, baina antzerkiak ez du funtzionatzen, antzerki gisa. Taula zuzendari inteligentek ere hortik ezin ateraz ari dira, Frantziako Kultura Ministerioak hori nahi duelako. Halere, doi bat irekiagoa da gaurko egoera. Baina ni nardatua nintzen jada.

Zure zinema ere berezia da, bi hitzez nola laburbilduko zenituzke zure berezitasunak?

Elkarrizketa garrantzitsuenak hegiz hegi filmatzen ditut. Berez,

zinemaren arauen arabera, hori ez dugu egin behar. Tradizionalki elkarrizketa bat filmatzen delarik, kamera existitzen ez dela sinetsarazi nahi dugu, kamera saihets batean gordez. Baina horrela, pertsonaren begirada galtzen da. Eta norbaitekin hitz egiten delarik, indarraren parte handi bat begiradatik jasotzen da. Teknikoki, nirean, kamerari begiratzen dio pertsonaiak. Baina, historian, beste pertsonari dio begiratzen.

Usaiatik kanpoko egin moldea denez, horrek halako distantzia bat sor dezake ikuslea eta filmaren artean; filmean ez da hain errazki sartzen...

Niretzat, alderantzizkoa da. Pertsonaren baitan gertatzen ari denari hurbiltzeko aukera ematen du. Eta usu hori da gertatzen. Bistan dena, lehen minutuetan harrituak gaude, baina ondotik, ikusleek diote ahanzten dutela berezitasun hori.

Zinemaz mintzatzean joko psikologikoa ere salatu izan duzu... Esplikatu ahal duzu hori?

Joko psikologikoa jarraitzen dutenek dena intelektualizatzen dute. Hortik ez da deus errealik

jalgitzen, dena intelektualala da. Nire iduriko, ez du balio zinematik egitea bizian ikusten dena zineman ikusteko. Hobe inguruari begiratzea. Aldiz, niretzat, munduan badira gauza gorde batzuk. Batez ere gure mundu modernoan. Espirituala den guztia ukatua da, nolabait erraiteko. Alta, niretzat, gauza guztietan

«Gauza guztien espiritualtasuna ikusten laguntzen ahal gaitu zinemak»

«Euskaldunak bi hizkuntzarekin sortuz bi aldiz existitzen dira. Horrek liluratzen nau»

bada espiritualtasun bat, eta hori ikusten laguntzen ahal gaitu zinemak. Niretzat, zinema egiten da mundu materialeko zatiekin. Nik hori dut bilatzen, presentzia erreala bat.

Presentzia erreala?

Termino teologiko bat da, indar espiritual adierazteko, jende eta gauzen baitan gordea dena. Eta pertsonaien arteko elkarrizketak hor daude, ez berez duten balioagatik, baizik eta orduan hitz horiek adierazten dituzten pertsonen beren baitatik askatzen dutenagatik.

Zinematik literaturara pasatzeko, *La Bataille de Roncevaux* liburuan, hizkuntzarekiko harreman berezia agertzen da. Gotzon euskalduna da, baina frantsesez ere mintzo da. Euskaldunek hizkuntzekin duten harremana aztertzen ahalegintzen zara...

Nire ustez, gizakiaren berezitasuna hitza da. Hitzak du egiten gizona. Existitzen gara hizkuntza baten bidez. Ni *basakeriaren herrian* sortu naiz, Ipar Amerikan. Eta han ez dute hizkuntzarik. Eta ondorioz, nihaurek aurkitu behar izan dut nire hizkuntza. Horregatik etorri naiz Europara, eta aurkitu dudana hizkuntza hori frantsesa izan da. Baina beste hizkuntza batzuetan ere hitz egiten dut. Eta badakit ez garela pertsona bera, hitz egiten dugun hizkuntzaren arabera.

Nola, «ez dutela hizkuntzarik»?

Barbaroek erabiltzen duten mintzaira soinuarena ez da zinezko hizkuntza. Ingelesetik dator, baina ez du lur eta historia komun batean errota den sustairik.

Eta euskara nola ikusten duzu?

Ni bezalakoak, hizkuntza anitzetan mintzo direnak, hizkuntza horiek ikasi dituztelako mintzo dira. Baina hemen, euskaldun guztiak bi hizkuntzarekin sortzen dira. Batetik, ama hizkuntza, eta bestetik, Estatu batek inposatzen diena. Ondorioz, euskaldun batentzat mundua doblea da. Bi hizkuntzen bidez, bi aldiz existitzen da. Horrek liluratzen nau.

Ripsteinek dio Zinemaldiari egindako kritikez damutzen dela

Zinemagilearen arabera, amorrak eraman zuen adierazpen horiek egitera; «penagarritzat» jo du gertatutakoa

Erredakzioa

«Hirak hitz egin zuen, eta hira mozkorra bat bezalakoa da; ezin izan nuen kontrolatu». Arturo Ripstein zinemagilearen hitzak dira, Donostiako Zinemaldiaren ostean egindako adierazpenen ingurukoak. Damututa dago, oso. Hark azaldu duenez, kasketa batek eraman zuen horretara; bestela, ez zen inoiz halakorik gertatuko. «Gorabehera penagarri» gisa definitu du gertatutakoa, eta atzo kaleratutako ohar batekin amaitutzat eman nahi du kontua. «Onartzen dut egin ditudan film batzuez damutzen naizela, baina are gehiago damutzen naiz eman ditudan elkarrizketez».

Jose Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendariak esker onez jaso ditu zinemagilearen hitzak, eta Ripsteinek kaleratutako oharra «bera bezain bikaina eta dibertigarria» dela azaldu du. «Zinemagile handia da, kontatzeko eta esateko gauza asko dituelako».

Irailaren 29an *Gara* egunkarian egindako elkarrizketa batean esandakoek piztu zuten sua. Zinemaldira ez zela itzuliko jakinarazi zuen, «jairaldi serio» bat ez dela iritzita.



Cristobal Aguilo Dominguezen kartelak iragarriko du aurten Durangoko Azoka. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Galiziako kultura izango da gonbidatu nagusia aurten Durangoko Azokan

Abenduaren 4tik 8ra izango da azoka; aurtengo kartelak liburua eta diskoa uztartzen ditu

Maite Alustiza

Durangoko 46. Euskal Liburu eta Disko Azokak Galiziako kultura izango du gonbidatu nagusi. Hala jakinarazi zuen atzo Gerediaga elkarteak, azokaren antolatzaile-

ak. Abenduaren 4tik 8ra izango da azoka, eta Gerediaga eta Cultural Galiziako elkartearen elkarlanari esker, Euskal Herriko eta Galiziako sortzaileek batera parte hartu ahal izango dute hainbat ekimenetan. Agadic kultur industria galegoen agentziak laguntza eskaini du elkarlanerako.

Cultural elkarteak Galiziako kultur industriaren inguruko azoka antolatzen du urtero; aurtengoa abenduaren 2tik 4ra izango da, Pontevedran.

Horrekin batera, azoka iragarriko duen kartela aurkeztu zuten atzo. Cristobal Aguilo Dominguez diseinatzaileak egindako kartelak irabazi du; hogeita zortzi lanen artean hautatu dute. Gerediaga elkartearen arabera, bi osagai nagusi uztartzen saiatu da egilea: liburua eta diskoa. «Binilozko diskoa oinarri hartuz sortu du irudia: liburu bat irakurtzen dabilen pertsonaia bat». Murtziakoa da Aguilo Dominguez (Espainia); Durangokoaz gain, lau kartel lehiaketa irabazi ditu aurten.

→ Laburrak

80ko hamarkada eta krisia aztertuko dituzte Bilbon

ARTEA Egungo krisia 80ko hamarkadaokarekin alderatuz aztertuko dute Bilbon. Horretarako, Alondegia hainbat ekitaldi prestatu ditu, El Grito De La Calle zikloaren barruan. *Quinquis de los 80. Cine, prensa y calle* erakusketa da horietako bat. Horretan, dokumentalak, prentsa artikulak eta bestelako euskarriak erabiliko dituzte garai hartako errealitatea azaltzeko. Hitzaldiak eta kontzertuak ere izango dira, hilaren 28tik aurrera.

Haurrentzako herri kantak bildu dituzte disko batean

MUSIKA Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko bederatzi herri haurrentzako herri kantak bildu dituzte disko batean. *Orbelak airez airez* izena du lanak, eta 6 urte arteko haurrentzat egindako bilduma bat da. Abestiak ez ezik, kantuek ikasteko gida eta eskualdeko hainbat esaera zahar ere jaso dituzte lanean.

Iradierren erakusketa hilaren 25ean itxiko dute

ARTEA Manuel Iradier bidaiari eskainitako erakusketa datorren igandean kentzekoak ziren, Gasteizen. Bisitari kopuru handia dela eta, kentzeko eguna atzeratzea erabaki dute, eta hilaren 25ean itxiko dute. Ehun urte dira Iradier hil zela, eta bidaiariaren bizitzari errepaso egiten dio erakusketak. Bidaiaria ez ezik, asmatzailea eta diseinatzailea ere izan zen.

Gozoki pozoitua

Kritika

Zinema

'Urte berri on, amona!'

Zuzendaria: Telmo Esnal.

Aktoreak: Kontxu Odriozola, Pedro Otaegi, Nagore Aranburu, Joxean Bengoetxea, Montserrat Carulla.

Gontzal Agote

Urte dezente eman ditugu euskal zinemagintza —euskaraz egiten den hori, alegia— komedia giroaz eta teledibistako aje ugariz noiz askatuko esperoan. Pauso itxuraz txikia, baita gaietan zein estetikan ere eremu berriak eskuratzeko ezinbestekoa.

Sei urte joan dira Esnalek eta Altunak *Aupa Etxebeste!*-rekin gure filmografia urrian aro berri

eta berritzailea ireki zutenetik. Film hori mugarririk izan zen; hortik aurrera gauzak diferente egiteko eta ulertzeko bidea zabaldu zen, eta ordu arteko konplexu asko alboratzen lagundu zuen.

Urte hauetako balantzea gorabeheratsua izan da; harribitxi askorik ez da izan, eta dezepzio, berriz, zenbait. Hala ere, iparrorratzak argi segitu du norabidea markatzen. Eta fruitu helduak hasi dira ailegatzen. *80egunear* filmak (Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño, 2010) argi utzi zuen aldaketa garaia iritsia zela; ildo bertsutik dator Telmo Esnalen film berria.

Izan ere, pelikulak duen egiturak argi erakusten du historia hurbilean euskal zinemak berak izan duen garapena. Lehen zatian komedia tonua da nagusi; no-

labaitako kostunbrismoa agertuko da, etxebestetarren girotik oso urrun ez dagoena. Erdialdetik aurrera, baina, filmak bestelako norabidea hartuko du: umorea guztiz desagertu gabe ezkutatu da, eta haren lekuan giro beltza, kontakizun gordina eta harremanen armiarma sare itsaskorra nagusitu dira.

Bigarren parte horretan bihurtzen da bereziki erakargarria *Urte berri on, amona!* Istoriorekin batera, paisaia bera ilunduko da, eta fotografiak ezin hobeki islatuko du aldaketa hori. Zinematografikoki heldutasun ukazina agertzen du Esnalen filmak; enkoadreek, muntaketak eta erritmoak berezko hizkera zaindu baten erakusgarri dira. Coppolaren oihartzuna dakarren kanposantuko euskal tragediaren munta-



Urte berri on, amona!, Telmo Esnal zuzendariaren filma. BERRIA

keta paraleloa da horren adibide garbietako bat.

Horrez gain, *casting*-arekin asmatu izana da pelikularen beste bertute nagusietako bat. Artifizialtasun zantzu oro saihestuz, aktoreek primeran bete dituzte beren rolak; denen artean azpimarratzekoa da Joxean Bengoe-

txearen lan bikaina, baita Nagore Aranburuk ematen dion erreplika neurtua ere. Euskal zinemagintzaren barruan apustu ausart bezain beharrezkoa da *Urte berri on, amona!*, eta ikuslearentzako pozoiz beteriko gozoki bat da, barenan sorpresa ugari ezkutatzeko dituen komedia-tranpa.

Nobel saria, immunitate sistemaren ikerketarentzat

Medikuntzako Nobel saria Jules Hoffmann frantziarrari, Bruce Beutler estatubatuarri eta Ralph Steinman kanadarrari eman diete

Ralph Steinman joan den ostiralean hil zen, eta kolokan dago haren Nobel saria

Xabier Martin


Sari bakarra hiru sarituentzat. Medikuntzako Nobel saria hiru ikertzailei batera eman diete, eta sariak berekin dakarren diru kopurua partekatu egin beharko dute. Medikuntzan zabala den atal batean aritu dira azken urteotan hirurak: immunitate sistema. Bruce A. Beutler estatubatuarri eta Jules A. Hoffmann frantziarrak sariaren erdi bat partekatuko dute (1,1 milioi euro); beste erdia Ralph Steinman kanadarrarentzat izango da.

Steinmanek, ordea, ez ditu eza gutuko Medikuntzako Nobel saria irabazteak ekartzen duen nazioarteko onarpena eta ospea, ostiralean hil baitzen, irailaren 30ean. Eta horrek arazo bat dio Nobel batzordeari; izan ere, sariaren oinarrietan —1974an finkatutako araudia— garbi azaltzen da Nobel saria ezin zaiola eman hildako bati. Gerta daiteke saria erabakitzea saritua bizirik dagoela baina jaso aurretik hiltzea. Araudiak baimentzen du hori.

Ralph Steinman kanadarraren Nobel sariarekin zer gertatuko den jakiteko «goizegi» da oraindik. «Nobel fundazioarekin batera aztertuko dugu heriotza honek zer ondorio izango dituen», esan du Goran Hansson-ek, Nobel batzordeko idazkariak. «Ustez ezin da hildako egile bat saritu, baina hau egoera oso berezia da, erabakia hartu eta ordu gutxira hil baitzen Steinman».

Terapia berriak

Edonola ere, immunitate sistema aktibatze giza gorputzean martxan jartzen diren mekanismoen ikerketa saritu du Nobel batzordeak. Hala sendakizunak nola sendagaitzak diren hainbat gai-xotasunetan aurrerakuntza handia izan da horri esker, terapia arloan. Esaterako, zenbait minbiziari aurre egiteko ezinbesteko bihurtu dira immunitate sistemarekin lotutako terapiak. Atal horretan hartu dute sona Beutlerren (Chicago, AEB, 1957) eta Hoffmannen lanek (Echternach, Luxenburgo, 1941). Immunologia



Karolinska institutuak hiru sarituen izenak eman dituen unean. LEIF R. JANSSON / EFE

kongenittoa aktibatze aurrerapauso nabarmenak eman dituzte, eta haiei esker, minbiziak bakarrik ez, artritis erreumatikoak, Chronen gaitzak eta psoriasisak berak ere beste era bateko sendabideak dauzkate gaur egun.

Era berean, gizakiaren immunitate sistema indartzeko eta martxan jartzeko ikerkuntzan aritu da Ralph Steinman (Montreal, Kanada, 1943-2011). Baina, haren kasuan, Nobel saria zelula dendritikoaren aurkikuntzarekin dago lotua. Zelula hori ezinbestekoa da gizakien immunologia egokigarriaren aurrera egiteko; hori da gorputzaren erantzun immunologiakoaren azken aroa. Hala esan du Nobel sariak banatzen dituen erakundeak, Stockholmgo Karolinska institutuak.

XX. mendean giza immunologiaren osagaiak identifikatuz joan dira zientzialariak, banabanaban. Gainera, horietako ba-

tzuk Nobel sariarekin lagundu dituzte. Baina gorputzak berez duen erantzun immunologikoa nola aktibatzen zen ezezaguna zen aurten saritu dituzten hiru ikertzaileek euren lanak osatu arte. Halaber, misterioa zen be-

Ralph Steinmann heriotzak egoera zaila eragin du Nobel batzordean

Gorputzaren erantzun immunologikoa martxan nola jartzen den ikertu dute egileek

rezko erantzun immunologikoren eta erantzun immunologiko egokigarriaren arteko harremana nola garatzen zen, harik eta Beutler, Hoffmann eta Steinmanek azaldu zuten arte. Kanada-

rrak zelula bat deskubritu zuen 1973an, zelula dendritikoa. Zelula horiek T zelulak aktibatze gaitzirela azaldu zuen. Gorputzaren oroimen immunologikoa garatzeko, ezinbestekoak dira T zelulak. Hala, immunitate sistema egokigarria nola aktibatzen den azaleratu zuen.

Gaur, fisikakoa

Horrenbestez, Robert G. Edwards (Manchester, Erresuma Batua, 1925) iazko Nobel saridunaren lekukoa hartu dute hiru zientzialariak. Era berean, *In vitro* ernalkuntzaren gaiak lekua utzi dio immunitate sistemaren ikerketari. Atzo jakinarazitako medikuntza alorreko aitortzak ireki du aurtengo Nobel sariaren zerrenda. Gaur, Fisikako saria jakinaraziko du Karolinska institutuak, eta, bihar, Kimikakoa. Literatura, Ekonomia eta Bakearen Nobel sariak osatuko dute zerrenda.

BIDAIA ETA MENDI KRONIKEN LEHIAKETA 2011

Oinariak

Neurria: Idazlana 8.000 eta 10.000 karaktere artekoa izango da (tarteak kontuan hartuta).

→ Idazlanak beste inon argitaratu gabeak izango dira.

→ Testuekin batera, 8-12 argazki aurkeztu beharko dira. Diapositibak, papereko argazkiak eta argazki digitalak onartuko ditugu. Argazki digitalak bete beharko dituzten baldintzak: 1.800x1.200 pixel gutxienez, eta jpg formatua.

→ Argazkiez gain, bestelako elementu grafikoak ere onartuko ditugu: mapak, ibilbideak...

→ Baloratuko dira esperientzia eta kontakizunaren originaltasuna, hizkuntzaren egokitasuna eta aberastasuna, material grafikoaren kalitatea eta mapa edo bestelako osagarrien ekarpena.

→ EUSKAL EDITOREA SLk beretzat gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten utziko dio EUSKAL EDITOREA SLri, euskarri inprimatuan, Interneten edo beste edozein modutan.

→ Lanak azaroaren 13a baino lehen bidali beharko dira, posta arruntez edo elektronikoz, helbide honetara:

Bidaia eta mendi kroniken lehiaketa. BERRIA
Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 Andoain
Posta elektronikoa: irakurle@berria.info

Sariak:

1. → Irabazlearentzat, Mendiak eta Herriak mendiko gidarien elkartearen oparia.

CERVINO ITZULIA, pretsona batentzat, Mendiak eta Herriak gidariarekin.

PROGRAMA:

- DONOSTIA-CHAMONIX-SAAS GROUND
- SAAS GROUND-TASCH-ST NIKLAUS-GRUBEN
- GRUBEN-ZINAL
- ZINAL-MOIRY
- MOIRY-AROLLA
- AROLLA-PRARAYER ATERPEA
- PRARAYER ATERPEA-BREUIL-CERVINIA
- CERVINIA-THEODULPASS-ZERMATT-TASCH-SAAS GRUND
- SAAS GRUND-CHAMONIX-DONOSTIA

2. → Parte-hartzaile guztien artean zozkatzeko, Aralar kirol dendaren oparia.

100 euroko 3 bonu zotz egingo dira.

Lana bidaltzen duten guztiek jasoko dute **BERRIaren elastikoa opari.**

Babesleak

Mendiak eta Herriak

Mendi gidari elkarte
Tel./Faxa: 948-513233
info@mendiaketaherriak.com
www.mendiaketaherriak.com

mendiak eta herriak
107000 Bidaia Gidari Elkarte - Asociación Vasca de Montaña 1979

Aralar Kirolak

Marino Tabuyo, 6.
Donostia
Tel.: 943-321594

Laskorain, 7, Tolosa
Tel.: 943-654916



Osasuna >

Plazer erotikoa



Sexologia

Agurtzane Ormatza Imatz

Orain dela gutxi berriro ere emakumeon plazera izan dute aztergai, baina esan beharra daukat idatzitako izenburu gehienetan plazera baino gehiago orgasmoa izan dela erabilitako terminoa. Baina tira, utz dezagun terminoen hausnarketa beste egun baterako.

Ameriketako Estatu Batuetako Rutgers unibertsitatean egindako eta *Journal of Sexual Medicine*-ek argitaratutako ikerketa batek oihartzun handia eduki du. Komisaruk Doktore jaunak eta haren taldeak, erresonantzia magnetikoaren bidez, 11 emakumeren burmuina aztertu zuten. Emakumeak masturbatzen ari ziren. Erresonantzia agertutako irudien ondorioz, zientzialariek, besteak beste, hauxe ondorioztatu zuten:

- Masturbazioak burmuinaren hainbat alor aktibatzen ditu, 30 zati. Batzuk ukimenarekin, memoriarekin, plazerarekin eta minarekin lotuta.
- Klitoria, bagina eta umetokiaren zama plazeraren iturri zuzenak dira. Hirurak batera zein baikoitzak bere kabuz aktibatzen dute burmuinaren azala.
- Titiburuaren estimulazioak agerrarazi zituen aurreko iturrien estimulazioak islatutako bezalako irudiak.

Horrelako ikerketak gure lanerako akuilu bat izaten dira.

Emakumeen eta gizonen gorabeherak ulertzeko, gehienetan ezinbestekoa da haien biografia ezagutzeko. Ernalkuntzarekin hasten den eta bizitzan zehar egituratzen den biografia. *Continuum* baten bizi gara eta.

Biografia hauetan behin eta berriz ikusten dugu zein berdinak garen eta zein desberdinak garen, zelan masturbazioari

Plazeraren eta orgasmoaren bideak askotarikoak dira; gure gorputzak, gu garena...

buruzko jarrera eta bizipen positiboek masturbazioaz gozaten laguntzen duten. Jarrerak, edukiak... biografiaren bidez eraikitzen ditugu. Beraz, hainbat alor ukitzen dira: gure memoria, gure gozamenak, gure minak... Eskerrak denak fotografian agertzen diren!

Baina burmuinaren zer zati aktibatzen edo desaktibatzen da masturbatzen ari garenean eta fisiologikoki kitzikatuta egon arren plazerik ez dugunean sentitzen?

Gure barneko eta kanpoko genitalen hiru toki, hiru etxe, hiru iturburu. Hirurak gozamenarako... eta emakume batzuk, oraindik iturburu horiekin gozatu gabe. Gehienak zatika, hau da, baginarekin bai eta klitoriarekin ez, baginarekin bai baina orgasmoa klitoriarekin, eta umetokiaren zama mina. A ze korapiloa! Eta badaude guztiekien eta aldi berean. Ziur nago bakoitzaren biografian topatuko dugula erantzuna, betiere bat baino gehiago. Bitartean, jarraitu gozaten gorputzeko hainbat iturburu kitzikagarriekin.

Titiburuak plazer garriak dira, askorentzat titi osoa ere bai, baina denentzat ez. Emakume berrari momentu batzuetan bai eta zenbatetan gertatzen zaio justu kontrakoa, ezta? Aspaldian emakume batzuek egin zuten azterketa zuzena. Haien bizipenetan baino ez zegoen idatzita, baina. Muin hezurreko lesio baten ondorioz, emakume gehienak genitalen sentazio eskasarekin edota ezarekin geratzen dira. Hainbat emakumek, genitalen sentazioa berreskuratzen saiatzeaz gain, gozaten zeudenarekin sakondu zuten. Bidean titiak, titiburuak garrantzia hartu zuten. Plazeraren bidetik orgasmoaz ere gozatu arte. Orduan zientzialari askorentzat batzuen asmakizunak baino ez ziren. Egun oraindik batzuentzat paraorgasmoak edo bestelako plazera baino ez da. Eskerrak, beraz, Komisaruk taldekoei, emakumeek zekitenari argazkia ateratzearren.

Plazeraren eta orgasmoaren bideak askotarikoak dira: gure gorputzak, gu garena... Benetan poz-tuko naiz erresonantzia gero eta argazki gehiago ateratzen badute, gure sentazioak berresteko, gure kritikak pizteko, gure hausnarketak sakontzeko, belarriak erne edukitzeko, sentazioak ikertzeko, gurean sustraitzeko.

Ezagutzak ezagutza dakar.

Aro berriak

Udazkenean psikologia



Psikologia

Arantza Quecedo Urrutia

Nahiz eta egun hauetako eguraldia laino gabea eta berotsua izan, udaren bukaeran eta udazkenaren hasieran naturan, gure eginkizunetan eta baita gure barnean ere aldaketa ugari gertatzen dira. Udazkeneko uztak eta fruituak batu, eguna apurka laburtu, eguzkiaren indarra galdu, hostoen koloreak aldatu. Bitartean gure eginkizunak bueltatzen dira: beharrak, ikasketak, batzarrak, seme-alaben eskolak, eta abar. Beraz, artikulu hau inprimaturik agertzen denerako udako erritmo lasaia erdi ahaztuta edukiko dugu jadanik.

Bizitzako zikloak eta erritmo aldaketak beharrezkoak dira gu-

re osasunean, bai fisikoki eta bai buru osasunean ere. Udako erritmoa arinagoa izaten da: kalean ibili eta bizi, etxetik kanpo denbora gehiago eman, pertsona gehiagorekin batu, jaiak ospatu, bete-beharretan oporraldia egin, eta, nola ez, horrek guztiak bizipen ugari, sentipenak, oroitzapenak, barreak eta hainbat esperientzia desberdin dakartza. Udazkenarekin batera ziklo berria sortzen da, non psikologikoki aldaketa inportanteak dauden: egunerokotasuna, nor bere buruarekin egotea, errealitatea bueltatu eta udako emozioak, frustrazioak eta sentipenak ikertu, sailkatu, geure burua lasaitu, eta erritmo lasaigo batera bueltatu.

Ongi etorri ziklo berri honetara, eta has gaitezen geure burua zaintzen: gorputza eta jatekoa; geure burua lasaitzen eta ikertzen...

Udazkenean gaixotasun batzuk areagotu egiten dira; gure arloan antsietatea, depresioa eta somatizazioak, batez ere. Horrez gain, psikoterapia tratamenduak ere gehiago hasten dira sasoi honetan. Sinpleegia izango litzateke udazkenak sortzen dituela esatea. Kimikoki serotoninak, endorfinak eta beste batzuek euren kopurua moldatu beharko dute egokitze natural batean. Baina egia da, era berean, gogoeta gehiago egiten dugula udazkenean, horretarako ere uda igaro eta gerorako uzten baititugu gauza serioak, eta ikasturte hasieran gure barneko erreposoa egiten dugu, eta honen bidez gure barne korapilak hartu eta aurre egiteko prest, aldaketak sortzeko prest eta behar izanez gero laguntza eskatzeko prest agertzen gara.

Beraz, ongi etorri gure Psiko ziklo berri honetara eta has gaitezen geure burua zaintzen: gorputza eta jatekoa; geure burua lasaitzen eta ikertzen, hobeto uler dezagun.

Erritmoa edo melodia

Adimen emozionala

Karmele Gurrutxaga

Udazkena, ikasturte berraren hasiera, agur oporrak... Guztia abiatzen jartzen den honetan, ordutegiak edo ezinbestean ezarritako betebeharrak gure agendaren gidari bilakatzen dira berriro. Hala, kanpoko erritmoen harian bizi garela esan genezake; indar horiek antolatzen dutela gure bizitza, alegia.

Hori dela eta, tamalez, geure barruak eskatzen digun *barne-melodia* entzuteko gaitasuna galtzen dugu; hau da, betebeharrak ezinbestean bete behar diren

arren, ezinbestekoa ez denaz, aukeratu dezakegunaz jabetzeko zentzumenaz oihartzun ere ez garelako egiten; badirudi guztia betebeharrak bilakatzen dela.

Bai, egia ukazezina da kanpoko baldintzek eragin handia dutela gurean; baina, benetan eta zintzoki pentsatuz, konturatzen al zara hainbat eta hainbat egoeratan zuek ezartzen duzula zeure erritmo trinko hori? Ba al da zure eguneroko jardunean, zerbait aldatu edo egokitze aukera ematen dizun egoeraren bat? Nahiz eta agian jabetu ere ez egin? Nire kasuan, gaixoa bati esker, ezer egin gabe egoten ez nekiela konturatu nintzen. Pixkanaka biz-

kortzen ari nintzela, egitear nuen gauza mordoa zetorkidan gogora... baina, aldi berean, ezer egin gabe egoteko gogoak ere bere lekua eskatzen zuten. «Nolatan hainbestearinoko alferkeria?», zioen nire barneko nagusiak, egoera deritzogun horrek. Eta denboraz, zera argitu zitzaidan: hori, alferkeria baino gehiago, automatismo moduan jokatzeari uzteko ahalegina zela. Neure barneko melodia entzuten hasi nintzela, ohean egoteak behartuta. Eskerrak gaixotasunari!

Eta zure kasuan, ba al duzu isilpean, mututurik dirauen melodiaren bat? Entzun eta erabaki, beraz!

ERROTA
HORTZ KLINIKA

ZURE AHO OSASUNAREN ZAINZAILAK

Julian Apraiz, 1
01012 GASTEIZ
Tel.: 945 21 33 90
errotadental@euskalnet.net

ADIMEN EMOZIONALEKO TALDEA

Hemen eta Orain... Zein emozio da nagusi?

Geure buruarekin bizitzen jakiteko Emozioak entzun, ulertu eta ikasteko

ASTEROKO TALDEA. Donostian
Info: 669 30 11 36 karmelgu@hotmail.com

Ezarian → Kilometroak

Eguraldia lagun, 100.000 lagunek parte hartu dute, Azpeitian, Ikasberri ikastolak antolatutako Kilometroak festan. Antolakuntzaren iragarpenak gainditu dira.

Eguzkiak berotutako festa

Iñaki Lasa Azpeitia

Urrats txikien baturak egiten du bide luzea. Metroz metro kilometroa. Herenegun Azpeitian egin ziren milaka klik keinu txikik erraldoi egin zuten Gipuzkoako ikastolen aldeko festa. 100.000 klik inguru guztira. Urola Kostako herri horretara bildu zen jende uholdeak gainezka egingo zuela zirudien, baina, azkenean, ekaitzak festa giroan egin zuen eztanda.

Orain dela 11 urteko Kilometroen oroitzapena buruan zutela —euria goian behean egin zuen urte hartan—, eguzkiari erreguka pasa zituzten aurreko asteak antolakuntzako kideek. Eguzkiak erantzun, eta hura gurtzeko aukera eman zien guztiei. Gurtzeko, edo urtzeko; beroak erruz jo baitzuen, jende andana gerizpean babestera behartuz.

Beroa, baina, ezin zen aitzakia izan, eta, egiari zor, jendeak ez zuen aitzakia gisa erabili. Bost gutan banatuta zegoen ia sei kilometroko ibilbidea, eta lepo bete zen. Goiz-goizetik, gainera. Betagarrik eman behar zuen kontzertua ordu erdi aurreratu zuten, eta 11:00etan Garmendipeko oholza gainera igo zirenerako milaka gazte zituzten esperoan.

Eztarriak berotuta, Realaren eta Athleticen arteko derbiaren ordua iritsi zen. Hasiara batean oztupo izan zitekeen, baina akulu bihurtzen asmatu zuten antolatzaileek. Kilometroetako kamisetaz aparte, elastiko txuri-urdin eta zuri-gorri mordoak ikus zitezkeen Azpeitian. Garmendipeko pantaila handian zein beste guneetan jarri ziren telebistetan ikusi zuten partida.

Garmendipeko bigarren gune horrek bildu zuen jende gehien. 14-24 urte bitarteko gazte ugari egon ziren musika, futbola, alkohola eta festa erruz nahasten. Bai-

na beste urteetan gertatzen ez den bezala, nahikoa sakabanatu zen jendetza. Antolakuntzak kontzertuak gune askotan prestatu zituen. Musika emanaldiez gozatzeko, Betagarri ikustera lehenengo gunera joan zen jendea, Lauroba ikustera hirugarrenora eta Ze Esatek! taldea ikustera, berriz, bosgarrenora.


Irrien Lagunek etxeko gazte-oxoak alaitu zituzten lehenengo gunean, eta dantza, bertso eta herri kirolen saioak izan ziren laugarren guneko ardatz.

Auzolanaren eredu bihurtu zen igandean Azpeitia. Herriaren eta Urola Kosta osoaren babesa jaso zuen Ikasberrik, eta 1.300 boluntario inguruk musu truk lan egin zuten dena ondo ateratzeko. Haiekin batera, ondo pasatzera joan zen jendea ere proiektuaren alde agertu zen, eta pertsona gehienek eskumuturrean ikus zitezkeen sarreran ikastola diruz laguntzeagatik ematen zituzten eskumuturrekoak.

Agintarien presentzia ere izan zen. Goizeko hasiera ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Isabel Zela Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza sailburuak, Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusiak, Markel Olano ahaldu nagusi ohiak eta Lohitzune Txarola Batzar Nagusietako lehendakariak.

Lekukoa, Andoainera

Igandekoa bezain egun arrakatsua izateko asmoarekin hartu zuen lekukoa Andoaingo Aita Larramendi ikastolak. Eguerdian egin zuten lekukoa eskuz aldatzeko ekitaldia, eta 20:00 aldera egin zioten harrera Andoaingo udaltxean. Zentroa handitzeko helburua du Aita Larramendi ikastolako zuzendaritzak, txiki geratu baita azken urteetan, ikasle batzuk kanpoan gelditu baitira aurtengo ikasturtean. 1990ean ere antolatu zuten festa.



Loiolako santutegia atzean utzita, jendetzak egin zuen Kilometroetako ibilbidea. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



Juan Eizagirre, Nora Bikendi eta Gema Larrañaga, Kilometroak-en hasiera ekitaldian. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS


Ezarian → Kilometroak



Beroak ez zuen festa eragotzi, eta gazteak saltoka ibili ziren Betagarriren kontzertuan. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



Bigantxak izan ziren Azpeitiko kaleetan gatzetxoaren gozamenerako. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



Realaren eta Athleticen arteko partida ikusi zuen jendeak. J.C. RUIZ / ARP

Beñat Azurmendi • Ikasberri ikastolako zuzendaria

«Bete egiten zaitu etorri den jendeak erantzun egiten duela ikusteak»

I. Lasa Azpeitia

Pozez gainezka dago Beñat Azurmendi Ikasberri ikastolako zuzendaria. Urte osoko lanak fruituak eman dituela ikusteak bete egin du, eta, batez ere, denbora horretan jasotako laguntza guztiak. Bihotzez eskertu du ikastolaren alde jendeak eginiko lana, herritarrak eta Urola Kostako biztanleak proiektuan murgildu direla ikusi baitu.

Zenbat lagun bildu zenituzten Azpeitian?

Jende asko etorri zen. Ez dugu zifra zehatzik jaso, baina 100.000 lagun inguru egon zirela uste dut.

Pozik zaude, beraz.

Oso pozik. Eguraldiarekin, jendeak egindako lanarekin, herriarekin eta antolakuntzako lanarekin... Elkartasun mezua leku guztietatik jaso dugu. Barneko jendeak esan digu oso ondo antolatua genuela guztia, etorritako jendea ere gustura agertu zen garraioekin, ibilbidearekin, muntatzearekin... Alde horretatik, balorazio ona egiten dut, noski.

Nolakoa da egun handiaren ondorena? Lanpetua ala lasaia?

Beste poz batekin ari gara; aurreko hiru egunetako lana edo gaurkoa oso desberdina da. Berandu joan ginen atzo [herenegun] ohera, eta gaur [atzo] goiz jaiki gara. Nekea gorputzean dago, baina barruko poz horrek lanerako gogoia ematen du. Gaur bertan [atzo] ikastolako ikasle guztiak garbiketa brigadetan banatu ditugu. 200 ikasle inguru ditugu herria garbitzen; txikienak ikastola inguruan daude, eta handiagoak herri guztiko txoko bana garbitzen. Herriak eman diguna herriari eman nahi diogu orain.

Erantzun zabala jaso duzue: 1.300 boluntario aritu zirelan.

Herriarena ez ezik, Euskal Herri osoaren erantzuna jaso dugu. Horrelako jai bat aurrera ateratzeko, urte osoan 500 lagun inguru hamabi lan batzordetan banatuta eduki ditugu. Kilometroen moduko egun batek jendetza izugarria eskatzen du lanean. Herritar asko izan dira lanean, eta, horrez gain, leku askotako jendea etorri

da laguntzera. Auzolana berpizteko helburua geneukan, eta xede hori bete dela uste dugu.

Urte osoan ereindako lanaren fruitua jaso duzue?

Bai. Urte osoko lana izan da. Ahalgin horrek eman digu gure proiektua bai herrian bai eskualdean zabaltzeko aukera.

Aurreikuspenak bete dituzue?

Aurreikuspenak neurtzeko zailak dira. Azken hiru asteak egu-

«Auzolana berpizteko helburua geneukan, eta xede hori bete dugula uste dugu»

raldiari begira eman ditugu, baina eguzkia ateratzen ikusi genuen arte ez ginen guztiz ziur. Horrez gain, zenbait gunetan edaria eguerdirako bukatu zen, eta beste guneeetatik eraman behar izan genuen. Ogitartekoak eskatu bezain pronto bero-bero ateratzen genituen. Horrek bete egiten zaitu: lan egitera etorri den jendeak erantzun egiten duela ikusteak.

2000. urtean agertu ez zen eguzkia agertu zen igandean.

Orain, jendeak esango du bero gehiegi egin zuela. Nik, behintzat, nahiago dut beroa euria baino. Eguraldi aparta izan dugu, ezin gara kexatu. Orain 11 urte egundoko euri jasa egin zuen, eta ez dago konparaziorik.

Derbiari aurre egiteko, pantaila erraldoiak jarri zenituzten. Etsaiari aurre egin beharrean, hari batu?


Gauden gizartean gaude, futbolak indar handia du. Nola egin geniezaiokeen aurre horrelako gauza bati? Jendeari ikusteko aukera eskainiz. Gure aldetik, egin beharreko lana egin genuen. Saiatu ginen Realarekin hizketan, eta Realak berak ahalegina egin zuen, partida zapatuta pasatzea zaila izango zela jakin arren. Ez dakit Donostian zenbat lagun egongo ziren, baina bizkaitar pila bat zeuden Azpeitian. Akaso Donostiako tabernariak gu baino tristeago daude. Guk jende asko bildu genuen. Betagarriren kontzertuan ateratako argazkiak ikustea besterik ez dago.

Bildutako dirua zertan erabiliko duzue?

Lau helburu markatu genituen aurtengo Kilometroetarako. Alde batetik, auzolana berpiztu egin nahi genuen. Lortu dugula uste dut, eta orain horri jarraipena eman behar diogu. Bestetik, ikastola proiektua zabaldu nahi genuen, eta hori ere lortu dugu. Orain zenbat diru lortu dugun begiratu behar dugu. Orain dela hamasei urte inbertsio handi bat egin zen ikastolan, eta pixkanaka horri buelta ematen ari gara. Badaukagu proiektu berri bat ere, eta abian jarri nahi dugu. Oraingoz barne lana egin dugu, dirua bildu eta profesionalak prestatu. Egun daukagun eraikina hementik bost edo sei urtera txiki geratuko da gure aurreikuspenen arabera. Luzerako ikuspegiarekin egin dugu iragarpena, eta bildutako diruarekin lagundu nahi dugu proiektu hori.

Andoingo Aita Larramendi ikastolak hartu du lekukoa. Zer esango zenieke haiei?

Animo. Lan asko egin behar dela, baina bukaeran merezi duela. Horrelako egun batek egundoko mugimendua eskatzen du, baina gero bueltan ikusiko dute jendea etorriko dela, laguntza jasoko dutela. Pazientziarekin hartu behar dute, baina merezi du. Ikastolako ere merezi dugu, gure seme-alabek ere merezi dute.



Gernika-Lumoko lehenengo asteleheneko azokan egindako piriniotar arrazako lehiaketan 118 abelburuk parte hartu dute. Jon Koldo Bikandi izan da garaile nagusia.

Buztan eta adar artean

Lander Muñagorri Gernika-Lumo


Urteik urtera hobetzen ari den arraza bat», hala deskribatu du Piriniotar Arrazaren Euskal Herriko 26. Lehiaketako epaimahaiak aurten Gernika-Lumon izan den eskaintza. Piriniotar arrazarekin egiten ari diren lana eskertu zien ganadutegiei hitz horiekin. «Orain dugun kalitatea hobetzen zaila da». Urriko lehen asteleheneko azoka egin zen atzo, ganaduari eskaintakoa, eta horren harira, 23 ganadutegitako 118 abelburu aurkeztu zituzten Bizkaiko udalerrian. Zekor, bigantxa, behi eta zezen, denek izan zuten lekua Santa Anako aparkalekuan egokitutako gunean. Goiza marru artean igaro zen, abelburuak elkarrekin lehiatzen.

Animaliak ikustera jende ugari batu zen Gernika-Lumon egin zen feriara, baserriar eta kaletar, denak ere ganadua ikusteko gogoz. Batzuek ikusi besterik ez zuten egin; besteek enkantean parte hartu zuten. Horien guztien artean, hainbat haur zebiltzan koaderno eskuan, behien bereizgarriak orrietan idazten. «Askok gustatzen zaizkit behiak», zioen haurretako batek. Ganadu feriarenean, eskulangileek ez zuten euren produktuak saltzeko aukera galdu.

Jon Koldo Bikandi garaile nagusia

Hainbat sailetan egin zuten sari banaketa, eta denen artean Iurretako (Bizkaia) Jon Koldo Bikandi abeltzaina gailendu zen. Behi, zezen eta ganadutegi onenen sariak jaso zituen Bikandik, eta epaileen laudorioak jaso zituen, gainera. Abeltzainak lehiara eramandako behiaren edertasuna, lepo eta bizkarraren arteko oreka eta gorpuzkera nabarmendu zituzten, esaterako. Eta zezenen inguruan ere, hitz txarrik ez. Bi sari horiek bereganatuta, zaila zuen Bikandik ganadutegi onenaren saria ez jasotzea, eta Gernika-Lumora eraman zuen eskaintza aparta zela onartu zuten epaimahai-kideek.

Bikandi, berriz, poz-pezko zegoen sari horiek guztiak jasota. «Esperantza handiarekin etorri gara gaur, baina ez genuen horrenbesteko saririk espe-



Jon Koldo Bikandi, saritutako behia eskullatzen. LUIS JAUREGALTZO / ARGAZKI PRESS

ro», esan zuen erabakien berri jakin ostean. Zortzi urtez etorri da Iurretako abeltzaina Gernika-Lumora, eta hainbat sari jaso ditu, «baina sekula ez denak batera». Horregatik, aurtengo ferian lortu dituenak berriro lortzea zaila dela adierazi du, gainerako ganadutegiek ere «sekulako maila daukate-lako».

Urte ezin hobeia izan du aurtengoa Bikandik, eta, horregatik, orain arteko bigarren lan egiten jarraitu behar dela nabarmendu zuen atzo. Sari guztiak ez zi-

tuen berak bereganatu, ordea. Artifizialki ernaldutako behi onenaren saria Iurretako Rufino Jaiok bereganatu baitzuen.

Lehiatu ez ziren bi abeltzainek ere, Antoniok eta Marijosek, saria jaso behar zuten atzoko ekitaldian, piriniotar arrazaren hazkuntzan nazioartean erreferente izan direlako urteetan. Omenaldia, ordea, bertan behera geratu zen, osasun arazoak tarteko sarituak ezin izan baitziren Gernika-Lumora etorri.



Maratila

Santi Leone



Otso jauna

Oxforden, Timothy Garton Ash ezagutu nuen. Are gehiago: behin, mintegi batean, haren ondoan suertatu nintzen. Esperientzia zoragarria izan zen. Hark ahoa ireki bezain fite, erabateko isiltasuna hedatzen zen gelan baina, eta parte hartzaile guztiak adidi egoten ziren, jakinduria putzu hartarik zer aterako zain. Tira, Garton Ashen iruzkin batzuk bikainak ziren, eta bertze batzuk, erdipurdikoak; gu guztiok bezala, alegia. Edonola ere, iduri zuen bera eroso zela ingurukoek erai-kia zioten gurtze giro hartan. Auskalo.

Nafarroako Unibertsitatean ere horrelako irakasle bat izan nuen, Olimpon ibiltzen diren horietarik. Horrek jakin-mina piztu dit beti. Erran nahi dut, bat jainko sortzen da, edo jainko bihurtzen da? Eztabaida klasikoa da. *Nace o se hace? Nurture or culture?* Eta erantzuna bigarrena dela onartuz gero, nolakoa da prozesua? Egun batean ohatzera gizaki arrunt joan eta biharamunean izaki zerrutiar itzarri, edo emeki-emeki hasten da bat lurretik hamar zentimetrora lebitatzen? Auskalo.

Berriki irakurri dut Taschen argitaletxeak *The Almodovar Archives* kaleratu behar duela. Zinema zuzendariaren munduari buruzko liburua. Baina, batez ere, honek eman dit atentzioa: Almodovarrek berak bereizi ditu liburuan bere filmak aztertuko dituzten kritikariak. Nik, dena den, *Pulp Fiction* ikusteko gomendatuko nieke. Akabera aldera, Vincent Vega eta Jules gangsterrak elkar zoriontzen ari direla gauzak hain xarmanki egiteagatik, Otso jaunak aholku eder hau eman die: «*Gentlemen, ez diezaiogun oraindik ekin zakilak elkarri milikatze-ari!*».

Auskalo zergatik, baina nago Jainkoaren filmak aztertuko dituztenek ez dutela Tarantinoren lana ikusi.

Asteartea
2011ko urriaren 4a

berria

